

BEREZKO “-A” DUN IZEN ETA IZENLAGUNAK PERU ABARKAN

Antonio Mallea

I. ATALA

“-A” ITSATSIA DUTEN HITZEN ZERRENDIA PERU ABARKAN

Sarrera

Hizkuntza modernoek aurrizkien bitartez lotzen dituzte hitzak bata bestearekin kateatuz esaldietan. Artikuluek zenbatekotasuna adierazten digute; eta aurrizkiek batez ere adierazten digute hitzaren funtzioa esaldian: ez da berdin, gazteleraz, adibidez: “casa, la casa, de las casas, por la casa, en la casa” esatea; “casa”-ren funtzioa ez bait da bat, beti “casa” idatziarren.

Euskerak, ordea, funtzio horiek deklinabidearen amaeren bidez, batez ere, adierazten ditu. Baina hitza, edozein hitz, behar den bezala deklinatzeko, hitz horren bukaera argi eta garbi jakin behar dugu lehenbizi; bestela zeri erantsiko diogu deklinabidearen amaiera berezia. Hitza, berez, artikulurik gabe, inongo atzizkirik gabe, nola bukatzen da? Hauxe jakin behar. Adibide gisa, sarri erabiltzen dugun hitza: “gauzea, gauz, gauza, gauzaren, gauzeentzat, gauzie, ...”, edo-ta “Vitorira noa”, ala “Vitoriara noa?”. Zein da hitz soilaren bukaera garbia?; nora jo behar dugu hori jakiteko? Sarritan ez da gauza erraza.

Euskal hitzak gainera, ez du amaiera berdina eramaten hitz soila hartzen dugunean, edo eta hitz konposatuan datorkigunean: adib “eliza” izanarren, elexpuru, eleizkarai, elizpe egiten du, “itsaso”, baina itsasertz, itsasur, itsasabal”; “buru, baina burezur”. Elkartzerakoan alternantziak dituzte. Hau ere kontuan edukitzekoa da hitzak behar bezala ezagutzeko.

Euskerak, denok dakigunez, artikulua bat besterik ez du, “-A”, alegia; honek ere bere iluna ezartzen dio gure Hauziari: hitzak daraman azken -A hori bere du, ala artikulua da? Deklinabidean -A eta -E batez bukatzen diren hitzetan kontuz ibili behar dugula eskatzen digu honek. Eta auzia behar bezala argitu arte - A batez bukatzen diren hitzak zalantza eta huts

askoren iturburu izango dira; eta geroago eta gehiago, erdalkutsadurak euskal soinu ta fonema bereziak galduarazten bait dizkigu. Problema ez dugu argituko, ez Aizkibekek nahi zuenarekin, hitz guztiei —A bat erantsirik, ez eta amaierako -A guztiak artikulutzat hartuz. Hitz bakoitzaren berezitasuna eza-gutzean datza problema: axol ala axola; astakeri ala astakeria; neskati ala neskati. Dirudienaz zalantzak eta hutsak ugariagoak dira Gipuzkoan beste euskal lurraldeetan baino.

Ikerlan honetan adibide ugarikin egiztatuta ikusiko dugunez, Bizkaierak badu joera berezia deklinabidean: -A berezkoa duten hitzak artikulatu -A hartzen dutenean -EA egiten dutela: -A + -A = EA (nahiz -IE eskualde batzutan oguzkatzen dutenez: euskera + -A = euskerea, euskerie = vascuence, eta el vascuence adieraziz. Horra hemen beste oztipoa korapiloa askatzeko; bi alderdikako oztipokoak: -A-z bukatzen diren hitzetan berezkoa duten -A hori ilunduta gelditzen delako, -E bihurtu bait da; eta -E -z bukatzen direnengana “seme” adibidez, semEA egiterakoan, ez delako jakiten amaiera zein den, semE ala semeA.

Bizkaierak badu beste joera berezi bat ere: Gipuzkeraz -E -z bukatzen diren hitz batzuk Bizkaieraz -A -z egiten dute: lore /lora; gabe/ бага; suge/ suga; erle/ erla; Gipuzkeraz -LE eta -GILE atzizkiak, Bizkaieraz -LA eta -GILA, sarritan.

Peru Abarka aukeratu dugu, Juan Antonio Mogel izan bait zen Bizkaiera literatura mailara jaso zuen idazlerik lehen-nena; baita ere darabilen lexikoaren aberastasunagatik, eta hizkuntza ederragatik, nahiz ea joskeratik akats batzuk eduki. Mogekek ondo ezagutzen zuen Bizkaiko euskalkia, Markina aldekoa batez ere (Gipuzkera ere ondo zekien, bere “Eracasteac” Gipuzkeraz idatzi bait zuen). Zerrenda luzea osotzen dute -A berezkoa duten hitzek Peru Abarkan.

Peru Abarkan -A berezkoa duten atzizkiek atal berezia merezi dute: nahiko sail luzea eta aberatsa (1).

Ene uste apalez, Bizkaieraz egiten duten eskualdeetan hobeto zaindu da hitzaren amaiera, gehienetan behintzat: -A organikodunen auzia gure kasuan.

(1) *Oharra*: Peru Abarkak argitalpen bat baino gehiago izan ditu; nire ikerketa honetan eskuizkribuez gainera (Zarauzkoa, Arantzazukoa eta Markinako aita Karmeldarrena), 7 argitalpenetako aleak eduki ditugu begien aurrean. Lan honetan 1970.ekoa erabili dugu, ortografia berrian dagoelako, Juan San Martin-en gaztelerazko Prologoarekin. Aipamenek ondoan eramango dituzten zenbakiak 1970.eko argitalpenaren orrialdeak adieraziko dituzte. Eta aipamenak oso ugariak izango direnez gero, aipamenaren ondoan bertan ipiniko dut orrialdearen zenbakia besterik gabe.

1881. ekoa ere erabiliko dut; orduan agertuko da bere argitasuna.

Beste idazlanen aipamenek eramango dute premiazko adierazpena.

-A itsatsidunak aztertzerakoan, izenak eta adjektiboak hartu ditugu kontuan, hauetxek bait dira garrantzitsuenak eta eztabaiezkoenak. Beste eratako banakaren bat ere agertuko da, behar bada.

Peru Abarkaren eskuidatzien auzia ere ukitzeko asmoa genuen, heuren jatortasuna argitu nahian. Zertxobait bakarrik esango dugu hemen, ikerketa sakonagoa beste batetarako utzirik.

“-A” Berezkodun hitzen zerrenda

Atal honetan Moglek, Peru Abarkan, “-A” itsatsidun bezala erabiltzen dituen hitz soilak ipiniko ditugu; beste atal berezietan idatziko ditugu hitz horiekin osatutako esaldiak.

Bide batez, hizki bakoitzari dagokionean, jasoko dut Mogelen iritzia kontsonante batzuri buruz.

Zalantzazko hitzak: hitz batzuk Moglek, eta Bizkaierak, -A itsatsidun bezala erabiltzen ditu, edo erdi zalantzan gelditzen gara, garbi ez bait da beti ikusten nola bukatzen duen: edo lexikoan bakarrik ematen digulako, “artza” adibidez, nahiz “altza”: 93 eta 132. orr., edo -EA formaz datorkigulako; beste euskalkietan, eta gaurko hiztegien, -E -z amaitutakotzat hartzen dituzte, horietako hitz batzuk. Mogelengan ondo agertzen zaigu Bizkaieraren beste joera hau ere: Gipuzkeraz -LE eta -GILE, Peru Abarka -LA eta -GILA egiten du. Bikoiztasuna adierazten diguten hitzei ezaugarri hau (-E) idatziko diegu alboan, zerrenda honetan. Oso komenigarri zaigu ohar hauek gogotan edukitzea Bizkaieraz irakurterakoan. Hitz batzuk zalantzak sortarazten dizkiguten hitzen zerrendan agertuko dira; Banaka batzuk amaiera bereziko hitz bakan bezala: “katea, gaztaa, kanpae”.

A

1. Abarka
2. Arima
3. Asaba, Aasaba
4. Askora
5. Andra, eta Andera (-E)
6. Aurrera
7. Aza
8. Akiakula
9. Arkuntza
10. Antomia
11. Alkandora
12. Atsakaba (-E)

13. Aita
14. Ama
15. Amama
16. Ardura
17. Alaba
18. Atralaka
19. Ara (-E), (rastra, arado)
20. Antxina
21. Arnasa
22. Agura (-E)
23. Ailla (-E)
24. Amandra (-E)
25. Ala (tormento)
26. Arbola
27. Alboroka
28. Aaxa (aasa)
29. Arrautza: (-E, -tz): (arraultza, -tz eta -E)
30. Artzanora (-R)
31. Azuela
32. Apa
33. Aiota: Azkuek ez dio itzulpenik ipini.
34. Anaia
35. Arasa (limones del carro)
36. Algara
37. Anezka (lanzadera)
38. Aga
39. Arraa (sic) (palmo)
40. Aska
41. Arrera
42. Albokera
43. Arrantza
44. Aupatsa
45. Alegria
46. Abia
47. Arantza (-E)
48. Auzka (pendencia)
49. Azkura (-E)
50. Aldatsgora
51. Aldatsbera
52. Astinketa
53. Aukera
54. Atzerakuntza
55. Argaltxa
56. Alperreria
57. Adiuntza (oportunidad)

58. Azterketa
59. Atxurlaritzza
60. Azaldaketa
61. Azkada
62. Agiraka
63. Aika
64. Agurika
65. Arkuntza
66. Aziera
67. Apainduria
68. Asmatzailla (-E)
69. Arazkeria
70. Artza (zaranda) (-E)
71. Asturia (lurraldea)
72. Anjeologia (anatomiaaren hitza)

B

1. Baga (GABE)
2. Ber-bera
3. Berba
4. Bana
5. Biña
6. Burla
7. Berna
8. Bizargilla (-E)
9. Botika
10. Benta
11. Bentera
12. Bizitza (-E)
13. Bela (-E)
14. Birjiña
15. Breska
16. Baba
17. Banaka
18. Bogada
19. Bira
20. Burruka
21. Burdiña
22. Burdinaga
23. Barra
24. Bupera (Gupera)
25. Bata.. bestea
26. Bisita

27. Barailla
28. Basa, eta "Basa, Basa"
29. Benda
30. Bertaga
31. Basurda (-E)
32. Barriketa
33. Berbeeta
34. Beargintza
35. Baiduria
36. Berbakuntza
37. Basatza
38. Barberutza
39. Bizargintza
40. Baldreskeria
41. Biziera
42. Bandiola
43. Bitsadera
44. Bigantxa
45. Biraoka
46. Borrerukeria
47. Batzakuntza
48. Biztuera
49. Burni-tranpa
50. Bera (lina mueta)
51. Basabera (arbusto)
52. Beraza (sagar mueta)
- Hitz berezia = 53. Bigae (ternera)

C

Darabilgun ortografia berrian ez da agertzen "C"-z hasten den hitzik. Eskuizkribuetan eta 1881.eko argitalpenean, garaiko ohiturari jarraituz, haseran ere badarabil "C" gure "zi, ze" hotsetan, edo eta mailegu kultoetan: "causina", christiñaua

D

1. Donga (deunga)
2. Denpora
3. Desberguenza
4. Dotriña
5. Ditxa
6. Durmienda (pieza mayor de ferrería)

7. Deika
8. Dongakeria
9. Dardara
10. Domeca (eta Domeeca: “Eracasteac”-en Nomenclaturan)
11. Domentxa (sagar mueta)

E

1. Erregutada
2. Erretailla
3. Erremienta
4. Erida
5. Eskola
6. Erropa
7. Eleiza
8. Eriotza (-E, -Tz)
9. Epaila (-E)
10. Eskerga
11. Egia
12. Esamiña
13. Erla (-E)
14. Eza
15. Errezeta
16. Era
17. España
18. Eskuara (-E), (rastra)
19. Egilla (-E)
20. Eiza (-E)
21. Eskuma (eskuin, eskubi)
22. Erresuma
23. Errota
24. Ezgauza (bagatela, inepto)
25. Eunla (-E) (ehule)
26. Estolda: (alcantarilla, caño para la escoria del hierro)
27. Ezpata
28. Eskuda, baita, Eskuta, Eskutada
29. Estolda
30. Errueda
31. Eskailera
32. Erresera
33. Erretereria
34. Eskopeta
35. Egabera
36. Errenta

37. Errioja
38. Eztulga (-KA)
39. Etxaguntza
40. Ezaguera
41. Esakera
42. Esaera
43. Eskapada
44. Euskera
45. Eskuara: Baigorritarraren ahoan
46. Eungintza
47. Erdera
48. Esakuntza
49. Etorrera
50. Esangura
51. Erremuskada
52. Egitada
53. Ezkontza (-E)
54. Eztabaida
55. Estura
56. Enzula (sic) (-E)
57. Ereila (-E)
58. Ezgauza (menudencia)

Ikusten dugunez, gaurko erderetan “R”-z hasten diren hitzak euskeraz bokalez hasten dira: Erresuma, Erropa, Errueda, Errezeta, etab. Prestamozko hitzak dira. Ondo dakigu, baita ere, euskeraz ez dugula hitz zaharrik “R”-z hasten denik. Noizean bahin aurkitzen dugu “R”-haseran klasikoen-gan; zergatik? Horra hemen K. Mitxelenaren erantzuna:

“Hay pocas excepciones populares, aunque probablemente se puedan encontrar muestras en cualquier variedad de la lengua, pero algún autor (Leizarraga, Sauguis) ha prescindido de escribir la vocal (haseran), sin duda por cultismos: regue, resuma, etc.”: LUIS MICHELENA, *Fonética Histórica Vasca*, San Sebastián 1977, 155. 8.1. orr.

Sail honetako hitz gehienak latinaren maileguak ditugu, gutxiago erro-mantzearenak. Eta azkenengo hauetaz honela mintzatzen zaigu Mitxelena:

“No se puede excluir la posibilidad de que en algunos casos la prótesis sea ya romance”: ibid. 156. 8.1.

“E” bokala erasten zaio “R”-ri aurrekaldean, gehienetan: Erroma, Errioxa, Erresuma; baina baita “A-” ere: “habitualmente ante RA-, y también ante RO-, hay “A”: ibid. 155. 8.1: hitz ezagunak, “Arrazoin, Arroza”.

Eta nondik datorkie haserako bokala latinetik etorri ez zaizkigun hitz zaharrei?: arraultza, arrotz:

“Es un problema insoluble hoy por hoy” esanez gero honela erantzuten du Mitxelenak berak, “su vocal inicial es radical o debida a una prótesis anti-gua”: ibid. 156. 8.1.

—F—

Hizki honetaz hara zer digun Zarauzko eskuidatziak:

“No hai (sic) tal letra en el bascuence”: 163. orria dela juste dut! Eskuiz-kribu hau liburu bezala josita dago gaur, eta orrien ertzak egabi zizkiotenean orri batzuen zenbakiak ere jan egin zituzten, eta ez dira orri buruan agertzen; horregatik nire “uste dut”.

Zarauzko eskuidatziaren ohar hori hutsune meharrean idatzita dago, aurreko sailarekin, “E”-z hasten direnak, iaia bat eginda. Behar bada geroago idatzita edo. Baina kopistaren esku berbera da, batek idatzi ditu ohar hau eta liburua (1).

Ezaguna dugu Mogelen teoria F -ri buruz: “El idioma bascongado no necesita en el alfabeto romano de estas dos letras “f” y “h” y no aciertan los que escriben con F, estos vocablos “alferra, afaria, ifini”, y algunos otros que se deben escribir con P: alperra, aparia, ipini, es decir, como los pronuncian los puros bascongados. Estos, si no han estado en tierras donde han aprendido algo del idioma castellano, o no han cursado la escuela, no pueden pronunciar la F. Así por Fernando dicen Pernando, por Francisco, Prancisco, por Fiesta y Función Piesta y Punción (eta dirudienez, ez da teoria hutsa, experimentuak eginda gero atera zuen ondorio hori). He hecho repetidas experiencias con ellos, y no pueden pronunciar la F, sino sustituyendo la P. Argumento concluyente, dio berak, de que es letra extraña y superflua. Los chicuelos cuando empiezan a aprender el abecedario en la escuela llegando a la F, dicen “epe”, y cuesta trabajo el enseñarles a decir F como los castellanos” (2).

Bere adiskide Añibarrok, ordea, ez du onartzen ondorio hori, arratiarra-rentzat benetako euskal hizki bait da eta beste euskalkietan ez ezik Bizkaian bertan ere eskualde askotan ondo ahozkatua (ikus, bien arteko harremanak Mogelen Bizitza eta Lanari buruzko atalean).

Ikus, beherago, “P-z” hasitako hitzei buruz esanak.

(1) Ikus, Peru Abarka, 1881.ekoa, 228. orr.

(2) Peru Abarka, Durango 1881, 11. orr.

—G—

1. Gisa
2. Gauza
3. Gura (aditzetan atzizki bezala, deklinatuta)
4. Galtzaila (-E)
5. Giñarra
6. Gurbiza
7. Gaztanbera
8. Gela
9. Gerla (Baigorritarraren ahoan)
10. Gerra (Maisu Juanek)
11. Grazia
12. Garlopa
13. Garranga
14. Ganbela
15. Galda
16. Gorula (-E)
17. Gailleta
18. Garrama
19. Gatzamailla: (-E): ia beti -EA formaz
20. Gorrista
21. Gaztaiña, "Kastaiña" gehienetan
22. Gomuta
23. Ganbara
24. Garrasika
25. Giltzera
26. Galdara
27. Gia
28. Gaua (arista)
29. Gora-bera
30. Golda (-E)

Hitz bereziak: 31. Gaztae : ikus beheragoko atalean.
 32. Giltza

—H—

"Es letra superflua entre los Guipuzcoanos y Bizcainos que no aspiran en las pronunciaciones; no así entre los Bascos": Zarauzko ms., 164. orr. uste dut! in Peru Abarka, Durango 1881, 229. orr.

Ondo ezagutzen zuen Mogekek euskaldunen arteko auzia; Mogekek, zerabiltzan bi euskalkitan ahozkatzen ez denez gero, berak ez luke onartuko H rik. Baina entzuten ditu besteen iritziak:

“Sobre la H, hay variedad de opiniones. El P. Cardaveraz sostiene que en el vascuence es letra inútil. Larramendi, que puede usarse de ella alguna vez, para distinguir las voces equívocas. No es ésta a mi ver razón suficiente, cuando en la pronunciación no se distinguen tales voces equívocas (hona hor bere arrazoina). La buena escritura debe conformarse con la pronunciación. Los bascongados franceses llenan de esta letra H todas sus obras (ezagutzen zituela dirudi), y depende de que cortan de otra manera que nosotros muchas voces. Es pronunciación ingrata, torpe a nuestros oídos”: Peru Abarka, 1881.koa, 11. orr.

—I—

1. Ikara
2. Izunza (pieza de telar)
3. Iosla (-E)
4. Ioilla, Ialla (-E)
5. Irakurla (-E)
6. Irazteaska
7. Iraz-trama
8. Iiela
9. Itxura
10. Iagola (-E)
11. Iorra
12. Ira
13. Idalgia
14. Inka (escozor)
15. Izara
16. Imintzailla (-E)
17. Indriska
18. Imitxa
19. Irrintza (-i, -Tzina)
20. Izurda (-E)
21. Ikazgela
22. Iakituria
23. Itzaintza
24. Ioaera
25. Illeta
26. Iazoera

—J—

1. Jaunka
2. Jauntzera
3. Jita

4. Jera (Xera)
5. Jira
6. Justizia
7. Joilla (-E)
8. Jaiotza (-E) (1)

—K—

1. Korta
2. Konpianza
3. Koltza
4. Katolika
5. Kantika
6. Kostoma (catarro)
7. Kulpa
8. Kontra
9. Koillara (-E)
10. Kapela
11. Kopla
12. Kanta
13. Kangrena
14. Kerella
15. Korkamista (garguero)
16. Konbita
17. Kastaiña
18. Zapata
19. b: Kuma (cria) (-E)
20. Kaltza
21. Karkaraxa
22. Kokada
23. Kriatura
24. Kutxa
25. Karzela
26. Kezka

(1) *Oharra*: Nola ahozkatzen dute “J”? zein da bere soinua? “El bascuence no pronunciaba esta letra con el guturismo castellano, dio Mogelek, sino como los latinos, y casi todos los demás idiomas”. Hots arrotzaren iturriaz zera zioen, ‘Los Arabes dexaron (sic) en España esta torpe y violenta pronunciación, y ha pasado también a los Guipuzcoanos, y a algunos de los Pueblos de Vizcaya confinantes con éstos. Pero los Bascos y la maior (sic) parte de los Bizcainos conserva su antiguo y original uso’: Zarauzko ms., 166. orr. “ustez; eta Peru Abarka, 1881.ekoan, 234. orr. Baina gure Barberuak guturalaki ahozkatzen zuen, ez bait zuen ulertzen Joanisen “ji-aka” egitea: 107. orr. Mugako gizona zelako edo.

27. Kortika
28. Kortada
29. Koltzagintza
30. Katillukada
31. Kukuiska
32. Kura (abade)
33. Klareta
34. Kurkubieta (sagar mueta)
35. Keriza
36. Karrama (carda, peine de cardar)

Hitz bereziak: 37. Kanpae
38. Katea (1)

—L—

1. Lantzaka
2. Loka
3. Lotsa
4. Labaiña
5. Lantzeta
6. Lora (-E)
7. Landara (-E)
8. Luma
9. Logura
10. Lukainka
11. Landa
12. Langa
13. Leia (afán, ahinco)
14. Leza (-E)
15. Lisiba
16. Lama
17. Laka (salario del molinero)
18. Laba (-E)
19. Larra
20. Larrosa (1)
21. Lorsabagakeria
22. Larrapastada
23. Lapurreta

(1) *Oharra*: Hitz hauek ortografia modernoan daude, K-z alegia. Hara zer dioen Mogekek letra honetaz: “Esta letra es superflua en el bascuence... porque la “c” y la “q” bastan para escribir lo que exige su pronunciación. Los bascos la usan mucho sin dar razón para ello”: Zarauzko ms., 167. orr. justez!; eta, Peru Ab., 1881.ekoan, 323. orr.

24. Landeta
25. Lantza
26. Langintza
27. Laztamarraga
28. Loikeria
29. Laia
30. Liño-mueta

—M—

1. Makilla
2. Mana
3. Masusta
4. Mispilla (mizpira)
5. Meza
6. Mueta
7. Mentura
8. Moda
9. Marka
10. Matrailla
11. Milika
12. Miesa
13. Maria
14. Minbera
15. Madalena
16. Malma
17. Menbrana
18. Molleja
19. Maratilla
20. Marraga
21. Manta
22. Mailla
23. Mea
24. Malluka
25. Matasa
26. Menda
27. Makillaka
28. Mormosieta
29. Milikeria
30. Mugita (grama)
31. Misionista
32. Myolojia (anatomiaaren hitza)

(1) *Oharra*: “larrosa” idazten du, kultismoz edo; besteetako joera jarraituz “arrosa” egin beharko zukeen.

-N-

1. Neska
2. Neskatilla
3. Neba
4. Nardaka
5. Notizia

-O-

1. Okela
2. Ora (perro) (-R)
3. Oillanda
4. Ola
5. Orma
6. Ontza (xoria)
8. Osagilla (-E)
7. Obrera
9. Ora (masa, levadura) (-E)
10. Orrika (tenazas)
11. Otzara
12. Ota (-E) (árgoma)
13. Otaepailla (-E)
14. Olgura
15. Olga
16. Oratzailla (-E)
17. Osatzailla (-E)
18. Osakintza
19. Ostikoka
20. Ostikada
21. Olgeta
22. Oiñordekotza
23. Olgantza
24. Oba, deklinatuta sarri
25. Opa
26. Ontza (dirua)
27. Onda-aska
28. Ota (cama de aves)

-P-F-

1. Premiña
2. Pama
3. Plaga

4. Praiska
5. Piesta
6. Puska
7. Prenda
8. Pizta (legaña)
9. Piztia (alimaña)
10. Pazienza
11. Probanza
12. Papada
13. Pusiga
14. Piña
15. Pentzuda
16. Praka
17. Palanka
18. Para
19. Portuna
20. Pena
21. Podaiña
22. Pertika
23. Prantzia
24. Pigureria
25. Pamilia
26. Puska

“F”-z hasten diren banaka batzuk ere agertzen zaizkigu; maileguak dira denak:

27. Fabrika
28. Familia
29. Prantzia, “P”-kin erabiltzen dute Joanisek, Peruk eta Maisu Juanek; baina M. Juanek, behin, gutxienez, “Frantzesak”, dio: 118.orr.

—Q—

Ortografia berria darabilgunez gero ez zaigu agertzen Q-z hasten den “A” itsatsidunik. Zarauzko eskuizkribuak dakarren Nomenclatura-n berriz lau hitz bakarrik irakurtzen ditugu Q-z hasten direnak, eta, dirudienez, ondorengoak idatzita gero ezarri zituela esango nuke, eta estu-estu, nolabait, erantsita daude, letra txikiaz: Zarauzko ms., 171.orr.; eta, Peru Abarka, 1881.ekoa, 236-237.orr.

—R—

Mogelek argi eta garbi esaten du euskeraz ez dagoela R -z hasten den hitzik, aurretik bokala behar bait du: “Ningún vocablo bascongado empieza

con la letra R, dio berak. Estas voces compuestas, Recalde, Renteria, Recacoechea, están escritas con imperfección y les falta la E, y debe decirse Errecalde, Errenteria, Errecacoechea, etc.”: Zarauzko ms., 171. orr.

Mogelek ez du onartzen idazle batzuren erdal joerarik, R-z hastea hizkuntza arrotzen kutsadura bait da: “Los escritores han seguido el gusto castellano; los que a las voces bascongadas, Arrabia, Arratoia, Erriberia... las han querido desfigurar quitando las precedentes vocales para decir: rabia, ratón, ribera”; Zarauzko ms., 171-172. orr. (eta, in Peru Abarka, 1881.ekoa, 237. orr.); “R”-ek nahiz eta gehienetan E- protetikoa hartu, RA- eta RO- ren aurrean “A”-ere hartzen du: ikus gorago, 7. orr. esandakoa: L. MITXELENA, *fonética Hist. Vasca* 155-156. 8-1 orr.

—S—

1. Sangria
2. Salda
3. Serbilleta
4. Soldata
5. Santa
6. Sepultura
7. Sama
8. Sardiña
9. Sara (-E)
10. Sarda (-E)
11. Salza
12. Suga (-E)
13. Sona (reputada, apuesta)
14. Saka (empuje, ánimo)
15. Sostra
16. Sarrera

—T— eta —TX—

1. Taberna
2. Tema (dema)
3. Trenza
4. Txaplata
5. Topiña
6. Terreiña
7. Txuringa (Var. “Zuringa”: intestino recto, esfinter anal)
8. Tolara (-E)
9. Tresna (tresna)

10. Txarrantxa
11. Tobera
12. Tris Traska, Triska 'Traska
13. Txilioka
14. Testigantza
15. Txantxandura
16. Tanta
17. Tximitxa (imitxa)

—U—

Bai Zarauzko eskuizkribuaren Nomenclatura-n eta bai 1881.ekoan, U da hiztegi edo Nomenclaturaren azkenengo letra; X, Y, Z, eta V aurretik dakartza. Hemen ordena modernoa jarraitzen dugu.

1. Ule-trenza
2. Usa
3. Urtzailla (-E)
4. Uraga
5. Uarka (catre)
6. Urruza (dial.: "urrixa") (hembra)
7. Urkula
8. Untura
9. Uurra (urra = urritz)
10. Ur-aska
11. Ugazaba
12. Uluka
13. Urlia (fulano)

—V—

"La V consonante es superflua en rigor, irakurten dugu Zarauzko ms.-toan, y basta la b": azken-aurreko orr.

1881.ekoak aldaketa txiki batekin ematen digu, "Esta letra en rigor es superflua y basta la B": 239. orr.

—X— eta —Y—

"X y la Y griega son letras superfluas en el bascuence" dio Zarauzko eskuizkribuak: 173. orr. justez!

1881.eko argitalpenak, berriz ere, aldaketatxo bat egin dio esaldiari: “X e Y son letras superfluas en el bascuence”: 238. orr.

—Z—

1. Zeta
2. Zirujia
3. Zetaka
4. Zalga
5. Zuurda (sic) (zurda): (crin)
6. Zaunka
7. Zapata
8. Zirika
9. Zama
10. Zepa (escoria)
11. Zara (cesto) (-E)
12. Zerra (sierra)
13. Zepa-ama (madera donde apoya el martillo pilón)
14. Zuzentzailla +++ (-E)
15. Zabuka (dando tumbos)
16. Zantarkeria
17. Zur-ezpata

483 hitz jaso ditugu. Horietatik gehienak --A berezkoduntzat erabiltzen dira euskalki guztietan. Banaka batzuk Mogekek, (eta Bizkaierak) berezko -A -duntzat hartzen ditu, nahiz eta beste euskalkietakoek -E -z amaitu. Beste banakaren bat erdi zalantzan gelditzen zaigu, Peru Abarkan datorkigun amaierak, -EA gehienetan, ez bait digu auzia zehatz mehatz garbitzen. Ipinitako banakaren bat ez da ez izen ez izenlagun.

Mordotxoa da Mogelen Bizkaierazko joera berezia, -A” -z amaitzeko joera, alegia, adierazten digun hitz-zerrenda: tolara /tolare, agura/ agure, andra /andre, iosla/iosle, eunla/ ehule, sara/sare, sarda/ sarde, irakurla/irakurle, izurda /izurde, oba/ obe, landara/landare, laba /labe, lora/ lore, etabar.

Hemen jaso ditugun hitz batzuk latineraren eta erromantzeraren maileguak ditugu; banakaren bat gazteleratik hartua.

II. ATALA

“BEREZKO -A DUNEN” DEKLINABIDEA PERU ABARKAN

I. Sarrera

A) EUSKAL BOKALISMOAZ

Euskararen sistema bakalikoa eta bokale fonetismoa nahiko lauak ditugu. Euskeraren bost fonemak eta hiru zabalkuntzak gazteleranarenekin, eta hizkuntzarik modernoekin, nahiko antzekoak ditugu: i, e, a, o, u. Hala ere zuberotarren “ü”- eta “i/u”-n arteko aldaketek badituzte baraien berezitasunak.

Euskal bokalismoa “sistema vocálico sencillo” esanez gero, honela jarraitzen du Koldo Mitxelenak, “el vocalismo de los dialectos vascos modernos puede explicarse a partir de un sistema antiguo de cinco vocales, análogo al de la mayor parte de las hablas actuales. La mayor dificultad con que tropieza esta hipótesis es probablemente la que presentan ciertos casos declarados de alternancias i/u”: L. MITXELENA: *Fonética Hist. Vasca*, 47. eta 371, eta 391. orr.

Euskal bokaleen hotsak ozenago ala gorrago, atzerago ala aurrerago, luzeago ala laburrago, zabaldura ala ixtura handiagoz, gorago ala beherago ahozkatzeak, aldaketa eta problema ugari sortzen ditu, hitz luze eta konposatuetan, batez ere. Inguruko erdal fonemen kutsadurak ere kontutan edukitzeak dira. Aldaketa eta kutsadura hauen azken sustraia eta arrazoa garbi aurkitzea ez da gauza erraza beti.

Euskal bokale gehienak, nahiz eta sitemaz gazteleranaren antzekoak izan, lasaiagoki eta zabaldura handiagoz ahozkatzen ditugu, eta gure “a” palatalagoa dela uste dut. Horregatik, sistema biak antzekoak izanarren euskal bokaleen arteko distantziak laburragoak dira: A eta E, E eta I, O eta U, I eta U-ren tartekaldeak, alegia

Argi handia ematen digu honek bokaleen arteko gurutzaketak eta aldaketak, elkar kutsadurak eta ezkutatzeak ezagutzeko, bai euskalki batetatik bestetara dauden ezberdintasunak eta bai euskalki batek garai batetatik bestetara izan dituenak ezagutzeko. Ardura apur batez edozeinek egizta dezaje holako zerbait gertatzen dela A eta E, E eta I, O eta U -ren artean, nahiz -N sudurrezkoaren eraginez batzutan, asimilankuntza edo disimilakuntzarenaz bestetan; -“RR” dardargilearen kutsaduraz, nahiz ondorengo nahiz aurreko fonemaren eraginez; edo sandhiren influentiaz. Guztiau dela eta, “es extremadamente difícil reconstruir la forma básica” dio Mitxelenak: *Fonética Hist. Vasca*, 85. orr.; probetxagarri izango zaigu ikerlan beronen “Apertura y Cierre” atala irakurtea: 59-71.

B) BIZKAIERAREN BOKALISMOAZ

1. Bizkaierak hiru joera nagusi ditu: a) “-E” -z barik “-a”-z amaitzeko ohitura hainbat hitzetan; b) -A + -A = -A -ren ordezt, -EA egiteko joera, aintzinakoa eta zabala gainera; d) hitz berezien amaieran-AA -ren ordezt -AE egiten duela.

a) -A + -A = -EA: ikus beherago atal honetan: II: “-A” ITSATSIDU-NEN DEKLINABIDEA PERU ABARKAN”.

b) -AE: ikus, “IV. ATALA: “BEREZKO -A DUN” HITZEN ESALDIAK: izen bereziak “(gaztae, kanpae, Bigae).

-A -z bukatzeko joera: joera arrunta Peru Abarkan, lehenengo atalean ipinitako hainbat hitzetan ikus dezakegunez. Honetaz konturatzeko nahiko da B mintzatzen direnei entzutea, Markina ingurukoei batez ere, edo B klasi-koak irakurtea.

“En posición final absoluta, dio Mitxelenak, el vizc. tiene a menudo “-a” por “-E” en los demás dialectos”: L. Michelena, *Fonética Hist. Vasca*, 128.6.2. orr.

Mogelengandik jasotako adibide ezagunak ipinirik: lora, erla, ara, бага (G metatesisaren bidez Gabe), bela, lora, oba; edo eta atzizkietan, -LA /-LE-ren ordezt; -GILLA /-GILLE (-killa /-kille); -TZAILLA/-TZAILLE -ren ordezt sarri irakurriko ditugu Peru Abarkan (ikus, “-A” BEREZKOA DUTEN “ATZIZKIAK” PERU ABARKAN: II.atala).

Nondik datorkio Bizkaierari ohitura hori? Mitxelenaren ustez Bizkaieraren berrikeriaren bat omen da; latinaren mailegu zaharrak dakartza lekuko, fonetikazko arrazoirik gabe, Bizkaierak + A egiten duela ikusarazteko: sing. akus. “flore(m) -ek LorE egin beharko luke; baina Bizkaierak LorA egiten du.

“No hay duda, dio berak, de que se trata de una innovación vizcaina (cfr. préstamos como “arata” = pato, “lora” = flor, etc.) que no hay porqué atribuir a causas fonéticas”: L. Michelena, *Fonética Hist. Vasca*, 128, 6.2 orr.

“-A-z” bukatzeko duen joera honek sor dezake zalantzarik “-A” -z eta “-E”-z amaitzen diren hitzetan, nomin., inesib., dat.... batez ere: etxea, alabea, etxeakaz, alabeagaz; etxeari, alabeari; etxeetan, gauzeetan. Zein da hitz hauen benetako bukaera soila? Zalantzen sorburu!

Horrez gainera “-A” -z eta “-E”-z bukatutakoen saila luzea denez gero, zalantzak ez ezik gramatika nahasketak ere sortzen ditu Bizkaiera ondo eza-gutzen ez dutenengan; egun, Bizkaierakoengan ere, beste arrazoin batzuren-gatik noski, askori ez zaie, ez, erraz gertatzen hitzaren amaiera garbia jakitea honako zerbait irakurten nahiz erantzuten dutenean: “gauzearen, etxeari, ala-beentzat, etxearekin...”. Beste bide batzuk baliatu behar auzia erabakitze-ko.

Bizkaieraren ohitura hau ez da gaurkoa, aintzinakoa baizik, “desde los primeros textos” dio Mitxelena, eta adibide askokin egizta genezakeena. Nomin. pluralean gauzak argitxoagoak izanarren, “los casos comunes han debido ser suficientes para producir alguna vez confusiones entre ambos grupos de temas (“-A” -z eta “-E”-z amaitutakoekin, alegia): L. Michelena, *Fonética Hist. Vasca*, 128-129, 6.2. orr.

Kezka hau aintzinakoa dugu, Micoletarrenagan agertzen bait zaigu, beraz ere ohartu bait horretaz: L. Michelena, *Fonética Hist. Vasca*, 129. orr. (6) aipamena.

Baina zalantza eta nahaspila askoren iturburua euskal hiztunengan datza, batez ere, askok nom. mug. sing. hartzen bait dute errotzat, “gauzea, etxea” adibidez, ez “etxe, gauza”; eta hortik ezin garbitasunik atera, ez benetako amaiera jakiteko, ez nom. plur. egiteko.

Beste motibo bat ere agertzen da, ene uste apalez, B egiten dugunongan: artikularen ugaritasuna euskeran. Ados nago R. M. Azkuek zioenarekin:

“tal vez, dio, el sonsonete del artículo “A”, final de uso tan frecuente, haya dado origen a esa tendencia”: R. M. AZKUE, *Morfología Vasca*, 37.32. orr. (ikus bertan zerrenda osoa, beste euskalkietan “E”-z eta Bizk. “-A” -z amaitzen direnak: 36-37. orr.).

Hala eta guztiz ere, ene ustez, -EA egiteko joera horrek eta Bizkaieraren eskualde askotako ahozkatze guztiak, “-ja, -je”, bokalen aurrean, “anaijia, apaindurijia, jakiturijia, egija, piztija”, etab. badute, eta izan dute, eraginik -A itsatsia gordetzen.

2. Euskal bokaleen elkar kutsaketa eta hots aldaketa hain sarri gertatzen zaigun fenomeno badi, galdera bat datorkit ezpainetara: nolakoa da euskal bokaleen iraunkortasuna, odo eta nolakoa da heuren aldakortasuna? Bi hiru gauza esango ditugu bakarrik.

Euskal bokaleen eboluzioaz honela mintzatzen zaigu Mitxelena jauna:

“puede resumirse (evoluzio hori) en dos rasgos, contradictorios a primera vista. Muestran por una parte una gran facilidad de modificarse por influencia de sonidos vecinos, y por una fijeza no menos grande, ya que no parecen haber sufrido cambios profundos y generalizados, análogos a los que nos son familiares, por ejemplo, en la historia de las lenguas románicas”: *Fonética...* 50.1.3. orr.

Iraunkortasun horren lekuko hor ditugu: a) Akitaniako euskal-dokumento zaharrak: jainko eta pertsona izenak: Sembe, Nescato, Cison, Bihox(us)...

b) Gure toponimia: Gebala = gaur, Gebara; Illu(m)beritani = Irunberri; Oiasso (Olarso, in Plinio) = Oiartzun.

c) Latinaren mailegu zaharrak: lora; luma; bake; lege.

Ikusten dugunez orduko bokaleek gaur arte irauten dute, eta sarri hitz berdinetan, bokale aldakatarik gabe. Baina iraunkortasun horrek ez du ukatzen hainbeste hitzetan gertatzen den aldakortasuna: ikus, L. Michelena, *Fonética Hist. Vasca*, “Apertura y Cierre”, eta “Vocales finales” atalak, eta passim, egia hau ere egiztatzeko.

II. “-A” Itsatsidunen deklinabidea Peru Abarkan

1. Jakina dugu deklinabidean bi bokale elkartzen direnean, edo beste bokale elkarketetan, hiatoak bere problemak dakarzkigula; eta “-A”-z eta “-E”-z amaitutakoekin zuhur ibili behar dugula.

Euskalki gehienetan lotura hau hartzen da arautzat: $-A + -A = -A$ (-A bat). Gipuzkeran ere, Oñati eta Deba ibarrean izan ezik, hauetan B egiten bait da gehienbat, joera hori nagusitu da. Honengatik Gizpuzkera hitzuntentzat huts askoren iturburu dira berezko “-A” duten hitzak, sarritan ez bait dute garbi ikusten non bukatzen den hitzaren erroa eta non hasi erantsitakoa. Nahasketa zabalduz dihoala ikusirik oihu egiten du Txillardegik bere euskalki kidekoak, batez ere, oharrarazi nahian:

“Doinu-ezagugarriak ezabatu eta galdu ala, izkribuen egokitasuna ere gain-behera doa, gipuzkoar idazleen artean batez ere”: TXILLARDEGI, Oinarrri Bila, Donostia 1977, 12. orr.

Euskal deklinabidean aldaezinezko ordena hau dugu: izenaren bukaera + art. + kasu-atzizkia = etxe + a + ren.

Elkartzen diren bokalak berdinak badira, hots berdineko bokale bat bakarrik emateko joera da nagusitu dena: $-A + -A = -A$; $-E + -E = -E$; hone-l a euskalki gehienetan.

Mogelek, Bizkaieraren joera zaharra eta zabala gorderik, honela egiten du Peru Abarkan: $-A$ itsatsia + $-A$ art. = $-EA$. Mogelek ondo ezagutze zuen beste joera arrunta ere: $-A + -A = -A$ (-A batekin). Mogel Eibarren jaio zen, eta Markina inguruan bizi izan zen beti; “mugako gizona” genuen Mogel, bai jaiotzaz eta bai bizitzaz. Honez gain G ondo landu zuen, bere lehenengo idaz-lana Gipuzkeraz idatzi bait zuen: “Confesio ta Comunioco... Eracasteac” Irunea, 1800. ean: azpiidazburuan digunez “guiputz itzqueran” argitaratu zuen; garaiko G egokia darabil.

Bizkaieraren joera, aintzinakoa eta oso zabala izanarren (Bizkaian ez ezik Araban, Gipuzkoako Deba ibarrean, eta Errioxan ere betetzen bait zuten) arautzat hartu den joeraren ($-A + -A = -A$, alegia) salbuespentzat hartzen da, “principal excepción a la regla” digu Mitxelenak: *Fonética* 114.5.4. orr.

2. Mogelen idazkeraren berezitasunetaz hobeto jabetzeko, deklinabidearen ereduzko eskema ipiniko dugu:

— A berezkoa duten hitzetan hau dugu:

MUGAGABEAN: -A + kontson. = loturarik ez (gauza + tan = gauza-tan)

—A + bokale = lotura “r” (gauza + IK = gauzarik)

SINGULARREAN: -A + -A = -A (kutxa + AN = kutxan), (-A bat)

PLURALEAN: -A + A = -A (ardura + AK = ardurak), (-A bat)

-A + -E = -E (egia + -EN = egien)

3. Adibide ugari, esaldi ugari ipiniko dugu Mogelen idazkera, -EA alegia, ondo adierazteko. Peru Abarkako -A itsatsidunen saila luzea denez gero, ugaritasun hori eskatzen digula uste dut.

Beste adibide asko, gainera, beste ataletan ere jasota daude. Guzti hauek gogotan izanik, hona hemen Peru Abarkan arautzat hartu behar diren formak:

1) -A + -A = -EA: nomin. sing.:

ikus, V. ATALA: “-AA” BIKOTEDUN HITZAK”. Han ikusiko dugu ines. sing. eta nomin. plur. Moglek zuen beste joera, -AA jeminatuak erabiliz, sarritan).

—A—

ALKANDOREA: “ekatzu bada alkandorea”: 77. orr.; 104.

ANDREA: “gizon edo andrea bitxiz edo soiñoko apainduz azaleti...”: 79.

ARRANTZEA: “astoaren arrantzea, miñ bagea”, esaera zaharra: 80. orr.

ALABEA: “onetan berdiña da nire beste alabea”: 68. orr.

ARDUREA: “zuen amak eta nik eukiko dogu zuen ardurea”: 69. orr.; 28.

ALBOROKEA: “adiskide garealako ezaugarritzat egin daigun alborokea”:

24.

“ASKORIA, AZUELEA, BARRENEA, GARLOPEA, ZERREA”: 104. orr.

ARIMEA: “etxera noanean garbitu bear dot neure arimea kezka...”: 65. orr.

“A zoroa! Oni arimea aitatu?”: 43. orr.

ATSEKABEA: “onak ta txarrak, atsakabea ta atsegiña emoten dabeenak”: 32.

EUSKERA: “nekezale erdera bagakoetati euskerea ondo baiño obeto ikas-teko”: 131. orr.; passim.

“AGUREA”: 126. orr.

ARBOLEA: “zegaiti esan dozu abe edo arbolea?”: 131. orr.

ATZEREA: “onlan zagoz ain atzerea”: 111. orr.

ANEZKEA: “beste a anezkea”: 96. orr.

“AAXEA”: 100. orr.

AZTERKETEA: “ona barriz burdiaren zure anatomia ta nire azterketea”: 100.

ATXURLARITZEA: (langintza honen Bibliko oinarria adieraziz) “Atxurlaritzea da artez Jaungoikoak emoniko lana”: 101. orr.

ASKEA: “guzur -askea”: 90. orr.; “onda-askea”: ibid.

AGEA: “bertagea”: 91. orr.; “uragea”: 84. orr.

AMANDREA: “amandrea ta otseña”: 37. orr.

AUZKEA: “emen baraila, dardara, auzkea ta nasaitasuna baiño besterik eztago”: 41. orr.

“AILLEA”: 53. orr.

ARNASEA: “... arnasea bere zorko dozu”: 43. orr.

ARDUREA: “agoe ta egikizunen (sic) arazo ta ardurea”, 85. orr.

AKIAKULEA: “iltera badoa (gaisoa) atxakia, esesiñoē ta akiakulea aoan”: 22. orr.

—B—

BUPEREA (edo Guperea, biak): “Maisua, ondo milika ta buperea zagoz”: 29.

BARRIKETEA: “kalerik kale ibillita ezta ikasten barriketea, alperreria dongaro esatea ezpada”: 132. orr.

BENTEREA: “ze plagak zirikatu nenduan atso benterea banatuteko?”: 134.

BERBEETEA: (‘hitz honek bi lege berezi damaizkigu: berbA + Eta = berbeeta (beherago ikusiko dugu -EE, auzia), eta hemen dagokiguna: -etA + -A = -etEA): “España guztiko berbeetea”: 130. or.

— “Oneek (Tubal-darrek) ekarri eben euren berbeetea”: 130. orr. (eusko iberismoaren Bibliko oinarriak aurkitu nahirik).

— “aztu eragin len ekien berbeetea”: 129. orr.

BURDINEA: “zeiñi (Ielerari) iagokan iieztea edo irutea burdiñea...”: 84.

Eta olagizon honen definizioa ematerakoan, “Iieleak esan gura dau iiez-tu edo irunduten dabela burdiñea”: 83. orr.; 89. orr.

BEARGINTZEA: “...zaindu dabenak esan dogun beargintzea, doa lotara”: 84.

BIZITZEA: “gurago dau otsoak baso-bizitzea, iaatekoa nekez billatu...”: 86-87. orr.; 129.

“BOGEA”: 90. orr.

BARREA: “burdin-barrea”: 91. orr.

BIRJINEA: “iaio zan Maria Birjiñea-gandik”: 112. orr. (1881.ekoan badu beste berezitasuntxo bat ere: “jaio zan Marija Birgiñia gantic”: 162. orr. “-nia” bukaeraz hara zer dioen Mitxelenak: “el cierre en “e” no se produce en los temas en -IA ni (al menos en los primeros textos) en los en -INA, que estaban aun en la fase -IA, aunque el vizcaino moderno

no parece conocer, quizá por analogía, más que continuadores de -INEA”:

Fonética Hist. Vasca, 114-115. orr. Ikus, “dotriñea”: 25. orr.

Eta beherago: “Es de señalar la tendencia vasca a dar la terminación -ENA, -INA, de donde -EA, -I(ñ)A (en cultismos recientes también -INA), a préstamos que en latín tenían -INEM o en romance -EN, -én, -in: Birji-na (-ña)”: op. cit. 146.7.7. orr. Mogelek badarabil amaiera berdineko beste bat ere: esamina:

“neure esaminea”: 121. 1970.ekoan; 1881.ekoan honela irakurten dugu: “neure esaminia”: 175. orr.; edo eta, “igaro nituan iru esami-ña...”: 18. orr. 1970.ekoan; eta, “igaro nituban iru esamina...”: 48.orr. Lege berdina betetzen dute Munitibarren, eta hainbat tokitan erabiltzen diren hitzetan ere: zelemiña, txapiña, sarta(g)iña, erregiña, etab.

ikus baita ere, “Ama Birjiñari” dio 1970.ekoan, 110. orr.; eta 1881. ekoan, “Ama Virgiñari”: 160. orr.

(— “Birjiña, Birjiña”: ikus, beherago, Atal honetan, euskalkien arteko berezitasunak izen hau oguzkatzerakoan)

BAGEA, deklinatuz: “bai ondo bizia ta baldreskeria bagea”: 116. orr. “geeli gazitu bagea”: 73.; 77 orr.

BERBEA: “emoten deutsut berbea ezteutsudala aitatu ko atsakaba emongo deutsun berbarik”: 24. orr.

BEREA: “batari (lina muetari) deritxo agorra ta besteari berea”: 94.

BARRENA: “barrenea”: 104.

BIZARGILLEA: “Barberuaren izenak esan gura dau neure ustez Bizargi-lla”: 19. orr. (ikus beherago -GILLA / -GILLE atzizkiak): III. Atala.

“BUREZPATEA”: 101. orr.

BEARGINTZEA: “eztiñot nik dongarorik zure beargintzea gaiti”: 21. orr.

BELEA (“Bele”; zalantzazkoen artean ipini dut): “belea da leku beetara iatsi oi dana”: 127. orr.

BERBEA: “berbea moteldu”: 34. orr.; passim.

BATZAKUNTZEA: “buru-azur biribilla da beste azur batzuen batzakunt-zea”: 52. orr.

—D—

DOTRINEA: “amak dauka dotriñea irakasteko ardurea”: 28. orr.

DENPOREA: “ezta orain berba egiteko denporea”: 28. orr.; 18; 70.

DESBERGUENTZEA: “ze berba da desberguentzea?”: 19. orr.

“DURMIENDEA”: 90. orr.

DITXEA: “nire ditxea, zertan edo artan serbidu al bazengidaz!”: 74. orr.

—E—

EUSKERE: “... aztu eragingo baleusku euskerea, ta... erri baten bakarrik isten dabela lengo euskerea?”: 130. orr.; passim.

Bere Eusko- iberismoa azaldurik: “euskerea zan antxinako España guztiko brbeetea”: 130. orr. (1881.ekoan, beti “España” irakurtzen dugu,, gazteleraren eraginez edo!).

EPAILLEA: “zer da epaillea? Epaillea da zuek karnazerua.”: 23-24. orr.

ESAMINEA: “zugaz orain neure esamiñea”: 121. orr. (ikus gorago “Birjinea”-z esandakoa).

EGILLEA: “zeruaren ta lurraren egillea”: 112.orr. (ez digu erabakitzen amaieraren auzia)

ESKERGEA: “eta zein eskergea den!”: 114. orr.

ESAAREA: “bakotxa bere zoroak bizi dau; alan da esaerea, ta alan izatea”: 115. orr; 79.

ESKAPADEA: “Peru, nik egin dot eskapadea!”: 136. orr.

EREA: “ta ori erea dan guztian”: 17. orr.

ESAKUNTZEA: “orri esaten iako euskeraz esaerea edo esakuntzea”: 79. orr.

“BUREZPATEA”: 101. orr.

“ESKUAREA”: 102. orr.

ESTUREA: “an da esturea!”: 63. orr-

ETXAGUNTZEA: “bildurrik ezpaleuke galduko dabeela etxaguntzea”: 69. orr.

—G—

GINARREA: “zelangoak direan otea, gisatsa, giñarrea ta beste asko”: 132.

“GURBIZEA”: 132. orr.

GUREA: “edan-gurea”: 26 (aditz-konposatueta sari darabil “gura” atzizkia deklinatuta).

“GAILLETEA”: 91. orr.

GAZTANBEREA: “... auntza, akerra, gaztae, gaztanberea, brujakea”: 121. orr.

GAUZE: “orregaitiño Jaungoikoak emoten deusku gauzea ugari”: 58-59. orr.

“GARLOPEA”: 104. orr.

GILTZEREA: “etxe giltzerea, o ze ikarea!”: 64. orr.

GARRANGEA: “au, garrangea”: 96. orr.

GOREA BERE: “aldats gore, aldats berea”: 80. orr.

—I—

IIELEA: “iielea, erakutsi eiozuz gizon oni...”: 89. orr.; passim

— “iielea guztien iagola, irakasla ta burua”: 83. orr.

IRAZTEASKEA: “irazteaskea edo ariltegia”: 96. orr.

ITZAINZEA: “badakie (euskal-neskatilak) idiak buztartuten, itzaintzea egiten”: 100. orr.

IKAREA: “... o ze ikarea”: 64. orr.

— “dongeak, atsakabea ta ikarea”: 65. orr.

IAGIGUREA: “badakizu eztala bardin gabeko iagigurea ta goizekoa”: 76. orr.

ITZAINZEA: (seme-alabek) “badakie... itzaintzea egiten”: 100. orr.

—K—

“KASTANEA”: 132. orr.

KERELLEA: “ilten bada ioan zan nire kerellea”: 49. orr.; 134.

“KORKAMISTEA”: 54. orr.

“KAPELEA”: 91. orr.

KANTEA: “ezpatarien kantea liño gietako aldietan”; 97. orr.

KERIZEA: “kerizea”: 132. orr.

—L—

LUMEA: “aurra, artu egizu lumea ta daukazun ur baltz...” 32. orr.

LARROSEA: 132. orr.

— “asto -larrosea”: ibid.

LANZETEA: “artuko bazendu nire lanzetea, egingo zeunskio gaisoari...”: 19.

LABAINEA: “zetarako esan “Barberua”, “Labaiña” ta onelango izen arrotz”: 19. orr.

LOTSEA: “ekarri eragingo deutsee lotsea ta...”: 70. orr.

—M—

MANEA: “gauza manea esaten dogu gauza on ta gogokoa gaiti”: 128. orr.

“MISPILLEA”: 132. orr.

MUETEA: “oillagorrak... berbeak berak diño dala oillo-muetea ta gorra”: 124. orr.

MOLLEJEA: “... arbiak edo mollejea”: 34. orr.

MENDEA: “eio-ondoan, bere laka edo mendea errotrariak artuta”: 103. orr.

—N—

NESKATILLEA: “zer don bada neskatilea neskea baiño onradago?”: 24. orr.

“NARDAKEA”: 90. orr.

“NESKEA”: 24. orr.

++ Neska, Neskaitila: irakur azalpen zehatzagoak, in: III. Atala, “-A itsatsidun” Atzizkiak”; II. Atala, “Berezko -A” -dunen Deklinabidea”; VI. Atala, “Berezko -A Zalantzadunak”.

—O—

OLEA: “dakustanez, gau ta egun dabil olea”: 86. orr.; 90; passim.

OKELEA: “plateran ateraten dira aza ta okela”: 25. orr.; 73.

“OTEA”: 132. orr.; “otaan”: 121. orr.

OBEA: “ikazgiñak baiño lapiko obea”: 87. orr.; 86; passim.

“OBREREA”: 91. orr.

OTAEPAİLLEA: “luebañiga ta otaepaillea da”: 106. orr. (esaldi hutsak, berak bakarrik, ez digu argi handirik ematen “berezko -A duna” denik ala ez jakiteko. Mogelek zuen -A -z amaitzeko joerak beste argi apurren bat damaigu bere iritzia ezagutzeko).

ONDA-ASKEA: “onda-askea”: 90. orr.

—P—

PIESTEA: “zetan parau etezan piestea?”: 32. orr.

“POPADEA”: 54. orr.

PUSIGEA: “pusigea edo garnu-ontzia”: 54. orr.

PALANKEA: “palankea edo burdiñ-agaak”: 91. orr.

“PAREA”: (la pala) 91. orr.

PRENDEA: “orra or itxura ederreko prenda”: 41. orr.

I. Atala Mogelen iritzia “p-”z eta “F-”z: ikus.

—S—

SALDEA: “ortixe aterako dozu saldea ta...”: 73. orr.; 87; 100; 133.

— “makallao-saldea artuta...”: 136. orr.; 67. orr.

“SUGEA”: 126. orr. (era soil honek ez du zehazki erabakitzen amaiera auzia)

SOLDATEA: “... soldatea artu ta ioan zakioz etxeti”: 40. orr.

“SAMEA”: 53. orr.

SARDEA “:” sardea edo simaur batzaillea”: 100. orr.

—T—

“TOBEREA”: 90. orr.

TXARRANTXEA: “txarrantxea deritxon orrazi askatuan...”: 98. orr.

TXANTXANDUREA: “txantxandurea aurrez eginda ezarri bear iako...”: 103. orr.

TESTIGANTZEA: “neskatilla serbitzari baten testigantzea ezta asko”: 48.

“TXURINGEA”: 54. orr.

“TXIMITXEA”: 127. orr.

— “tximitxa edo imitxea”: 125. orr.

—U—

UGAZABA + ANDREA: “badaki Praiskak zelan galdu dozun ugazaba-andrea”: 47.

URRUZEA (urrixa): “zeri esaten deutsazu txaala ta zeri urruzea?": 70. orr.; 71. orr.

URTZAILLEA: “Urtzailla bi”: 90. orr.

eta

GATZAMAILLEA — “esaten iako barriz Urtzailla, zerren urtu egiten...”: 83.

— Mogelek izen hau urtzailla “-A” itsatsidun bezala darabil: “dira lau beargiñ: Iielea, Urtzailla bi, ta Gatzamaillea”: 82. orr. Azkenengo olagizonaren izena ordea, “gatzamaillea” alegia, ez da garbi ikusten nolako amaieratzat zeukan, beti -EA -z bukatuta agertzen bait zaigu. Kontutan eduki behar dugu gorago esana: Mogelek, Bizkaieraren joera zaharrari jarraituz -LA-z amaitzen ditu beste euskalkietan -LE -z diren batzuk. Adibideak ikus ditzakegu lan honen barna.

UAGEA (“uragea” besteetan): “uiaikia edo uagea”: 90. orr.

— “emoten deutsa ura Iieleak urageaz”: 84. orr.

“URKULEA”: 90. orr.

— “a, urkulea”: 96. orr.

UNTUREA: “erakutsi daigun zegaz egiten dan unturea”: 114. orr.

—Z—

“ZERREA”: 104. orr.

“ZEPA-AMEA”: 90. orr. (pieza grande de madera donde se apoyan los postes del martillo pilón)

ZALGEA: “ezarri arren simaurra ugari, iorratu ta zalgea eskuz atera”: 37-38. 102.

ZAUNKEA: “Peru, txakur-zaunkea”: 57. orr.

ZAPATEA: “zapatea esaten iako oiñeko zoru sendodunari”: 59. orr. (1).

2. “-A + -A = -EA”: Beste kasuetan

—A—

AITEAREN: “aitearen ta Semearen ta Espiritu Santuaren izenean”: 73; 27.

AZEAK: “azeak, berea kritena”: 80. orr.; 22.

ARRAUTZEAK: “erroiaren arrautzeak, usakumerik ez”: 80. orr.

ALKANDOREAREN: “ekartuz bada iake zuri alkandorearen gaiñekoa”. 77.

ANDREARI: “esaion ugazaba-andreari ipiñi daigula...”: 24. orr.

AGUREAK: “zer esan gura dau agureak?”: 119. orr.

AZKOREAK: “bada azkoreak inausten ditu”: 85. orr.

ANDREAK: “etxeko-andreak gorde daroaz”: 40. orr.

ARIMEARI: “... begiratu daiola arimeari”: 43. orr.

—B—

BAGEAZ: “arpegi bildur bageaz”: 135. orr.

— “laztasun bageaz”: 34. orr.

BIZITZEARI: “gure bizitzeari ez iatorko alpertasunik”: 104; 38.

BIZIEREAREN: “... lagunaren biziarearen gañean”: 104. orr.

BARBERUTZEARI: “... galduten deutseela pama guztia barberutzeari”: 17. orr.

BERBEAZ, ta, ERREMIENTEARI: “... garbituteko erremienteari, ta obeto izentauko zenduke Garbitzaille edo Apainkiñaren berbeaz”: 19. orr. (hemen “garbitzaille” irakurtzen dugu, ez -LA”)

BERBEAK: “berbeak berak diño...”: 124. orr.

BENTEREAREN: “ez egidazu aitatu atso benterearen konturik”: 49. orr.

BIRJINARI: berezitasuntxoak ditu euskalkien artean:

— Maisu Juanek, “Ama Birjiñari agur egitea”: 110. orr. (1881.ekoak

“Ama Virjiñari” dakar, bere joera jarraituz: 160. orr.); Joanis Baigorritarrak, “sortu zen Maria Birjiñia-ganik”: 108; (1881.ekoak, berdin,

(1) Oharrak: — ZALGA: Bizkaierak Oklus. ozena egiten du; baita R eta Sul. ere; beste-etan “zalke, -a; bakanak dira “lk / lg” hitzaren barruan dutenak.

— Bai 1970. argitalpenak eta bai 1881. ekoak “zalgia” darabilte, —IA eginik eta ez -EA besteetan bezala (ikus orr. bertan, “artian/artean; vicitziari/bizitzeari”), 1970. 38; eta 1881: 68. orr-.

“Maria Virginia ganic”: 158. orr.); Peruk, “iaio zan Maria Birjiñea-gandik”: 112. orr.; 91881.ekoak” Marija Birginia gantic”: 162. orr); Kiputzak, “Maria Birjiña-gandik”: 110.orr. (1881.ekoak, “Maria Virginia gantic”: 161. orr.).

Ikusten dugunez, mutur bietako euskalkiek, Bizkaikoa eta Baigorritarrarena, ados datoz, -IA, -EA eginik; eta Kiputzak ordea, bere ohiturari jarraituz -A batez bukatzen du, “Birjiña”, “Birjiña-gandik”.

(— “inia”, “-Inea”, “-Ina” bukaeretaz ikus gorago, Atal honetan esanak.)

—G—

GAUZEARI: “... iñoren gauzeari imurtxi egiten”: 65. orr.

DONGEAK: “...ta dongeak atsakabea ta ikarea”: 64-65. orr.

DENPOREAK: “bearrak eta denporeak”: 91. orr.

—E—

EUNLEARI: “dei egingo deusat neure alaba eunleari” 95. orr.

ELEIZEARI: “Jaungoikoa (sic) Eleizeari ageturiko egia...” 111. orr.

ELEIZEAK: “eleizeak artuta daukazanak...” 28. orr.

ERREMIENTEARI, LABAINEAREN, BERBEAZ: “zuk emoten deusazu Labaiñearen izena gure arpegiak apaindu ta garbituteko Erremienteari, ta obeto izentauko zenduke Garbitzaille edo Apainkiñaren Berbeaz” 19. or.

ERROTEAK: “erroteak, zenbat tresna ta erremienta!” 103. orr.

EUSKEREARI: “euskereari eztakio iñok arrezkero etorrerarik...”: 130.

EUSKEREAK: “euskereak daukaz txiko antxiñakoa dalako...” 130; 125.

ESKOPETEAZ: “izerdi-bitsa dariola dator ona gizon bat eskopeteaz” 133.

EGABEREAK: “zer esan gura dau eperrak... zer egabereak?” 124. orr.

ERLOTZEAREN: “atera dot eriotzearen autzetati” 23. orr.

ESANGUREAK: “... opuin onen esangureak” 65. orr.

ERRIOJARA: “Bizkairik geienak Erriojara daroa dabena ta eztabena” 59.

—G—

GUREAK: “... diru-gureak azi edo geitu...” 21 orr.

GAILLETEAZ: “ura edaten da gailleteaz” 88. orr.

GUREAZ: “... basoko iatekoa, ikusteko gureaz...” 62. orr.; “iatekoa”, hemen -A batekin darabil; ikus V. ATALA: F “-AA” BIKOTEDUN HITZAK.

GALDAREARI: “topiñak galdareari, ipur baltz” 81. orr.

-I-

- ITXUREARI: “abarkeen itxureari begiratuta” 104. orr.
 IAKITURIARIK: “soiñoko bitxidunak ta ianz-barriak eztakarrela iakituria-
 rik: 18. orr. (-TURIA atzizkiaren -A itsatsia ondo gorderik partit. ere.).
 IIELEARI: “esaiozu Iieleari erakutsi daiguzala...” 89. orr.; passim.
 IKAREAZ: “...zein da ikareaz ta uste bagako esku-ezarteaz” 68. orr.
 IIELEAK: “ola-Ieleak burdiña biribildu ta...” 83. orr.; pasim
 IIELEAREN: “ondo ipiñita dauka Iielearen izena” 83. orr.
 IIELEARENTZAT: “lanak geratuten Iielearentzat” 84. orr.
 IANGUREAK: “eta deritxat euren iangureak geituko leukeela neurea” 88.
 orr.

-K-

- KANTEARI: “emon deutsa agureak kanteari” 31. orr.
 KUREARI: “gure erriko kureari entzun deustat” 49. orr.

-L-

- LUMEAZ: “... buruan artuteaz ta lumeaz iraasteaz” 50. orr.
 LANTZETEAk: “... ta bai lantzeteak bere” 46. orr.

-M-

- MAKILLEAK: “makilleak bildurtuten ditu” (txakurrak) 78. orr.
 MEAZ: (meakaz) “Urtzailleak bete bear dau sutegia meaz” 83. orr.
 MEA: izenak -EA amaiera berez duelako, art. -A hartzerakoan ez du ezer
 aldatzen bea.
 MEAREN: “mearen errauts ta loikeria” 89. orr.
 Berdin gelditzen da -TEGI atzizkia erantsirik: “meategia” 91.

-N-

- NESKATILLEAK: “baiña neskatileak berak deklarau dau...” 135. orr.;
 passim.
 NESKEAK: “neskatileak urten lei noranai bere ule =trenza ederragaz; bai-
 ña ez neskeak” 25. orr.; 24.
 NESKATILLEARI: “artu daiogun kontu maia serbietan dabillen neskatilea-
 ri”: 30; 31.
 NESKATILLEAREN: “neskatilearen esanak” 48. orr.

—O—

OSTIKADEAZ: “jaurtigi neutsan ostikadeaz ezarri neban lurrera” 33.
 OLEAK: (esaera esanguratsu honetan) “etorkizunaren oleak, bearrik ez” 81.
 OSAGILLEARI: “... osagilleari dei бага” 81. orr. Baina baita beste hau ere:
 “zauri-osagillaren baten premiña” 33. 21. orr.

—P—

PLAGEAK: “eztau plageak geiago asmaul!” 135. orr.
 PLAGEAREN: “botako zeunkedaz plagearen etxera” 40. orr.
 PALANKEAZ: “Bakotxak bere burdinaga edo palankeaz” 84. orr. (1).

—S—

SARDINEARI: “katuak daroan sardiñeari, oratu egiok” 81. orr.
 SANTEAREN: “izen ederra, bere izeneko santearen debotea bada” 42. orr.

—T—

TOPINEAN: “neskatilla, ekarri egizuz *topiñean* ikusi ditudan...” 25. orr.

—U—

UGAZABA-ANDREARI: “esaion ugazaba-andreari ipiñi daigula...” 24. orr.
 URAGEAZ: “emoten deutsa ura lieleak urageaz” 84. orr.
 URTZAILLEAK: “daroa agoa urtzailleak mallutzarpeti gabi-igunaren azpira” 84. orr.

—Z—

ZAPATEAREN: “zapatearen izena erdaldunena da” 59. orr.

(1) *Oharra*: -IA -z bukatzen direnek, “justizia, Prantzia, pazienza, piztia, familia”, etab., ez dute —EA egiten —A hutsez amaitutakoen eran, —IA -z, baizik: “piztiak, jakituriaren, apainduriari, arrokeriarentzat”.

3. -A + -E = -EE (-E birekin): plur. ines., genit., instrum., eta elat. kasutan)

GAUZEETAN: “sartu bear gaitu ñoren gauzeetan” 104. orr.;

– “iakin aldaikeezan gauzeetan” 116. orr.; passim.

GAUZEEN: “... egiten dituen gauzeen ganean” 125. orr.

GELEETAN: “ondo dakie au piztia zital oneek (imitxak) dagozan geleetan lo egiten dabenak” 125. orr.

MAILLEETATI: “eskaillera mailleetati iasteko oratu egiozu alboko aga...”: 18. orr.

BERBEETAN: “... amaren sabeleti ikasi eban berbeetan” 28. orr.; passim. -E batekin ere bai, 109. eta 110. orr.

– “astu eragin len ekien berbetea; iraatsi beste berbeeta batzuk”

– “badirudi berbeeta ak, ez...” 131. orr.; 130; 53; 52; 129. orr.

ABARKEEN: “abarkeen itxureari begiratuta” 104.

AGEETAN: “... sartuten ditue kako edo ageetan” 95. orr.

ANDREEN: “andreen ixiltasunaz koipetuten zara?” 47. orr.

KANTEETAN: “zer daantzut? Kanteetan...” 31. orr.

OLEETAN: “nun ilten dira oleetan baiño zezingei edo idi...?” 87. orr.

(Gure toponimiak: – Otxandixo alboan dagoen Arabako hauzoa:

OLAETA;

– Lekeitio alboan, OLETA

4. -A + -E = -E (+ E batez)

ARIMEN: “euren osasun, ondasun da arimen kaltean” 15. orr.; 38.

“Seme-alaben” 70. orr.; 67.

ARBOLEN: “len abeen izena emoten iakeela, orain arbolen izena” 131. orr.

TABERNETAN: “batuten ziren (Barberuek) barbenetan” 16. orr.

DENPORETAN: “euren denporetan izaten da ian al baiño...” 59. orr.

NESKATILLETATI: “neure mutil onak, iges egizu gaurko neskatilletati” 69.

BERBETA: “euskerea zala berbeta au” 130. orr. (Eusko iberismoa eta Tubaldarren etorrera azaltzerakoan hainbat aldiz agertzen zaigu hitz hau, eta gehienetan -EE, bi -E-kin).

ASABEN: “zetarako egin ez geure asaben berbakuntzea?” 19. orr.

5. -A + -O = -OO: hurbiltasuna adierazteko

AZOOK: “azook baltzak ta Keetsuak iaraozak” 29. orr.

Hurbiltasuna adierazteko, -A -z bukatzen ez den hitzarekin: “urten daigun laurok (guk laurok, plural hurbila, ez laurAk, neutro bezala) basoetara” 116. “Esaidazu irurotatik edozeinek” 122. orr. (ez, iruretatik), bere aurrean ditueni esaten bait die zuzenki.

III. ATALA

“A” ITSATSIDUN ATZIZKIAK PERU ABARKAN

I. Sarrera

1. Edozein hizkuntzak, historian zehar, mintzaira hori erabiltzen duten andragizonen historian zehar, aldaketa, inausketa, kutsaketa eta aberasketa ugari izan du. Garai bakoitzeko pertsonak beren erara bizi eta erlazionatzen dira, garaiko estualdi eta problemei komeni zaien, eta ahal duten neurrian, erantzunez. Horregatik garai bakoitzak bere aberastasun eta akatsak izaten ditu.

Hizkuntza pertsonen eta herrien kulturen eta harremanen agerbide eta tresna delarik, gauza bizia da, ez teknika hutsez egina, behin betirako egina, harlandu edo burdinazko aitzurraren antzera. Gaurko euskera ez da orain lau mila urtekoa; baina biak “euskara” dira. Elkar espresabide sakon honek, hizkuntzak, pertsona biziaren aldabidezko fruitua denez gero, eboluzio bizia izan du, eta izan behar du.

Euskarak, beste edozein arlok bezala, inguruko pentsamolde, ohitura, hizkuntza eta aurrerapen atzerapenen kutsadurak eta maileguak izan ditu. Gure kasuan, inguruko Herriak ugariagoak, indartsuagoak, kultural arlo askotan gu baino aurrerratuagoak izan dira; eta horrez gain, menderatzaille bihurtzen zirenean, sorterritik zekartzaten kultura, teknika, pentsamolde, ... eta hizkuntza sartuarazten zituzten indarkeriaz, administralgoaren eta ikastolaren bidez, batez ere.

Latinaren nagusitzearekin batera, European mintzatzen ziren hizkuntza gehienak ezkutatu, hilarazi egin zituzten, betirako. Euskara bizirik gelditu zen, eta bizirik dago gaur ere. Euskarak latinaren mailegu asko bereganatu zituen, “euskaratu” egin zituen, eta euskara gelditu zen, ez zen ez ezkutatu ez eta erromantze bihurtu: orduan, eta lehenago, eta egun beti euskara. Latinarekin (teknikak, ohiturak, hizkuntza, kultura, etab.) besterik gabe nahastu ez zelako, eta beraren, latinaren, balio asko “euskaldundu” zituelako, ez zuen “euskal nortasuna” galdu, aberastu baizik; erromatarrekin izan zituen, bai, harremanak, baina etxeko kultura, hizkuntza eta nortasuna baztertu gabe. Problema sakona, eta egun baten lortzen ez dena, zera da: “nola” bereganatu, euskaratu zituen arrotzen eskaintza aberaskarriak! Horra hemen gizonaren aurrerabidearen hiru onarri: nortasuna, harremanak, eta berauen adierazpenak, hizkuntza batez ere, elkarturik.

2. Euskara “giro” berezian bizi izan da: Herri txikia izanik ez du indar politikorik, ez literatur eraginik, ez hizkuntza baliorik eduki European. Iaia ez du ezer idatzi atzo! arte, eta azaldu ziren apurrak katesimagaiak, ia denak. Ahozko literatura ordea, oso aberatsa izan dugu.

Administralgoan, bai zibil ekintzetan eta bai Elizarenetan, den dena latinez lehenengo eta gazteleraz gero egin behar genuen: agiriak, dokumentoak, aktak, etab.; besteek ez bait dute gure hizkuntza ulertzen, edo eta euskarak ez baitu gaitasunik horretarako! Betiko leloa! hizkuntza “barbaroa”, ulertezina, gaitasunik gabekoa. Aitzaki hauek sarri salatzen ditu Moglek. Nahiz eta geure etxean bizi, guk arrotzen hizkuntza “berriagoa”, modakoa, ikasi behar, baina arrotzek ez dute nekerik egin ez ezertarako egin beharrik!:

“Ori orrelan da; baiña aspertzaka esango deuskue, dio Fraideak Abadeari, erdaldunak eta euskaldun dongaak, eztala gauza euskerea gauza goratuetarako, ez eta bere eskuor darabilguzanetarako”: 145. orr.

Egoera mingarri honek “diglosian kulturalen” biziaraizi gaitu; inguruko erdaren eragina eta sozial indarra geurearena baino sakonagoa izan da berton ere; euskaldun asko eta askok arrotzen ¡prestamo! guztiei amor eman izan die, “modari” jarraiturik. Gogor salatzen ditu Moglek sasi-jakintsu ta jauntxoek ahaleginik egiten ez dutelako euskara lantzen:

“Zoaz praille, abade ta beste andiki askogana, dio Abadeak. Zelango estura ta larritasunak kontu luzetxu bat esan bear bada?”: 142. orr.

Horrelako joerkin, bizitzaren gora beherak adierazteko teknika eta giharra galdu egin ditu euskarak. Zer egin? Euskara ondo dakitenengana jo lehen-bizi, erantzungo digu Moglek:

“Euskereak eztau iñoren bearrik edozein gauza esateko. Eztozu entzuten zelan gure baserritar ta beste nekazari askok diarduen berbeetan, labandu ta ezetan katigatu бага?”: 141. orr.

Ondo dakitenengan oinarrituta gero, sakondu, aberastu, gaurkotu egingo dugu euskara.

3. Euskara, hizkuntza indoeuropeoen aurrekoa denez gero, aintzinakoa benetan, pertsonen bizitza konkretoaren inguruan sortu eta bizi izango zen; Herriaren arazoak, kultural adierazpenak teknika lauetan azalduko zituztela uste dut. Baina ez ditugu nahastu behar azalpen laua, soila eta azalkeria, giharrik gabekoa.

Peru Abarkaren pedagogia, honen erakoa da: problemarik sakonena eguneroko bizitzan oinarritzen direla esaten digu.

Bizitzaren eboluzioaren, aurrerapenaren arazo berriak sakonki adierazteko teknika ta bide berriak, egokiagoak behar ditugu, zalantzarik gabe. Bizitzaren arlo berrietako premia berriei behar bezala erantzuteko garrantzi handia izan dute, euskeraren historian zehar, atzizkiak batez ere, eta aurrizki eta artizkiak. Ideia bat azaltzen digun hitzari atzizkia erantsirik, esanahi berria agertarazten dio, hitzaren jatorrizko balio semantiko bakarra, edo urria sarritan, sakonduz, aberastuz, osatuz. Moglek argi esango digu euskarak baduela nahi den besteko flesibilitate eta gaitasuna sustraian, arazo berriei ere egoki erantzuteko, forma berriak sortuz:

“Gauza barriak izen barriak bear ditue. Eta izen barriak emoteko, eztau iñoren bearrik euskereak”, adierazten dio Abadeak Fraideari: 145. orr.

Baserritarrengan hain bizirik dagoen “baserri kulturako” euskara, gaurko zientifiko giroari eta teknika kulturari egokitasunez erantzuteko, Peru euskara osatu, gaurkotu, egokitu, bir-jantzi egin behar dugu. Lan ederra! Ez dago lo egiterik, gaurko eginbeharra da, ez biharkoa.

“Gulangoai dagokee batutea euskera baztertua, eskatuko lieke gaurko euskal-jakintsuei Moglek. Gu gabiltz nekazariakaz; entzun bear deutsegu zer diñoen, ta gorde ondo, gero agirian iminteko izen eder asko, ta geldika geldika ekarriko deusaguz euskera billostuari bere iantzi eta soiñoakoak, ta agertuko da apaindurik, iñoren soiñoakoak erantzita”: 141. orr.

Mogel bera saiatu zen, bai, euskara plazaratzen: euskararen apologia euskaraz eginik; grekera eta latineraren klasikoak euskeratuz; bere iloba Bizenta ere ildo horretatik abiaraziz. Moglek zabaldu zuen lorratzari jarraitu izan bazioten ondorengo euskal idazleek, gaur material ugari genuen euskaraz edozein arlotan, eta aintzinako klasikoak euskaraz irakurriko genituen, ez heladeraz edo latineraz.

Hitzaren esanahia aberasteko, euskal atzizkiak hain egokiak izanik ez dut onartzen, gero bere lanean egiztatzen ez duelako, Luis M. Muxikaren ondorioa atzizkietaz:

“Este estudio nos ha conducido a una constatación importantísima, esto es, a la detección de influjo profundo y constante del latín y de sus romances sobre nuestro idioma... (ibiden, beherago)... La influencia del latín y del románico es sustancial en el euskera. En una palabra, casi todo el nivel abstractivo y lógico superior se deriva al vascuence desde el latín. Los sufijos abstractivos (-keria, -asun, -Izun, -Keta, -Kuntza, etc.) suponen la plana mayor de conceptualización del euskera. Todos estos sufijos son, como probaremos, latinos”: LUIS M. MUGICA, *Origen y desarrollo de la Sufijación Euskérica*, Ed. Vascas, San Sebastián, 1978, 12. orr.

Ez naiz atzizkien baso orbelsuan sartuko, hori ez bait da nire lanaren helburua. Peru Abarkan agertzen zaizkigun “-A” itsatsidunak aztertuko ditut: osatzen dituzten hitzak jasoko ditugu lehenbizi; eta, gero, atzizkiak heurak bakarrik, klasifikatuko ditugu; hau da, -A berezkodun atzizkiez osatutako hitzak, eta esaldiak, lehenbizi, eta -A itsatsidun atzizkiak bakarrik gero.

Alfontso Irigoyen-ek kritika oso biziak, zorrotzak egin dizkio L. Mari Muxikaren lanari: ALFONSO IRIGOYEN, “Crítica sobre prefijación y sufijación en lengua vasca”: *Fontes Linguae Vasconum*, 1979, mayo-agosto, 243-258.

II. Esaldiak

—ABA—

-ABA atzizkia ugaria da egun ere odol ahaidegoa eta odol senitartetasu-na adierazteko. Ideia honek indar sakona izango zuen benetan orain milaka urte pertsonen bizitza, ekonomia, lanak, ezkontzak, harremanak, familiaren inguruan bizitzen bait zituen. -ABA -k erlazio marka darama, odol ahaidegoarena, esan dugunez; ni sortu nindutenetik markatzen nauten erlazioak; izan ere, eskuarki guraso- seme, neba-arreba, aittitte-amama, osaba-iloben harremanak hezi naute, gehienbat.

(gai honetaz, ikus, BITTOR KAPANAGA, “Erro eta Gara”, Bilbao 1979, 23.28. orr.; “A” ahozkiaren eta ABA atzizkiaren eraginari buruz duen hipotesis bitxia).

-ABA atzizkia sarri darabil Mogelek Peru Abarkan, bai bera bakarrik, eta bai konposatutan. Hainbat deklinabideren amaieretan agertzen zaigu: UGAZABA: “... ta ez ugazabak dabeen guztiti”: 72. orr.

• -ARI: “zelango oniritxi ta asko-gurea artuten ezteutsa bere ugazabari”: 38. orr.

Hitz-konposatuetan:

- “Badaki Praiskak zelan galdu dozun bere ugazabaandra” 47. orr.
- “Neskatillak esango deutsa ugazaba-andreari” 30. orr.; 24.
- “Ze ugazaba-andrak gorde eztaroaz gilzpean okela...” 40. orr.

ASABA: norberaren jatorria adierazteko hitz esanguratsua Mogelengan. Kasu askotan agertzen zaigu:

- “Zure asabak baiño geiago etzara” 77. orr.
- “Zure aita ta asabak bizi zirean arrotasun bage” 22. orr.
- “bati” lotuta: “nik entzun neutsan aita-asaba bati, antxina...” 60.
- “iagiko balira lurpeti antxiñako asabak, eleukee siñistuko...” 60.
- ... zetarako berba egin ez gure asaben berbakuntzan?” 19. ocr.

ALABA: “nire alabak iazten dira lau lau” 61. ocr.

- “beste ainbeste alaba” 58. orr.
- “bat” zenbakiarekin: “nire alaba batak, bera da gazteena...” 93. orr.
- “seme-alaben lotsa ta moduztasunak” 67. orr.
- “onetan berdiña da nire beste alabea” 68. orr.
- “emon neutsezan eskerrak neure alaba onari” 68. orr.
- “alaba bi ta iru seme, adi on ume” 81. orr.

NEBA: Bizkaian, egun ere, ondo erabiltzen da nebarreben arteko erlazioak adierazteko; lau hitz bereziak, beste hainbat erlaziorekin, erabiltzen ditugu: anaia, Ahizpa, Arreba eta Neba. Familia inguruko erlazioak adierazteko benetako hitzobia dugu euskeraz, bizi habia horretan sortzen eta egiten bait da pertsona.

- “eztozu ikusi aserratuta ez bere nausiagaz, ez bere nebaakaz” 68. orr.

Izen hauek agertzen zaizkigu Peru Abarkan senitartetasuna adierazteko: aita, ama, amandra, alaba, anaia, seme, asaba, familia, ugazaba, neba, aizpa.

Bai ederto agertzen zaizkigula lau izen esanguratsu hauek esaldi batetan, denok ondo ezagutzen dugun kobla zaharrean:

“Aita-semeak edanda dagoz
Ama-alabak oikoan;
ostera bere egongo dira
soiñoko zaarrak kakoan”: 31. orr.

Hona zer digun RM. Azkuek -ABA -ri buruz: “ABA que tuvo el honor de descubrir en “ugazaga” amo, liter. padre nutricio”: R. M. AZKUE, *Morfología Vasca*, 8. !? A. orr.

—ADA— (-KADA, -ADE /-ATE)

Atzizki honen jatorriaz ez datoz bat Azkue eta L. M. Mugika. Atzizkien etimologien eta iturburuaren arloa zirrikagarri eta liluragarria izan arren, ez naiz hortik abiatuko.

Sarritan “K” epentetikoa hartzen du, -KADA eginik (edo, -TARA BN, L, S, eta honen kontrakzioa -TRA: denak, -ADA, -ARA -ren aldaketak)

Gure -ADA -k bi hiru esanahi semantiko ditu:

- ekintza, zartada, efekto, batetik;
- Neurria, erabiltzen edo eramaten denaren neurria;
- Onomatopeikoa ere bai: tarratada, zurrutada

1. EKINTZA - EFEKTO:

LARRAPASTADA: “bat” zenbakiarekin elkartuta: “larrapastada bat emon arren” 107. orr.

- “-rik” partit.: “... miiñak larrapastadarik egin бага” 122. orr.

OSTIKADA: “jaurtigi neutsan ostikadeaz ezarri neban lurrera” 33. orr.

ERREMUSKADA: “eztakie (seme-alabak) erremuskada, bekoki illun, ta mustur astinketarik egiten” 58. orr.

LARRAPASTADA: -ADA -ri ezarten dion beste -TZAR atzizkiak egin zuen irristuaren neurria markatzen du, -TZAR handikari atzizkia bait da:

- “Larrapastadatzar bat eginda io neban beeko bidera” 32. orr.

EGITADA: “... nik bere erantzungo ezpaneutsa zure egitada prestuari” 74. orr.

2. NUERRIA: elkar - batuen taldea, neurria adierazteko: egun ere bizi-rik dago, honelakoak entzuten bait dira: “orrek egin dik betekadia!”; “narru-kada ederra egin genduan ba”.

ESKUDA (eskukada/, esku(k)ada / esku(ka)da):

“eskuakaz oi dugu
geldi atera, egiteko eskudak
an bertan soloan” 97. orr.

Beherago “eskutada” irakurtzen dugu:

“eskutadak dituguz
gero orraztuten”: 97. orr.

KATILLUKADA: “daroaken arto-zatia edo katillukada saldea”: 67. orr.

AZKADA: “artu ditut zelan alan azkada bi aza...”: 30. orr.

ERREGUTADA, ERREGUTA: Azkuek elkarren ondoan jartzen ditu:

Dicc. I, 365. orr.

- “... arto-erregutada galanta”: 29. orr.
- “arto ta ogi erregutadak koipatsuaz...”: 39. orr.
- “gura badozu ogia erregutakaz...” 66. orr.

—BERA—

Atzizki hau hitz konposatuetan ikusten dugu: gaztanbera, egarbera, ...—BERA -k sortutako hitzak biguntasuna, samurtasuna azaltzen digute, batez ere; baita Azkuek dioen bezala “sufijo que se agrega a palabras que designan pasiones y denota que el sujeto que las posee es sensible a ellas”: *Dicc. Vasco-Español-Francés*, I, 150. orr.

1. Beratasuna, lehuntasuna, biguntasuna adieraziz:

GAZTANBERA: “zegaiti esaten dira” ardia, akerra, gaztae, gaztanberea...” 121. orr.

MINBERA: “aragi minbera ta guperak bide daukazuz”: 39. orr.

- “... baiña minberatu eztitezen zure belarriak...”: 38. orr.

2. Edo eta bihotz arimaren eta grinen joera:

GUPERA (BUPERA): “maisua, ondo milika ta bupera zagoz”: 29. orr.; 39, 77. (Soldaduen bihotz egoera adierazteko forma berbera erabiltzen du Mogelek Katilinarene jarduna euskaratzerakoan:

“Alperrik soldadu erkin, koldar ta guperea zapalduko dozu zemaiz ta agiraka garratzez”: 148. orr.

Azkueren definizioa eta esanahi bereizketa “su significación neta es la de “naturalmente propenso a... pasiones animales”, al paso que “-OR” denota propensión a pasiones racionales”: Morf. Vasca 136. orr., Mugikak ez ditu onartzen osorik, esangura mugaketa hori “resulta excesivamente arbitraria y forzada” dela esanez: op. cit. 69. orr. Mugikaren ustez -BERA -ren esanahia zabalagoa da, “más allá del estrecho corsé impuesto por Azkue”: ibid.

—DURA (-TURA, -GURA/-KURA, -DURIA)—

Ipparaldekoen ezpainetan hegoaldekoenetan baino gehiago entzutzen dira. Atzizki hauen bidez sotutako hitzak, gehienak, latin usaia daramate, beren iturburua agerturik: (ikus, L. M. Mugica, *Origen y desarrollo de la Sufijación Euskérica*, 86-90. orr.).

-DURA /TURA, -GURA/KURA, -DURIA dunen hitzak ekintzaren ondorio edo efektoa azaltzen dute:

APAINDURIA: “abarkak oiñetan, txapel bat buruan, gerrestua gorputzean: au da nire apainduria guztia” dio Peru baserritarrak: 15. orr.

IAKITURIA: “soiñoko bitxidunak ta ianz-barriak ezta karrela iakituriarik”: 18. orr.

BAIDURIA: “...ta ezin odolik atera zeinkeela euren (osagileen) baiduria бага”: 22. orr.

IAKITURIA: “... or oi zabilzee zuen iakituria usteaz”: 51. orr.

ESTURA: “baiña ioake atera

giltzera andrea;

An da esturea!”: 63. orr.

—ERA / KERA, ARA / KARA—

Ugariak ditugu gure hizkuntzan; hala eta guztiz ere, Moglek ez du hainbeste erabili Peru Abarkan.

Semantika mailan esanahi bat baino gehiago hartu ditu:

1. Era edo modua: zerbait egiteko, jokatzeko era:

AZIERA: “... gizon baldres, zantar, aziera txarrekoentzat ohea da” 15. orr.

EZAGUERA: “zuek baiña osasun-bedarren ezaguera geiago dauke...” 23. orr.

BIZIERA: “... aututen dabeen bizieran”: 59. orr.

IOAERA: “agurra, ... esaten dana sarrera eta ioaeran”: 110. orr.

SARRERA

IAZOERA: “... sagutxuaren borbeeta ta iazoerak entzunda”: 65. orr.

Hizkera eta mintzairarekin zer ikusi duen “era”:

ESAERA: “... orrelango beste esaera batzuk”: 118. orr.

“orri esaten iako euskeraz “esaerea” edo esakuntzea”: 79. orr.

ESAKERA: “eztozu iñoz entzun esakera asko esangurako au”: 22. orr.

-ERA atzizkiak har dezake —K— epentetikoa = -KERA eginik. Orduan Azkuek dioenez, ona da bien arteko esanahia bereiztea: -ERA gorputzen neurriak adierazteko: zabalera, handiera; eta aditzarekin: biziera, sarrera, esaera, iazoera. Eta -KERA egintzaren era edo modalitatea azaltzeko: egoera = estancia, egokera = postura. (Azkue, *Morf. Vasca*, 112-113. orr.)

Zuzen zuzen hizkerarekin loturik:

EUSKERA: hiru euskalkietako ordezkariak ez dute forma berdinean erabiltzen hitz hau Peru Abarkan: Peruk, Barberuak eta Abadeak “Euskera” erabiltzen dute; eta Joanis Baigorritarrak, ordea, “eskuara”.

Hitz hau oso ugaria dugu Peru Abarkan, Mogelek egiztatu nahi duen tesis euskararen gaitasuna eta edertasunak plazaratzea bait da.

- “Euskereak daukaz, txito antxiñakoa dalako, usain ta siñisgarri asko”: 130. orr.

- “au bai dala kontua: euskereak eukitea ainbeste ondasun ta guk ez ezagututea bear dan legez” dio M. Juanek: 125. orr.

Abadea, hain iakituna izanarren, Perun esanetara dator: Euskara landu behar:

“erosiko ditut topau al daidazan basko ta kiputzeko liburuak bere, euskera guzti guztietakoa aituteko”: 131. orr.

Tubalismoaren ondorio bezala: “Euskerea zala berbeeta au, sinistu giñai dagozan arrazo andiak gaiti”: 130. orr.; 106; passim.

(Ez ditut aztertuko “euskararen” filologia eta esanahia, beste gai bat bait da).

ESKUARA: “... zuri bezala gusta zitzaidan emengo Eskuara aditzea” dio Baigorritarrak M. Juani: 118. orr.

ERDERA: “eztakit geiago euskeraz, erderaz batzuk bai”: 79. orr.

- “Jaungoikoak nai ba, eskribidu ta erderara biurtuka imiñiko ditut”: 120. orr.

(hildo honetatik abiatuz ulertzen ditugu herri arrotzen hizkerak: grekera, italiera, gaztelera, lapurtera).

Dirudienez, ERA izenak sortu du -ERA atzizkia: cfr. Azkue, *Morf. Vasca* 14. Z) orr.

2. -ARA /KARA: a) margoak adierazteko: auskara, belzkara

b) -KARA: abereen “sexual beroa”, “celo animal”:

arkara, ahunzkara; baina “giri” celo de yegua o burra.

Baina ez zaigu holakorik agertzen Peru Abarkan.

-KERI / KERIA (-ERIA)

Sarritan bezala, oraingoan ere Azkue eta Mugika ez datoz bat atzizki honen iturburuaz: Azkue, *Morf. Vasca*, 64; L. M. Mugika, *Origen y desarrollo de la Sufijación Euskérica*, 150: ikus biengan datozkigun zerrendak.

Balio semantikoa: -KERIA, -TASUN -en aurkakoa lez agertzen zaigu sarri: bertuterik eza, edo holako zerbaiten falta azaltzen du. Pertsona negati-boki markatzen du, ez edertasunez.

LOTSABAGAKERIA: “... esan gurako dozu lotsabagakeria”: 19. orr.

LOIKERIA: (hemen atzizkiak izenaren berezko esanahia indartu egiten du):

- “Ez, Maisu Juan, au da mearen errauts eta loikeria”; apur bat behe-rago, “... urten dau gaiñeztu iakon loikeriak, ...” 89. orr.

FIGURERIA: “pigureria guztiak gura ditue” 18. orr.

BALDRESKERIA: “... ondo bizia, ta baldreskeria bagea” 116. orr.

BORRERUKERIA: “itxi egidazu arren, il nadi orrelango borrerukeria бага”: 47. orr.

ALPERRERIA: “eztakigu emen aleperreria zer dan” 76.

ZANTARKERIA: "... ta bai birao ta zantarkeriak" 40. orr.

DONGAKERIA: ("donga" adjektiboa ugaria da Peru Ab., eta beti jokaera okerra adierazteko. Esaldi honetan -TASUN eta -KERIA aurrez aurre ipinirik -KERIA -ren esanahia azpimarratu egiten du:

"daroa (mozoloak) bizitza bakar bat, eta au, bere arrotasunaren donga-keria gaiti" 124. orr. (arroTASUNA, arroKERIAren mezuarekin).

MILIKERIA: "milikerien artean ezta aragi sendorik egiten" 29. orr.

ETORRERA: "euskereari eztakio inok arrezkero etorrerarik" 130 orr.

ARRERA: "eskerrik asko egin deustazun arrera ona gaiti" 91. orr.

• "egiten deutsegu abegi, jera ta arrera txito ona" 67. orr.

SARRERA: "... abegi txarragaz begiratu zeuntseen lenengo sarreran" 115.

3. -KERA

Aberbiozko esanahia du atzizki honek. Urria izanik ere, egun herriak gordetzen eta erabiltzen ditu banaka batzuk: "aurrekera joan naiz", "atzeke-ra etzunda egin neban".

Peru Abakan muestraren bat badugu: ALBOKERA, de lado, de costado. Oso egoki datorkio Mogeli hitz hau lanerako olagizonek sarritan hartzen zituzten egoerak adierazteko. Honela digu Gatzamailleaz ari delarik:

ALBOKERA: "Gatzamaillea..., batean belauniko dagoala, bestean albokera-ra etzunda": 85. orr.

-ETA / -KETA

Atzizki bat da; bataK "K" epentetikoa hartzen duela.

-ETA ezaguna da gure toponimian, landareen eta zuhaitzen ugaritasuna adierazteko, batez ere: pagoeta, madarieta, sagastietia.

Esanahi semantikoa: ugaritasuna azaltzen duen aldetik, -ETA/KETA pluraltasunarekin lotuta dago; ekintza edo ekintzaren dinamismoa azaltzen du, bestaldetik.

1. Ekintza:

BARRIKETA: "botikako asko artu eragin, erremienta txarrak euki, ta barriketa batzuk nekazaleei esanda..." 16. orr.

• "Maisua, barriketa luze, gogaikarri baga..." 53. orr.; 23; 51.

BERBEETA, OLGETA: "lenengoan olgetan giñean asko, sagutxuaren berbeeta ta iazoerak entzunda" 65. orr.

MORMOSIETA: "... erabilteko mormosietia bada!" 77. orr.

LAIETAn: "atxurren, laietan, irabatuten..." 30. orr.

-KETA: ariketa, dedikazioa agertzen digute ondorengo adibideak:

AZTERKETA: "... gorputz illaren azterketan" 51. orr.

AZALDAKETA: “berba-eraatsi ta gatx oneek bear ebeela azaldaketa bat” 112.

ASTINKETA: “... bekoki illun, ta mustur-astinketarik egiten” 58. orr.

LAPURRETA: “lapurreta gitxiago egingo dau emendi aurrera” 47. orr.

AZTERKETA: “... zure anatomia ta nire azterketea” 100. orr.

2. -ETA: toki izen balioaz; toponimo hori han inguruko ugaritasunak azpimarratzen du. Honela deritxo Perun baserriak:

LANDETA: “iakin egizu deritxola “Landeta”, landa eder baten dagoelako”; eta Alan derist “Peru Landetako”: 57. orr.

-GA /-KA, -BAGA /BAGE (-GABE)

-GA -z honela mintzatzen zaigu Azkue, “profusamente debió usarse este sufijo”: *Morfol. Vasca*, 155. 218. Geroago hortik sortu ziren -BAGA/BAGE, eta beronen metatesiaren bidez -GABE.

Esanahia: lotuta dagoen hitzaren esanahiaren “gabezia”.

Oso ugari da atzizki hau Peru Abarkan, eta hiru formatan gainera, ez baten bakarrik: -GA /KA, -BAGA /BAGE, behin edo -GABE, eta -TZAGA/TZAKA; “-KA” aditzarekin, “-GA” izen eta izenordekoekin. Atzizki honen, edo hauen, bidez sortzen diren hitzak adjektibo lez dara-biltza, aditz formak izan ezik.

-GA:

BAGA: oso ugaria Peru Ab., eta kasu askotan: “baga, bagea, bagarik, багаак, бageаз, bagako, bagakoak”, etab.

Ikusten dugunez, berezko balioa duen hitza bezala erabiltzen du Moglek, sarri; baita ere atzizki bezala: hitz autonomo bezala, eta atzizki funtzioarekin.

BAGA autonomoaren adibide batzu:

BAGEA: “bai ondo bizia ta baldreskeria bagea” 116. orr.; 77.

BAGEAK: “... Barberu perdulario ta molde bageak” 17. orr.

BAGAAK: “arbiak, gogor, egosi багаак” 29. orr.

BAGA: “... euren (sendagilearen) baiduria бага” 22. orr.; 70; 101.

BAGEAZ: “... eztarri garbi ta laztasun bageaz soiñu ioteko” 34. orr.

• “zagoz ixilik, ta arpegi bildur бageаз” 135. orr.

BAGAKO: “... uste bagako esku-ezarteaz...” 68. orr.

BAGARIK: “... eta gu lakoak

eskuetan artuta

игuin багарик:” 98. orr.

DONGA: (deun-ga), sarri agertzen zaigu hitz hau ere, eta era askotara idatzita: “donga, dongaz, dongarik, dongarorik, dongaro, dongeak, dongakoak, dongaak, dongatzat, dongakeria”.

“BAGA”kin gertatzen den antzera, DONGAk ere atzizkiak har ditzake. Adibide sail luzea egin dezakegu; batzuk ipiniko ditut:

DONGATZAT: “ezagutu dozu zuk dongatzat, lapur-usaiñekotzat, sorgintzat” 115.

DONGAAK: “arrotz ta erbestekoak makal, baldan, baldres, motz, oker, zital, asto (kalifikatibo gutxi balira, hona palta zaiguna) ta dongaak direala”: 115. orr.

DONGAKERIA: “... eta au, bere arrotasunaren dongakeria gaiti” 124. orr.

DONGARO: “esan eztegian dongaro aziak gareala” 91. orr.; 18.

DONGEAK: “... ta dongeak atsakabea ta ikarea” 65. orr.

DONGA: “... baiña, bildur, donga egiteti atzeratuten gaituana” 65. orr.; 105.

DONGAGO: “... ta dongago dana, ni bere sartuko...” 47. orr.; 134.

DONGARORIK: “ez diñot nik dongarorik zure beargintzea gaiti” 21. orr.

DONGARIK: “gose onarentzat eztago iaaki dongarik” 29. orr.; 21.

DONGAZ: “... aize dongaz bete enadin” 44. orr.

SUGA: bitxia da izen honi ematen dion adierazpena, -GA horren eraginez surik “eza” azaltzen diguna:

- “sugea da subagea, otz otza dalako” 120. orr.

ITXURGA: (-TU erantsita; itxurarik “eza”): “itxurgatu ta zurbilduta (aberratsen alabak), gauza ez batzuk, argal, erkin...” 29. orr.

-KA: adibide bat behintzat agertzen zaigu Peru Ab.:

LOKA: “enau oraingiño iñork ikusi ardaoak igarota, gatz eginda, zabuka, oiñak lokaturik...” 15. orr.; 34.

-TZAKA: -GA -ren errotik dator: aditz formak hartzen duten -TZARI -GA/KA erantsirik, gabezia adierazteko, -TZAGA/TZAKA (edo Bergaran eta inguruan entzuten den -TZEKE, “ohartzেকে”) ematen du. Peru Abarkan adibide bat behintzat irakurtzen dugu, eta Lehenengo Autuaren hasera haseran, bera:

LANTZAKA:

“Maisu Juan Bizargin —osagille— euskaldun lantzaka eta Peru Baserri-tar landuaren artean”: 15. orr.

-BAGA / BAGE, -GABE

-GABE metatesiaren bidez sortua da.

Gorago esan dugu -BAGA izen autonomo bezala ere darabilela Moglek; baita ere atzizki bezala. Poliki poliki inguruko erderen eraginez -GA/KA baztertu egin ditugu, eta bere ordeaz lehen izen autonomo zen BAGA atzizki bezala hartu, atzizkien aberastasuna murriztuz: lotsaga/ lotsabaga, atsa-ka/atsakaba, siniska/ sinisgabe.

ATSAKABA: “onak eta txarrak, atsakabea ta atsegiña emoten dabeenak” 32. orr.

- “ian egizu atsabaka бага” 133. orr.

Berriz ere era bietara:

- “liñoaren atsakabeak, amai bageak” 96. orr.; 65.
- “... atsakaba emongo deusudan gauzarik” 24. orr.

LOTSABAGA: “ioan adi, lotsabaga ori, etorri azan bideetati” 68. orr.

- “esango leukee lotsabaga ta dongaro aziak gareala” 55. orr.

-BAGA -ri beste atzizki bat ezarririk:

LOTSABAGAKERIA: “esan gurako dozu lotsabagakeria. Egizu berba euskeraz”: 19.

-GIN

-GILE (-GILLA), -KILE (-KILLA)

-GIN da bigarren lerrokoen iturria; egilea, eragilea adierazten du. Besteak, -GILE/GILLA, -KILE/KILLA alferrikako hitz edo pleonastiko atzizkiak dira, bi eragilez hornituak: -GIN, lehenengoa eta erantsitakoa bigarrena, -LE /LA.

Bizkaierak -A -z amaitutakoak erabilten ditu sarritan, -GILA eta -KILA, alegia. Mogelek ere joera hauxe betetzen du Peru Abarkan: andra, irakurla, iosla, eunla, iagola, osagila, enzula (sic), galtzaila, etab.

Sail honetakoak, eta ondorengokoak -LE/LA, beste euskalkietan -E -z bukatzen dituzte; Bizkaierak, ordean, -A-z. Mogelek B joera onartu du Peru Abarkan. Baina Mogelek ondo ezagutzen zuen beste joera ere, Eibarren jaioa bait zen, eta Markina inguruan bizi; gorago esan dugunez “mugako gizona” izan zen. Horrez gain G ondo landu zuen. Horregatik edo bi sail hauetako hitz batzuk zalantzazkotzat har genitzake, -EA amaieraz agertzen bait zaizkigu: gatzamaillea, kreatzaillea, egillea, bizargillea, osatzaillea, egitzaillea; epaillea;

edo -A -z eta -E -z bukatzen direla: osagilla/osagille;

baita ere -LE eginik bere joera arrunta baztertuta: garbitzaille, odolateratzaille, oratzaille (tenedor).

Mogel irakurterakoan kontuan edukitzekoak dira hauek: eskuarki -LA -z bukatzen zituela Mogelek; banaka batzutan -LE-z, edo bietara.

-GILLA/KILLA atzizkia urria dugu Peru Aba.; -LA, oparoagoa da.

OSAGILLA: “bat” zenbakiarekin: “etzendun urtengo emendi beste Barberu edo zauri-osagillaren baten premiña бага” 21. orr.

- Baina “osagille nausi” irakurten dugu 21. orr.

-EA amaieraz ondorengo hauek; zalantzarik ezin argitu:

BIZARGILLEA: “... Barberuaren izenak esan gura dau neure ustez” “Bizargillea”: 19. orr.

- “Barberu edo Bizargillea baiño geiago naz”: ibid.

EGILLEA: “... zeruaren ta lurraren Egillea” 112. orr.

Peru bizkaitarrak “egillea” dio; Kiputzak “egitzaillea”: 110; eta Baigorritarrak “kreatzaillea”: 108. orr. Kredoa aitortzerakoan.

KALTEGILLA: “... geure kaltegilla ta arerioa bada bere” 49. orr.

-LE (-LA)

Egile edo agentea adierazten du -LE/LA atzizkiak. Aditz trantsitiboek ezartzen zaie, infinitiboan “n”-z edo “I”-z bukatzen direnei; “I” hau, gainera, “debe estar precedida de una de estas consonantes continuas, “r, s, y z”, o de los digamas “ts, tz”, los cuales pueden perder la “t” en el choque con el sufijo agente”: Azkue, Morfol. Vasca, 78-79. orr. (L. M. MUGICA, op. cit., 190-193). Arau hauek betetzen dira Mogelengan, bai Herriarengan ere: irakatsi / irakasle, ikusi / ikusle, erakutsi / erakusle, irabazi / irabazle. -LE hartzerakoan “i” eta “n” galdu egiten dira: entzun/entzule.

-LE/LA honek ba du zer ikusirik -TZAILLE/TZAILLA atzizkiekin.

Gogoan eduki beharko du Bizkaieraren joera hau, -LA-z bukatzekoa, alegia, Mogelen idazkera behar bezala epaitu nahi duenak; plural erak, “gorulak dabee egiten”, eta izena ondoren-goarekin ia ia bat eginda damaigunean, “eunla andreak”, ez digute auzia erabakitzen.

EUNLA: “tramankulua dauka Eunla andreak...” 99. orr.; 95.

EUNLA, EREILA, GORULA: “eurak (neskatilak) dira ereila, liño-giariak,

Eunla eta iostun ta Gorulariak” 99. orr.

IOSLA: “sartuten da iosla edo iostuna lan barrietan” 96. orr.

• “ioslaak dabee eun aterea...” 99. orr.

GORULA: “gorulak gero dabee egiten aria” 99. orr.; 83.

IAGOLA: “... usteko dau Eleiza-iagola Abadeak...” 111. orr.; 83.

IOILLA: “liña ialla (sic) gaisoak izerdi-lamatan” 98. orr.

(1981. ekoan “lina jailla gaissuac” irakurten dugu: 144. orr. Adibide hau hobeto legoke -TZAILLE (TZAILLA)-n sailean, “O”-z amaitzen direnei -TZAILLE (TZAILLA) erasten bait zaie, gehienetan.

“Los verbos transitivos que tienen otras terminaciones (a, e, o, l, tu) reciben siempre -Tzaile por agente”: AZKUE, Morfol. Vasca 79. A.)

ERACASTEAC -en ere agertzen zaizkigu Eunla ta Gorula:

“... bai nequezale, bearguin, achurlari, olagizon, icazquin, emacume gorula, eula (sic), jostun, ta onelaco gende mé ta...” IV. 12. lerroan.

IRAKURLA: ¿honelako zerbait dugu hemen?: “nik ezin dot (euskeraz ondo egin) irakurlante andia izanda bere” 49. orr.

Lege berdina beterik, -LE (-LA)-ren aurrean infinitiboko “i” galduz, batzutan, eta infinitiboko “n” bestetan, horra besta bat ere:

ENTZULA: “aguertu bear dogu enzula (sic) viotz oneco ta samur...” ERA-CASTEAC IV. 18. lerroan.

Gorago ere aipatu izan ditugu bikoiztasunezko nahiz zalantzazko bukaera duten hitz batzuk, -LE edo -LA -z buka lezaketenak. Hona hemen sarri agertzen zaigun beste bat, “GatzamaillEA”: ikus, Laugarren Autuaren bigarren zatia, 81-91 orr.

Bizkaieraz “emon-ek” emoille eta emole sortzen ditu; behin ere ez dut entzun “emoillA, edo emailA”; -IEA formaz ere sarritan, emoillea, emoileak, -leari.

Bi hiru aldiz “Gatzamaille” bezala agertzen zaigu Peru Ab.:

- “gatzamaille gaisoak daroa nekerik gogor ta...” 82. orr.
- “gatzamaille gaisoak aurreratuta badauka bere mea...” 86. orr.

Bestetan zalantza argitzen ez digun formaz amaituta irakurten dugu, -EA-z alegia: gatzamaillea, -leak, -leari.

Behin ere ez da -LA amaieraz. Auzia horrela ikusirik, -LE -z bukatuta-kotzat zeukala esango nuke.

EPAILLA: (“bat”-ekin elkartuta): “O zikin zantarrak! Ori ill-epailla baten lana da”: 23. orr.

- “ikusiko dogu zarean edo (sic) ez ill-epailla edo anatomiko ona”: 24. orr.

- -EA amaieraz: “luebagiña ta otaepaillea da”: 106. orr.

IKASLA, IRAKASLA: “icasla obeac”: ERACASTEAC, 214. 20; honela idatzi behar da “iracasla obeagoac” dakarrenean: ibid., “Utseguinñen Zucenvidea”-n.

IRAKASLA, IAGOLA: “Iielea guztien iagola, irakasla ta burua” 83. orr.

-TZAILE (-TZAILA)

-TZA eta -LE atzizkiek osotzen dute -TZAILE (TZAILA). Hemen ere -LE ajente atzizkia agertzen denez gero, -TZAILE -k ere “egilea” esan nahi du, -TU hartzen dutenekin, batez ere.

GALTZAILA: (“bati” lotuta): “obeto dozu ian da bakean itxi alango ordi galtzaila bati” 33. orr.

Hemen ere gogoan eduki behar dugu gorago esandakoa, -IE -z bukatuta-koetaz, alegia: amaierako -E Bizkaierak -A bihurtzen duela sarritan: -TZAILLE = -TZAILLA. Hitz batzuk -E-z bukatuta irakurten ditugu; -EA zalantzazko formaz amaituta asko, eta -A -z bukatutakoak ere baditugu.

IMINTZAILLA: “... nungo gaisotegietan egon dira andrakume azur-imintzailla, barriketa ta berba laban бага...” 23. orr.

OSATZAILLEA, ATERATZAILLE: -LE-z amaitzen da bata, eta zalantza erabakitzen ez digun formaz, -EA-z, bestea:

- “... ez baiña Bizargin, Odolateratzaile, ta zauri-osatzaillea zareaneti” 22. orr.

ASMATZAILLEA: “beeko gaizkinik asmatzailleenak bere (deabruak, alegia) ez eben geiago asmauko” 47. orr.

URTZAILLA: gehienetan -EA formaz agertzen zaigu, baina olagizona aurkezten digunean, Urtzailla digu argi ta garbi.

- “dira lau beargiñ: Iielea, Urtzailla bi ta Gatzamaillea”: 82. orr.
- “esaten da barriz Urtzailla, zerren urtu eragiten dabene mea sute-gian” 83. orr.
- “daroa agoia urtzailleak...” 84. orr.
- “... begira dagoka urtzailleari...” 84. orr.

Forma bereziak: “EGIN”-ek “egile” egiten du, “N” dun aditzak -LE (-LA) hartzen bait dute; hemen ordea -TZAILE hartuta ere agertzen zaigu. Honela digu Kiputzak Kredoan:

EGITZAILLEA: “sinisten det Aita Jaungoiko guziz poderosoan, zeruaren ta lurraren egitzaillea”: 110. orr.

Eta egia bera baieztetakoak beste era darabil Baigorritarrak:

KREATZAILLEA: “sinhesten... zeruaren ta lurraren kreatzaillea”: 108. orr.

-GINTZA / -KINTZA

-GIN atzizkiari -TZA ezarririk sortu da. Oso ugaria egun ere, sartaldeko euskalkietan, batez ere.

Hiru lau balio semantiko ditu: ogibide edo langintza, fabrikagintza, agentzia, eta lana egiten den tokia bera. Baina esanahiak ez dira bata bestea-rengandik argi eta garbi bereizten. Adibidez, Zurgintzak, ogibidea, fabrikazioa eta lantokia adierazten dizkigu. Bakoitzaren esanahia ez dago ondo mugatua ez herriarengan, ez idazleengan. Egun, gutxi erabiltzen diren -Gintzo, -Gintzu atzizkiak -GINTZA-ren alkaketak dira.

BEARGINTZA: ogibidea, langintza adierazten digu: kasu askotan datorrigu:

- “alan iazoten da nik ezagutu ditudan zure beargintzakoakaz”: 23. orr.
- “eztiñot nik dongarorik zure beargintzea gaiti” 21. orr.
- “errazago ikasten dira zure beargintzak nireak baiño” 19. orr.
- amaierako -A itsatsia eta “A” erakuslea argi eta garbi bereizturik. Hemen lana, fabrikaketa esanahiaz:
“zer egin eban Jaungoikoak, itxi eragiteko arrotasunez asi eben beargintza a?”: (Babelgo dorrea) 129. orr.
- “amaitu dabenean urtzailla agoia zaindu dabena esan dogun beargintzea, doa lotara”: 84. orr.

Berriz ere “-A” organikoa eta “AU” erakuslea bereiziri

“ni baiño buru obeagoa zan ola ta beargintza au asmau ebana” 85. orr.

- lana eta ogibidea azaltzen dizkigu oraingoan: “ezpatariakin lotuta bait dator: “ezpatariak, ezta gureztat beargintza atsegingarriagorik” 96. orr.
- lantokia: “Popatxu, ator ona, erakutsi eiozan oni eure beargintzako tresnaak” 95-96. orr.
- lana ta lantokia: “... egoten zarean bizargintzan bear eztan ordue-tan”: 36. orr.
- lana, fabrikaketa eta ogibidea: “emen da arratsaldean liñoepatatea, ta ikasiko dituzu eztatizuzan gauza asko beargintza gogaitkarri onen gaiñean” 93. orr.

KOLTZAGINTZA: (lana eta fabrikaketa): “nok ikusi zeinkezan koltzagitza, arriak landuten, soloko bearretan”: 20. orr.

EUNGINTZA, EUNTEGI: esaldi baten datozkigu biak, bakoitzaren esanahia ondo bereizirik: -tegi: tokia: “euntegi” = telar
 — Gintza: ogibide, lana, fabrikaketa: “eungintza”
 “nire alaba bata, bera da gazteena, daukaz euntegiak, daki eungintza, ta etxeti urten bage...” 93. orr.

LANGINTZA: “ze langintza zamargin, bizarrak bizarra eragin” 81. orr.

Honela gazteleratu zuen Azkuek: “qué oficio el del que hace gorros para las ruecas! La barba produce barba”: ibid, 44. esaera.

OSAKINTZA: lana aipatuz: “bein banaan aterako deusuz egin dituan esakintza mirariraino io eragitekoak” 18. orr.

-KUNTZA

-KUNE (-kuna, -Kunde) bezala, **-KUNTZA** ere ugaria dugu euskarari, ez literaturan bakarrik, baita herriarengan ere bizirik daude: esakune, begirakune, salakuntza, esakuntza, atzerakuntza.

Semantika aldetik, beste atzizki askoren antzera, **-KUNTZA**-k ere ekintza adierazten digu, batez ere; hitz batzutan “ogibidea”. Hegoaldeko euskalkietan erabiltzen da, batez ere.

Atzizki honen iturburuaz honela mintzatzen da L. M. Mugika: “personalmente nos inclinamos por el origen “latino” de este sufijo, dio berak, que aparentemente parece no-románico”: op. cit. 185-186. orr; irakur bere hipotesisa, ibid. 185-190. orr.)

ESAKUNTZA: “orri esaten iako euskeraz esaerea edo esakuntzea” 79. orr.

- partit. era honetan: “asko da Peru esakuntzarik” 81. orr.

ERRAKUNTZAK: (Baigorritarraren ezpainetan: “huna bada, zuk nahi dituzun bertze errakuntzak” 118. orr.

ATZERAKUNTZA: “... datoz (ehiztariak) zerbait artutera lotsa ta atzerakuntza bage...” 67. orr.

ARKUNTZA: “au diñozu arkuntza guztietan” 23. orr.

BERBAKUNTZA: “euskaldunak bagara zetarako berba egin ez geure asaben berbakuntzan?” 19. orr.

BATZAKUNTZA: “buru azur biribilla da beste azur batzuen batzakuntzea, zeintzuk egiten dabeen utsune edo...” 52. orr.

Hitz guzti hauek “ekintza” adierazten dute, batez ere.

ETXAGUNTZA: hots mailan, hitz hau sail honetakoa dela dirudi. Baina ez dut garbi ikusten hemen ala beherago, **-TZA** atzizkiaren zerrendan ipini behar den, oparotasuna agertzen bait digu. Izen honek, “etxe”-k, bi

atzizki hartu ditu: -Gun, eta -Tza. Zer esan nahi du? Azkue Ohartu zen “-Gun” hori atzizki normala ez zela, beste aldaketaren baten bidez sortua baizik: “Etxagun = propietario de casa: parece alteración de “etxajaun, etxejaun”: Dicc. I, 287, orr.

Ene uste apalez, “Gun” hori “-Dun”-etik sortu izan zitekeena da, “jabe-tza” azpimarratzeko, eta “-Tza”-k duintasuna, oparotasuna, handitasuna azalduko liguke, nahiz ogibidea: medikuntza, erregetza, etabarren antzera. Peruk Maisu Juani agertu nahi diona zera da, bere aberastasuna, duintasuna; horrekin ondo lotzen da “-Dun, -Jaun” -aren esanahia. Hainbat adiz agertzen zaigu hitz hau Lehenengo Autuaren bigarren zatian:

ETXAGUNTZA: “ni naz iru etxaguntzaren jaube...” esaten dio Peruk M. Juani, bere burua aurkezten dionean: 22. orr.

Izan ere, poliki poliki erakutsiko dizkio etxeko eta basoetako aberastasunak.

- Bere zintzotasuna eta gizalegetasuna beste batzuen jokabidearekin konparatuz:

“dakustaz iru ta lau etxaguntzaren jaube direanak, zoorrez beteta, bururik jaso ezinda, gosea emoten deutseela euren ume ta ogitukoai, ardao zaleak direalako”: 59. orr.

- Bere oinordekoa aukeratzeko duen eskubidea Foruengandik dator kiola aitatzuz: “Bizkaiko Poruak emoten deust eskubidea autatuteko zuen artean (seme alaben artean) gura dodana neure oiñordekotzat...” 69. orr.

- “Ni nas (sic) iru echaguntzaren jaube” dakurgu Zar. eskuidatzian: 8.3.

Eta “ni nas neure (sic) echaguntziaren (sic) jaube”, damaigu Arantz. eskuidatzia: 11.19. Kopista beronek ohar kritikoa eginik azaltzen digu zergatik egiten duen aldaketa hori: 227. 7-11.

-KA

-KA honek ez du zerikusirik goian arakatu dugun -GA/KA, -BAGA, -BAGE (GABE -kin : lantzaka = inculto; aseka = insaciado: “gabezia” adierazteko.

-KA atzizkiak esanahi bat baino gehiago ditu (ikus: AZKUE, *Morfología Vasca*, 95-96 orr.; L. M. MUGICA, *Origen y Desarrollo de la Sufijación Euskérica*, 147-150 orr.; AZKUE, *Dicc. Vasco-Español-Francés*, I, 458, 3. zerr.

Oraingo -KA hau “erazko” atzizkia dugu, ekintzaren era adierazten du, alde batetik, ekintza eta ekintzaren aldizkotasuna, bestetik: “correspondiente al gerundio castellano, digu L. M. Mugikak, o a expresiones introducidas por las preposiciones “a” y “por”: op. cit. 147. Beste batzutan -TU aditz bihur-

tzaile hartzean du: zirika-TU; edo eta sustantibo eta adjektibo balioarekin ere bai, banaka batzutan. (-ADA / -KADA atzizkietaz gorago mintzatu gara).

1. Ekintza errepikatuaren “era”:

AGIRAKA: “Baiña orrelangorik aitatuten badozu emen, izango da barailla TXILIOKA: andiren bat. Neskatilleak esango deutsa ugazaba-andreari; asi-ko da agiraka, txilioka, ta berbarik onen esango...” 30. orr.

BURRUKA: “Ara zelan dabilztan burruka (sic, bai 1881.eko eta 1970.eko argitaldietan), (“-n” gabe), oratzarragaz zuzendau (sic, aipatutako argit.) ezinik...” 89. orr.

-“ARI” atzizkia ezarrik, agente semantikarekin:

“... gizon ospetsu, burrukari, ondatzaille, alper ta baldanakaz”: 15. orr.

ATRALAKA: “etxe utsa, atralaka utsa” 80. orr.

TXILIOKA: “baebillen estuturik txilioka gaisoa guztia igarota” 63. orr.

AGURIKA AIKA: (egureaz etimologia orijinala emanez) “Agureak”: Ai gurea edo AIKA illetan dagoana: 119. orr.

Eta beste hau: “Baita beste gauza bat bere: “Aguria”, AGURIKA dagoala lurra itxi bear dabelako laster”: ibid.

JAUNKA: “Iakin baneu lenengoti Barberu txar bat baiño etzineala, enintzan jaunka zugaz egongo...” 16. orr.

DEIKA: “Deika”: 59. orr. (baten bat ate joka dagoela adierazteko)

GARRASIKA: “ugarasioa da uretan garrasika ta igeri ibiltan dana” 127. orr.

ULUKA: behar bada, hemen eta onomatopeiokoen sailean ere ondo legoke: “egoan (mozoloa) lotsatuta, arpegirik emon ezinda. Asi zen uluka. Batu zirean uluetara txori asko” 123. orr.

ZABUKA: “enau ondiño iñok ikusi ardaoak igarota, gatx eginda, zabuka, oiñak lokaturik, ez miiña motelduta” 15. orr.

MAKILLAKA: “beti ibilli bear dau (astoak) makillaka legeztu dedin ari-ñago” 128. orr.

Berriz ere ekintzaren aldizkotasuna edo errepikazioa ondo azalduz: “makillaka banatuarren ugazabak (txakurra)...” 58. orr.

MAKILLAKA: oraingoan -KA atzizkia -ADA/ -KADA -ren ordeztu edo laburpen bezala datorkigu: “bere semeak emon leikezu makillaka galanta ta burua ausita itxi” 33. orr.

ESTULGA (-KA -ren semantikaz): “...oiñak zerbait ezkotu edo buztiten baiakez, estulga ito bear dabeela” 29. orr.

KUKUISKA: untxi edo konejuaren sartu urtenak adierazteko:

“Peru..., zer da kuia? Zuek konejoa esaten deutzazuna; ta esaten iako kuia, kui-kuia edo kukuiska legeztu dabilztalako, emen urten, an sartu, buruak orain agertu ta gero ezkutetan...” 57. orr.

2. “-KA”-ri “-TU” aditz bihurtzailea erantsirik:

MIAZKATU: “esku, atz ta ezpanak bere miazkauko (sic) zendukez gozoa-ren gozoz” 87. orr.

LOKATU: “... oiñak lokaturik...” 15. orr.

3. "-KA: sustantibo nahiz adjektibo semantikarekin:

AUZKA (pendencia, riña): "emen barailla, deadarra, auzkea ta nasaitasuna baiño besterik eztago" 41. orr. (ostatuko giroa azaldurik).

ALBOROKA: "emoidazu esku ori, ta adiskide garealako ezaugarritzat egin daigun alborokea, ta au neure diruti" 24. orr.

INKA: "zure azur banatuetan inkaren apur bagarik" 33. orr.

ZIRIKA: "enabee iratzartuko ez ardi, ez imitzen ziridak" 34. orr.

ZAUNKA: bi esanahi ditu: sustant., bata, eta onomatopeikoa, bestea:

a) Izen balioarekin: "bakarrik etorri banintz, ezeban zaunka aserre usaiñekorik egingo" 57-58. orr.

b) Onomatopeiko semantikaz: "Zer da txakurra? ... Onelakoak dira zakur aundiak, "zaunk, zaunk" lodi egiten due; berriz txikiak, "txaunk, txaunk" 121. orr.

• "Txakurrari dagokio zaunka egitea ta..." 58. orr.

4. "-KA": semantika onomatopeiko errepikatua azpimarratzeko:

TRISTA TRASKA: "ezpata-oñean edo ondoan iminten dabee liño astosa-pindua ta esten deutsee zurespateaz, Triska Traska eginda" 94.

TRIS TRASKA: "tris traska dirautsagu erruki bagarik" 98. orr.

(liño lanen tresnen zaratak bizi-bizirik agertuz).

TXILIJOA: balio onomatopeikoa du alde batetik, eta erazkoa bestetik: "baebillen estuturik txilioka gaisoa guztia igarora" 63. orr. (1).

-GURA

Atzizki ugaria, Bizkaieraz batez ere. Semantikoki "gogoa, nahi izan, desira" adierazten du. Moglek sarri darabil Peru Abarkan, eta era askotara: bera bakarrik, inori ezarri gabe; izenari erantsita, izen deklinatuaren amaierak hartzen dituelarik: Dirugureak; edo -ta aditzario eta lotuta. Esangura bakoitzari dagokionez, amaiera bereziak hartzen ditu: -rak, -reak, -raz, -rako, ...

Adibide gisa, esaldi banaka batzuk bakarrik jasoko ditugu:

GUREAZ: "darraiko etxekoa (etxeko sagutxoak basokoari) / basoko iaatekoa / ikusteko gureaz": 62. orr.

GURAKO: "zer dira erreguelduak? Aupatsak esan gurako dozu" 78. orr.

GURA: "... gura dabeen gisaan" 69. orr.

• "ikusi gura ezipazendun lurrean bertan inpreñua" 33. orr.

GURAZ: "... eta ez neure burua arrotu guraz" 38. orr.

(1) Oharra: MALLUKA: bi esanahi eduki ditzake: azentuaren bidez ondo bereizten ditu herriak; a) "malluka" ibiltzea = mailuarekin zerbait "ioka" ibiltzea azaltzen digu, akzio errepikatua;

b) "malluka" = tresna beraren izena, mailu txikia. Balio honekin agertzen zaigu hemen: MALLUKA: "... io bear dau agoe guztietarako mea malluka txikar bategaz" 85.

DIRUGUREAK: “bildur izatekoa da dirugureak azi edo geitu...” 21. orr.

LOGURA: “ni logura naz” 34. orr.

IAGIGUREA: “badakigu eztala bardin gabeko iagigurea ta goizekoa” 76. orr.

LANGURA: “egun baten ian gura ezpadot, illunduten iako biotza” 56. orr.

LANGUREAK: “... eta deritxot euren iangureak geituko leukeela neurea” 88.

Azkenengo adibideek agertzen digutenez, -GURA -k gorputzaren gogo somatikoak azaltzen ditu sarri sarri. Batez ere, -GURA -dun hitzak zenbait eta zaharragoak hainbat eta lotuagoak daude esanahi “fisiolojikoarekin”: logura, iangura, iagigura. Atzizki hauen atala “Derivativos Pasionales” deitu du Azkue: Morfol. Vasca, 136. orr.; eta, izan ere, adierapen handikoak gehienak: -bera, -gura, -egile, -kari, -kin, -ko, -or(-kor), -tun...

Baina, ene uste apalez, ez da esangura horretara bakarrik mugatzen, gainditzen du esanahi fisiolojiko eta badu beste mailako “gogoak” adierazteko ahalmena ere: iakingura, bizigura, pigureriagura:

IAKIN-GURA: “baketu garean ezkerro, iakin gura neuke zelan deritxun” 26. orr.

ESANGURA: “... ipuin onen esangureak” 65. orr.

- “orain iatort gogora gaztetan ikasi neban asko esan gura daben ipuiñ au” 55. orr.

ANDIKIGURA: “andietxe ta andikigurakoenetan...” 72. orr.

DIRUGUREAK: “... dirugureak azi edo geitu eztegizan odola aterateko premiñak” 21. orr.

-OLA

Atzizki hau, egun, nahiko mugaturik dago burdina behargintzara, gure toponimia eta abizenak bide ditugula: egurrola, harriola, lakiola, zeharrola, bixiola, mirandaola, burdinola...

Peru Abarkan “ola” sarri agertzen zaigu, eta beti izen bezala, burdinola edo ferreria adierazteko, ez atzizki bezala; baita olagizonak izendatzeko ere. Behin bakarrik aurkitzen da atzizki eginkizunarekin, “Bandiola”; hitz berau ez zaigu esaldietan agertzen, oleetako tresna, zirkulu eta lantokiak izendatzen dituen hiztegian baizik. Azkuek ez du gaztelerara itzuli: “BANDIOLA”: “...?”: horrela agertzen zaigu: 91. orr. Eta bere hiztegian ez da izen hau agertzen: *Dicc. I*, 130. orr.

“BANDIOLA”: 91. orr.

“Ola” izena deklinabide amaiera ugariz hornituta agertzen zaigu; adibide batzuk:

OLA: -AN: “izan dozu goiz eder ta atsegintsu bat olaan ikusi dituzun gau-zaakaz” 95. orr.

-RA: “andikiak eurak datoz nozbait olara” 87. orr.

-EAK: "etorkizuneko oleak, bearrik ez", esaera ederra!: 81. orr.

-RIK, partit.: "zer egingo neuskioe nik neure basoetako abe biziai olarik ezpalego?" 85. orr.

-EA: -A + -A = -EA, joera arrunta ondo beterik: "dakustanez gau ta egun dabil olea" 86. orr.

• Erakusleen aurretik: "ze on iatorko Bizkaiari ola oneetarik? (sic) 85. orr.

Hitz konposatueta:

OLAGIZON: sarri agertzen zaigun izena:

• "nun lo egiten dabee ola-gizon oneek?" 86. orr.

• "...ardaoa olagizonai eroateko" 85. orr.

OLAIUNA: "eta zienbat enparetan iakee ola-iaunai gauzak zuzen bada-biltz": 85-86. orr.

• "asteazkenean daukee edan-aldi bat olaiaunaren lepora" 88. orr.

-TZA

Atzizki esanguratsua dugu; hiru lau esanahi ditu: ugaritasuna, nahasmena, ekintza, ogibidea.

1. *Ugaritasuna*: oso bizirik daukagu, egun ere, esanahi hau oparotasuna azpimarratzeko: dirutza, lastatza, basatza, bedartza. Ene ustez, -TZA -k ugaritasuna ez ezik beste esangura sakona ere badu, ugaritasunarekin bat eginda doana: oparotasunez azpimarratu nahi ditugun hitzak "elkar-nahastuta, elkar-lotuta, kirimilduta" daudela adierazten digu: sasitza, basatza, jendetza, kakatza, lastatza, ...: zatiak ordena garbirik gabe, ondo banaturik gabe agertzen zaizkigu, nahasturik.

Baina habe handiez ari garenean, "pagadi, artadi, gaztainadi", etab., habe hauek eta berauen abarrak ez daude sasiarenak bezain kirimilduta, nahastuta, bata bestearengandik nahiko banatuta baizik.

BASATZA: ugaritasuna eta nahasmena oraingoan ere: "eztabil (Perun herriko Barberua) zu lege basatzarik basatza oiñetako meeakaz" 17.

2. *Ekintza*: bizitzaren prozesuari dagokiona azaltzen du, batez ere: iaioletza, bizitza, eriotza: ekintzarik sakonena, ederrena, alegia; beste eratako ekintzak ere bai.

BIZITZA: "Eztakusk (zioan etxean hazitako zerriak azeriari) barriz nire bizitza ona?" 55-56. orr.

• "ordi sats egiñak ateraten iituek bersoak, eta ezin naiak bat bizitzearen beean" 64. orr.

• Askatasunak dakarren pozaren gorespina: "eztakit zer dan bakotxa bere buruaren iaube izatea, ta katebagako bizitzea...; gogorragotzat eukiko leuke illa beteko bizitza ezkutukoa, emen negu guztiko lo txarra ta bear gogorra baiño. Gurago dau otsoak baso-bizitza, iaatekoa nekez billatu bearra..." 86-87. orr.

ERIoTZA: “osatuten bada zelan edo alan, zorionean dei egin iatan: atera dot eriotzearen autzetati” 23. orr.

Bizitzaren ekintzak, iaiotza-bizitza-eriotza, antropolojiaren azken sus-triaetaraino eramaten gaitu: “bizi erazi, bizitzen iraunerazi” eta “bizigura” azpimarratuz. Bai aberatsa eta gogangarria herriaren sinismena bizitzaz!; bizitzaren filosofiari sakonena behar bada, bizitzarean sorreraraino jo duena. Horra hemen, adibide gisa, nola azaltzen dituen bere hizkutzan, luzaroan ausnartuz gero barrensumatu dituen ondorioak: Latinez, “parere” aditzak, amak bere kidekoa egin duela adierazten digu, bere antzeko berria, bera bezain “pertsonea” sortarazten duela, hau bait da bere “parea”. Euskaraz, kultura ezberdineko gure Herriek, iaiotzaren bizi-indarra edo eragina azpimarratzeko “Erdi” darabilte eskualde batzutan: AN, BN, L.: (Erdi: parir; Erdi da: ha parido; Erdia: la mujer parida; Erdialdi: parto, eta antzekoak dakartzagu Azkuek bere hiztegian). Zein da aditz honen mamia?: ama bi zati egiten dela, bera eta beste pertsona berria, bera eta sortu duen semea. Herri ezberdinek gauza askotan, baina ildo beretik antropolojiaren sakonean!:

EZKONTZA: “etxeko kaltean dan ezkontzaren bat iaramon бага gurasoei” 69.

ARKUNTZA: “au diñozu arkuntza guztietan” 23. orr.

BATZAKUNTZA: gorago ere aitatu dugu hitz hau, -KUNTZA atzizkiaz ari ginela. Hemen ere aipatu beharra dugu; leenengo -TZA atzizkia gatik oraingoan: hainbat gauza nahiz zati “baTZEen edo bat egiten” duen egintza adierazten bait du (hor beste adibide ezaguna ere” baTZE-ar, baTZA-ar”).

• “buru-azur biribilla da beste azur batzuen batzakuntzea” 52. orr.

TESTIGANTZA: “neskatillari serbitzari baten testigantzea ezta asko” 48. orr.

PROBANTZA: “Ze deabru!; probanza (sic) oso бага niri ezarri eskribau ta justiziako beste...” 48. orr.

Oraingoan eta beste hainbat kasutan “-N”-ren ondoan “-Z” darabil: ez -TZ “Enzula”: Eracasteac, “Itz Aurrecoa (IV); “Izunzak”: 96; “pazientzia”: 46. orr. Baina gehienetan -TZ -z idazten du:

• “Testigantzea”: 48. orr.; “Pentzudaan”: 76, eta 83. orr.; “... lapurren agiri edo probantzak egiteko” 137. orr.; passim -TZ -z.

ADIUNTZA (oportunidad, ocasión): “adiuntzaz ta era onean edo asierati gatxari bidera urten bear iakola” 81. orr.

LANTZA: “lantzan ari”: sail honetan sartzea erabaki dugu: “nahiago zuten (Baigorritarrak) hekien etxeetan lantzan ari, ezen ez Espaiñiarren odola ixurtzen” 117. orr.

(Gorago, ezezko atzizkietaz, -GA/KA, ari ginelarik ikusi genuen “LANTZAKa” hitza, landu gabeko gizona adieraziz; Peru Abarkaren haseran bertan, Lehenengo Autuaren tituluan bertan “LANTZAKA” hitzaz kalifikatzen du Maisu Juan, baserritarren ohituretan, euskal hizkuntzan landu bagea bait da.)

3. *Ogibidea*: ekintzarekin lotuta dago, noski: morrontza, apaizgintza, erregetza: lana eta ogibidea.

ITZAINZA: “badakie (baserriko neskatillak) idiak buztartuten, itzaintzea egiten, itaurreko dabiltzala noznai” 100. orr.

BARBERUTZA: “orrelango Barberu perdulario molde bagaak galduten deutseela pama guztia Barberutzeari” 17. orr.

ATXURLARITZA: (garaian garaikoak: Bibliokoki egiztatu nahi du Atxurlaritza dela Jaungoikoak gizonari emandako lehenbiziko ogibidea) “gizon iakitunak guzurrea esaezpaeban atxurlaritzea da artez Jaungoikoak emoniko lana” 101. orr. (1).

ONTZA: “zer da mozoloa edo ontza?... Ontza, or utsa da” 123. orr. Eta esaera zaharrak dioena: “Ontzari ez begiratu lumara” 80. orr.

(-TZA -z amaitutako beste adibide batzuk “-A” ITSATISDUNEN SAI-LETAN” ere agertuko zaizkigu, II. eta IV. Ataletan.)

• ARANTZA, ARRANTZA, ARRAUTZA: euskeraz baditugu -TZAz amaitutako izen ezagunak, baina sail honetako -TZA atzizkidunekin zerikusirik ez dutenak: Arantza, Arrantza, Arrautza, etab., azkenengo haue-
tan amaierako -TZA izenaren zatia bait da, ez atzizkia: (ikus, II. Atala, “Bere-
rezko -A dunen” deklinabidea Peru Abarkan”) eta IV. “Berezo -A dun” hi-
tzen esaldiak”).

III: “-A” itsatsidun atzizki ttipigarriak Peru Abarkan

Atzizki ttipigarrien ugaritasuna eta bizitasuna handia da, izan da batez ere, euskeraz. Ttipigarriak erabiltzeko joera arrunta izan da euskaldunen artean, bai atzizkien bidez, eta bai silaba batzuren palatalizazioaren bidez; hizki batzuk ahozkatzerakoan mihiak eta ahoko alderdi guztiak elkar ioko eta konbinaketa bereziak eginik hots bitxiak sortzen dituzte esanahi adieraz-
korra azpimarretzeko: aitta, umetto, neskatto, bi//dur, itto, ...

Hizki hauekin, batez ere, egiten da palatalizazioa: oklusibak: d, t; xistu-
dunak: s, z (frikatuak), eta xistudun afrikatuak: ts, tz; eta mihi-palatalak: l, n.
Luzea da ttipigarri atzizkien zerrenda, “sin número” dio Azkuek bere *Morfol.*
Vasca, 200. 282; L. M. MUGICA, op. cit., VI. en atala, “Sufijos Diminuti-
vos”.

Guk, hemen, gure lanarekin zerikusi dutenak ukituko ditugu, “-A”-z amaitzen direnak, alegia.

(1) *Oharra*: ONTZA: izen ezaguna “ONTZA”, ez “urrezko ontza”, aintzinako dirua, “hegatzia” baizik. -TZA hori izenaren beraren zatia dela dirudi; baina Moge-
lek ematen dion esanhiari begiratu gero ondo legoke sail honetan, “ON”-etik baletor bezala. Mogelen etimolo-
gian herriaren sinismena agertzen dela uste dut. Herri filosofia edo iakituria, eta herri ipuin
zaharrak ondo arakatzekoak dira, eta ez bide bazterrean uztekoak.

-ANDA

-ANDA (-KANDA, -ANGA aldaketak, eta -ANDO, -KANDO, -ANGO, -NGO, -NKO kidekoak). Gehienak erdi fosilizaturik daude egun. L. M. Mugikak, A. Tovarri eta R. Lafon-i jarraituz, zera dio, “sobre su origen no nos aventuramos a dar ninguna opinión firme, aunque, desde luego, son afijos prerrománicos”: L. M. MUGICA, op. cit. 341.orr.

Peru Abarkan -ANDA atzizkidun bat, behintzat, agertzen zaigu: OILANDA.

OILANDA: “... oillanda ta usakumezko erria”: 73. orr.

- “eztazu ez oillandarik, ez eperrik ian”: 42. orr.
- “... eperrek, oillandak, oillagorrek ta...” 29. orr.

-ILA (-TILA)

Sail hau ere nahiko urria dugu euskarari, gaur behintzat. Bizirik diraute banaka batzuk, Bizkaierazko euskalkian, batez ere; “de la docena de vocablos a que da lugar este diminutivo, los más pertenecen solo al dialecto B.” esaten digu Azkuek: AZKUE, *Morfol. Vasca*, 208. 318.

Peru Abarkan oso ugaria dugu -ILA atzizkidun izen bat: NESKATILLA. “N” hizkiari hasitako “-A” itsatsidun saila, oso osorik ia, bi izen hauek osatzen digute, NESKATILLA eta NESKA, Neskatileak batez ere. (ez dugu arakatuko hemen Mogelen iritzia Neskatilearen etimologiaz). Deklinabide ugari hornituta agertzen zaigu, gainera:

NESKATILLA: “Enaz ni neskea, neskatilea utsa baiño” 24. orr.; 40. (sarri agertzen da Mogelengan “neska eta neskatilearen” arteko bereizketa hau).

-EARI: “itanduko deitsagu neskatileari” 31. orr.

-EAK: “neskatileak urten lei noranai bere ule-trenza” 25. orr.

-K: “gara neskatileak, euskaldun ez illak” 97. orr.

-ETATIK: “mutillak, ... gorde bear zaree neskatiletarik” (sic): 69.

-ETATI: “neure mutill (sic) onak: iges egizu gaurko neskatiletati” (sic): 69. orr. (mutillak bat baino gehiago izan arren “egiZU”, ez “egiZUE”, aditz forma darabil).

-BATEK -ekin: “... aserratu bear dabenean neskatilea batek” 68. orr.

-ONEK erakuslearekin: “neskatilea onek atzeratu eban gorputza...” 68. orr.

-EA: “zer don bada neskatilea neskea baiño onraugo?” 24. orr.

-EAREN: “... neskatilearen esanak zure kaltean izango dira” 48. orr.

MARATILLA: “eztago ez itxirik guretzat maratillarik” 63. orr. (1).

(1) Oharra: MARATILLA: badatorkigu Mogelengan “MaraTILLA” izena; egituraz sail honetakoa dirudi. Behar bada bai, baina ez dut oso garbi ikusten auzia. Azkuek ere bere zalantzak agertzen dizkigu “No sé si “marat-ila” (AN, B, G, L) taravilla, y “puztila” (B) burbuja son de idéntica formación”: AZKUE, *Morfol. Vasca*, 208. 318.

-SKA/-SKO (-XKA, -ZKA, -STA, -ZTA, -XTA, -SKO,

-SKA/ -SKO, gradatzaila ttipigarri atzizkiak dira, eta berauen aldaketak besteak. Ezagunak ditugu euskalki guztietan margol maila eta neurriak adierazteko. Gauza berdina azaltzeko dugun atzizki baso honetan L. M. Mugikak erabaki praktikoa hartu du “anarquia sufijal” hau arau batzutara eraman nahirik: “Por razones de “unificación” del idioma, dio berak, ante la proliferación de fórmulas afines, nosotros en nuestro HIZTEGI OROKOR TEKNIKOA hemos optado por una “única” variante para expresar los matices de “color”, esto es, -SKA (horiska = amarillento, zuriska = blanquecino), desechando para esa función las demás variantes -ZTA, -XKA, -XTA. Como “diminutivo principal” hemos elegido a -XKA para los demás casos (mendixka, bidexka). Ante semejante anarquía sufijal pensamos que es absolutamente necesario hacer una “opción”: I. M. MUGICA, *Origen y Desarrollo de la Sufijación Euskérica*, 354. orr.

Urria da atzizki hau Peru Abarkan, nahiz eta mintzairan oso bizirik iraun. +STA, bariantearen adibide bat, behintzat, agertzen zaigu Peru Abarkan, aurpegi margoak azpimarratzeko:

GORRISTA: “arpegi gorrista, ta mtrailla-alboak gizen-gizenak” (herriko Txinelaren irudia): 136. orr.

-TXA, -TXO

-TXO, eta beronen aldaketa -TXA eta -TXU, -TO/ -TTO -ren palatalizazio edo aldaketak ditugu. Hauxe da atzizki ttipigarririk zabalduena herri-mintzairan, behintzat.

BIGANTXA: “daukaguz bigae bat, bigantxa bi” 70. orr.

• *NESKATXA*: gorago aipatu dugunez “Neskabila eta Neska” izenak sarritan darabiltza Mogelek Peru Abarkan. Baina beraien antzeko “neskatxa” ordea, ez zaigu agertzen. Harritzekoa bada ere, Mogelek “NESKATX” darabil. “-A” itsatsirik gabe; hainbat aldiz gutxienez. Ipiniko ditudan adibideak ERACASTEAC-etik jasoak dira, esan dugunez Peru Abarkan ez bait zaigu agertzen:

NESKATX: “nescach, anima, honra ta estimacio gucia...”: ERACAS-TEAC 169. 8.

• “... bestelaco nescach becatuetatic sari andiac, estimacioak...” ibid. 169. 15.

• “... tenta ta tenta videan arkitzen dan edocein nescach”: ERACAS-TEAC 164. 13.

Gipuzkeraz idatzi zuen idazlan horrek azkenean daraman “Utseguñen Zucenvidea”-n ez zaigu izen hau zuzenduta agertzen, “-A” itsatsi gabe ontzat hartzen baitzuen berak!!

ERACASTEAC berak azkenean, erantsita, dakarren “Nomenclatura”-n, honela eman digu Mogelek:

“G	B	Castellanas
Nescacha	Nescatillia	Muchacha en pelo, o doncella”

Izen hau, eta beste guztiak, nom. sing., art. mug. ipinita datozkigu.

• *-TXA atzizkiaz*: izen batzuk -TXA amaieraz darabiltza herriak femeninoa azpimarratzeko, -TXO mask. balitz bezala: neskataXA, biganTXA; gaur inork ez luke “BiganTXO, eta holakorik esango Neska TXO” bai ordea. -TXO, -TXA aldaketa erabiltzen den izenaren sexuarekin bat dator: “astaina” = pollina; “neskatxa” = muchacha; “oilanda” = polla. Zergatik truke hauek?, herriak ahaztu egin duelako euskera, jenero auzian, “neutroa” dugu-la?; horra hor izen zaharrak bide: “AndereNO” = señorita; “bideXKA” = caminito; “etxeNO” = casita, etab., edo eta ad-jektibo ezagunak, “ArgalTXA” = flacucho; “makalTXA” = debilito. “Es curioso, dio Mugikak, el que a la polla se le diga “oilanda” y no “oilandO”, al novillo “idiskO” y no “idis-kA”, a la muchacha “neskatXA” y no “NesktxO”, al muchachito “morroizko” y no “morroizkA”, a la pollina “astaina” y no “astainO”, al pollo “oilas-kO” y no “oilaska”: L. M. MUGICA, op. cit. 367. orr.

Nondik datozkio genero bereizkuntzak, euskara berez “neutroa” baldin dada? Bere inguruko erromatarren mintzairen eraginez, zalantzarik gabe. Euskara benetan aintzinakoa delako, inguruko mintzairak eta baino askoz zaharragoa, izaera oso berezia du. Baina hala eta guztiz ere euskera gauza bizia dugu, eta ez harri hilaren antzeko. Horregatik harremanak izan ditu, eta izan behar ditu beti, inguruko hizkuntza eta kulturekin, garaiko euskaldunen elkar-komunikabide bizi eta egokia izan dadin. Hizkuntza guztiek izango dituzte elkar kutsadurak, halako edo holako neurrian.

Ohar hau egiten digu Azkuek, bere hiztegian, -TXA -z ari delarik: “-TXA: sufijo diminutivo de ciertos nombres... Es muy de tener que no lleve incluida la terminación genérica “a”, extraña al vascuence (hau da arrazoina), siendo así femenino de -TXO; pues por lo menos las palabras “argaltXA, MakaltXA” designan, en boca de algunos, a las mujeres: AZKUE, *Dicc.* II, 306. orr.

ARGALTXA: “... geeli argaltxa ta txatxarragaz egiña” 73. orr.

BIGANTXA: “daukaguz bigae bat, bigantxa bi”, 70. orr. (ikus, IV. Atala, B:

Izen bereziak”:

-ULA

-ULA -k hainbat amaiera-aldaketa hartzen ditu, eta sarri erabiliak, gehienak:

-ULA: atxurkula	-ULU: Urkulu	-OLO: Urkolo
-ILO: astakilo	-ELU: gaztelu	-IL: Urkil
-ILU: katilu	-EL: Txartel	
(Uruzubieta-ko baserri izena)	-ILA: urkila	

Gauza bat agertzen digu ugaritasun honek: -ULA atzizkiaren esangura eta eragina oso biziak izan direla euskal bizitzaren hainbeste arlotan.

URKULA: "Urkulea": 90. orr. (oleetako tresna hiztegian)

- "aek, erraiariak; A, urkulea; beste a, anezkea" 96. orr. (liñategiko tresna hiztegitxoan)

IV. Peru Abarkako "-A" itsatsidun atzizki saila (Atzizkiak soilik)

Ez gara sartuko euskal atzizkien baso zabal eta orbeltsuan, ez eta heuren iturburuak edo filolojia arakatzen, hori ez bait da nere lanaren edo azterketaren helburua. Kontutan izan ditugu, bai, gai hauetaz agerturikako azterlanak, batez ere: AZKUE, *Morfol. Vasca* eta *Diccionario Vasco-Español-Francés*: La Gran Encicl. Vasca, Bilbao, 1969; L. M. MUGICA, *Origen y Desarrollo de la Sufijación Euskérica*: Ediciones Vascas, San Seb., 1978; LUIS VILLASANTE, varia; batez ere, *La Declinación del Verbo Literario Común*, Edit. Aranzazu, ONATE, 1972; SORTZEN 1: "Ortografía, Deklinabidea, Sintaxia": Bilbo, 1978; LUIS MICHELENA, *Fonética Histórica Vasca*: San Sebastián, 1977.

Aurreko orrietan, esaldien bidez, egiztatu ditugun atzizkiak orain sailkatu egingen ditugu, bakoitzaren esanguraren ildotik abiatuz.

1. Ekintza, eragina, egitearen ondorioa:

Bai ugaria benetan esangura hau azpimarratzen duten "-A" itsatsidun atzizkien saila Peru Abarkan. Zera agertzen digu honek, atzizki bakoitzaren esanahi berezia alde batetik, eta atzizkien arteko mugak ez daudela gogorki eta betirako mugatuta, hesituta. Eskualde batetik bestera, eta eskualde berdinean historian zehar esanahiak bereizturik joan dira sarritan; laister ikusiko dugun bezala, atzizki batek bi hiru esanahi eduki ditzake.

Pertsonaren lana, bizigura, eragina, egiteak adierazteko dugun atzizkiugaritasunak beste ideia sakona ere azpimarratzen digu, ene uste apalez: euskal antropolojiak ez duela gizona abstratoki ikusten, bere etengabeko egitean baizik; hau da, pertsona "egiten-ari-den-gizona-dela", beste pertsona, gauza eta Jainkoarekin erlazionaturik autoburutzen ari dena. Pertsona gauza "dinamikoa" dela, plurierlazioetan mamitzen ari dena, arian arian hazten dena; beti aldatzen, beti osatzen, ez behin betirako mugatua. Eskuarlean darabil-tzan egiteetan, harremanetan agertzen zaigula ondoen, ez bizitzatik at. Horregatik pertsonak bere gain darama egite bakoitzaren mamiaren errespon-sabilitatea, ardura eta kutsadura. Euskara eta Euskal Antropolojia banatu ezinezkoak ditugu.

a) • -GILE (-GILA /-KILA ere bai BIZKAIERAZ): "egin" eta "-IE"-tik sortutakoak; egilea, agentea adierazten digute: bizargila, epaila, egile, gaizkile, ioskila.

b) -LE (-LA): aurrekoaren eta ondorengoaren kidekoa: iosla, ereila, iagola, eunla

d) -TZAILE (-TZAILA): imintzaila, moztzaila, osatzaila, urtzaila

e) -GINTZA / -KINTZA: egitearekin bat doan ogibidea: langintza, koltzagintza, bizargintza

f) • -KUNTZA (-KUNDE -ren antzekoa): ekintzazko izen abstrakto deribatuak: hizkuntza, salakuntza;

• edo eta ogibide esangurarekin: maisukuntza, abadekuntza

g) • -ADA / -KADA: akzioa; ostikada, larrapastada;

• neurria, batzutan: eskukada, katilukada

h) -KA: egite errepikatua: ostikoka, zirika. -TU aditz bihurtzaile ere hartzen du: bedekintza

i) -ETA/ -KETA: egite jarraitua: gorueta, laiaketa, goldaketa, olgeta, ileta. (Oñatiarrek badute joera aditzak horrela amaitzeko: osketa, erosketa)

• Ugaritasuna, landareena, batez ere: ezpeleta, sarasketa, ureta, urtieta: toponimia bide.

j) -TZA (-TZE, -TZIA): ekintza, eta ogibidea: ezkontza, eriotza, nekaritza, ekintza bera;

• eta, batzutan -TSU, -ZU, -ZA amaierekin. ugaritasuna, eta nahasmena sarritan: gure toponimia bide: otazu - otaza, gorostizu - gorostiza, sasitza, basatza, elortza.

Ekintza, ajente, edo eta ondorioa adierazten diguten atzizkien artean badira berezitasunak; historian zehar esangura egokituz eta aldatuz joan da, egun, guri, zail gertatzen zaigularik esanahi plurisemantiko edo bitarikotasun hori argi eta garbi mugatzea.

Zera eskatzen digu honek: euskal tradizio zahar berritzea: gure literaturaren azterketa sakona, gure klasikoen joerak ondo ezagutzeko. Honekin batera gaurko eginbehar ezinbestekoa: irakaskuntzaren eta idazleen eragina alde batetik, eta elkar komunikabide nagusi edo Mass Media eta administralgoarena, bestetik. Euskeraren bizitzan eta berrikuntzan indar sakona izan dute atzizkiak. Zerbaitetarako, eta poliki-poliki, sortu zituzten atzizkiak gure arbasoek, garaiko premiei egokitu nahirik. Teknika eta zientzia arloetan gai izan dadin euskara, hitz eta tradizio berriak sortzen ahalegindu behar, gaurko idorokunde, asmaketa eta arazo berriak euskal ioskeraz eta pentsamoldez mamituz. “Zahar berritze” hau etengabekoa da: “euskeraz pentsaarazi”, euskal senaz, Peruk Maisu Juanekin egin nahi zuen bezala, eta gero “euskal teknika berrietan” azaldu garaiko fruituak. Euskera, eta euskal nortasuna, zuhaitz zaharraren izerdi bizia adarberritu garaiko kultursoinekoz egokiturik.

2. Beste esangura dutenak:
3. -ABA: odolahaidegoa: asaba, ugazaba, neba, alaba
4. -BERA: bihotz-joera, aiherdura, biguntasuna: gupera, minbera,
5. -DURA (-TURA, -GURA/KURA), -DURIA: aditz-ekintzaren objetibazioa: ohitura, erretura, kirastura, apainduria.
6. -GA /-KA (-TZAKA, -TZEKE), -KE (-BAGA, -BAGE, -GABE, -KABE): gabezia, ezezkotasuna: donga, lantzaka.
7. -KERIA: tasun abstrakto negatiboa, gehienetan: dongakeria, zantarkeria, maitakeria milikeria.
8. -ERA/ -KERA, -ARA/-KARA: izateko, eta egiteko era: erdara, euskara, joera, mintzaera; bizikera, berbaera, esakera
 - Neurria: lodiera, zabalera
 - -ARA: abereen beroaldi edo zela: susara, arkara
9. -GURA: nahia, gogo: esangura, jakingura, handikigura
10. -OLA: etxea, Euskalerriko burdina lantegiak: harriola, etxola, ola, egurrola, goikola, haizola;

B) “-A” itsatsidun atzizki ttipigarriak

1. -ANDA /-KANDA, -ANGA, -KA: atzizki ttipigarrizailleak: oilanda, apurka, luzanga
2. -ILA /-TILA: idem: neskatala
3. -SKA /-SKO, (-STA): gradatzaile ttipigarriak: gorrista, orista
4. -TXO (-TXA, -TXU): bigantxa, idisko, aitatxo; neskatxa
5. -ULA (eta aldaketak): urkula, katilu, astakilo

Sarritan atzizkiak beste aldaketa edo barianteak ditu; ez ditugu denak ipini azken zati honetan, gure iker lanean gehien agertzen zaizkigunak baizik.

IV. ATALA

“BEREZKO -A DUN” HITZEN ESALDIAK

I. Esaldiak

Atalburu honetan “-A” itsatsidun hitzen beste adibide saila ipiniko dugu: hitz batzuk beste ataletan agertzen ez zaizkigulako; beste batzuk idaz-

kera bereziren batez datozkigulako (erakusleekin lotuta, nahiz “bat” zenbakiarekin, partitiborekin, edo beste ezaugarriren batez horniturik); banaka batzuk amaiera berezia damaigutelako. Agertuko zaizkigu, baita ere, hainbat hitz beste euskalkietan “-E” -z amaitzen direnak, baina Moglek “-A” berezkodunen erara idazten dituenak: (irakurla, entzula, lora) agura, andra, ora, ota, eriotza, bela, etab.)

Goragoko ataletan ere agertzen zaigu nahiko berezitasun eta adibide: ikus: II. Atala: “Berezo -A” -dunen “Deklinabidea”; III. Atala: “-A” itsatsidun atzizkiak”; VI. -na: “-A” berezkodun zalantzazko hitzak”; eta passim. Guzti horiek gogoan eduki behar ditugu, hemen agertzen ez zaizkigun hitzak haietan bait datozkigu, edo eta alderantziz.

—A—

ANEZKA: “beste a, Anezkea” 96. orr.

- “Auxe, anezka - zotza” ibid.

AGURA: “ardao-etxeetan sartzen dira agura baldresak...” 40. orr.

ATRALAKA: “ez barailla, ospea, atralaka ta iskididurik” 58; 30.

ALABA: “daukaduz seme bi ta beste ainbeste alaba” 58. orr.

ARA (eta konposatuak), (rastra, arado): “alderatu bear da eskuareaz gariaganik”: 102. orr.

- “eskuarea” 100. orr.

(Beste Euskalkietan “ArE”, batez ere) (ikus, AZKUE, Dicc. I, 55. eta 62. orr.; eta “EskuarA” aztertzerakoan honela dio: “(B-m (“Markina” adierazten digu), Gc”: 278. orr.; eta “EskuarE”: (B, G), rastrillo; Var. de ESKUARA”: ibid.

ATSAKABA: “ezteutsudala aiatatuko atsakaba emongo deutsun berbarik” 24. orr.; passim. Azkuek ordea “AtsakabE” hitza dakar bakarrik bere hiztegian, eta Peru Ab. aipamenarekin gainera: AZKUE, Dicc. I, 97. orr. Ene ustez Moglek “-A” itsatsidun bezala darabil; hor ditugu adibide garbiak alde batetik, eta bere joera, -A -z amaiturik, bestetik.

- “ian egizu atsakaba бага” 133. orr.

Noizean behin -EA deklinabide eran ere agertzen zaigu:

- “...ta dongeak, atsakabea ta ikarea” 65. orr.
- (esaera zaharra): “liñoaren atsakabeak, amai gabeak” 96. orr.

Baina forma honek ez digu auzia argitzen, are gutxiago alderantzizko edibideak ditugunean.

ANDRA: (izen hau ere beste Euskalkietan “AndrE” irakurriko da; Akitania-ko izkribuetan ere “-E” -z amaituta agertzen zaigu. Baina Markinaldeko Bizkaieran “AndrA” nagusitu zaigu, gaur arte:

- “Bentera andra zar erdi itxu bat...” 135. orr.
- “Andra ezkonduak estaldu eroazan buruak” 60. orr.
- “gizon ta andra guztien petxua” 125. orr.

- “lau gizon ta lau andra” 129. orr.
 - “alperra bada, eztala gizon ta andra ona izango” 80. orr.
- ASTURIA: (abere) “begi zetakadun edo Asturiakoak”: 73. orr.

Baita Akitaniako dokumentuetan agertzen zaigun erara, D eta R bitarteko “e” gorderik:

- “etxanderak jira askogaz” 60. orr.

Baina “amandre” idazterakoan “amandrE” darabil, banaka baztutan behintzat: “ekartzu orain, amandre, beste beso ori” 45. orr., dio M. Juanek.

ARIMA: ondorengo erakuslearen bokalarekin bat egin gabe:

“errazto garbituko dozu arima ori” 137. orr.

ARRETA: “atsegin ta arreta andi bategaz” 89. orr.

AGA: hitz konposatuetan agertzen zaigu, gehienetan:

- “aga - arria” 90. orr.
- “Uraga” 84; “Burdinagaak” 91.

ARRERA: “eskerrik asko egin deuskuzun arrera ona gaiti” 91. orr.

ARASA: “arasak” 101. orr.

ASKORA: “askorea” 100. orr.

- “burpillak lokatu ta askora bat emongo balitzakizu” 20. orr.

ARTZANORA: “artzain txakurreri esaten zaie artzanora” 121. orr.

ARRAUTZA: “... egiten ditu bere arrautzak” 124. orr.

ALGARA: “... soiñu, algara ta barre gozoetan” 98. orr.

AGURA: “ez atso, ez agura alkandora barik” 97. orr.

AILLA: “... atzeti edo aillapeti aizeak” 119-120. orr.

ARDURA: (deklinabide amaiera asko hartzen ditu, eta beti “-A” berezkodun bezala ikus, II. Atala):

- “artuko dot ardura andi bat” 131. orr.

ARRANTZA: “... arrantzaren baten isten zituela idi-jaubeak” 136. orr. Ondorengo honekin nahastu behar ez dena:

ARANTZA: “dauka barruan iraatsita arantzaren gogorra” 65. orr.

ARRETA: “... arreta apur batekin” 109. orr.

ASABA: (Atzizkien atalean esan dugunez “-ABA” atzizkia ugaria dugu Peru Ab.): “gure aasabak erakatsi (sic) deuskuezan ekanduakaz” 25.

AZA; OKELA: “... arbi, aza ta okelea erretillu baten” 25. orr.

AUKERA: “zeure aukeran” 66. orr.

ABARKA: (hitz ugaria): “leortu daiezan abarka bustiak” 68. orr.; passim.

ATRALAKA: “etxe utsa, atralaka utsa” 80. orr.

ABIA: “... euren abia edo leza-zuloetara” 72. orr.

LEZA

AMA - AMA: “ama-ama gaisoa, ekartzu beso...” 45. orr.; 46.

ALA: “isten dozu alaz beterik eriotza gogor baten...” 47. orr.

ERIoTZA

APA: “emoidazu apa laztan bat” 105. orr.

ARBOLA: “abe bizi edo arbola askoren izenak” 131.orr.; 132.orr.

- “arbola txito asko” 115. orr.

ARTZA: (“zaranda”; ez nahastu “artz” piztiarekin): -TU aditzbihurtzailea erantsirik:

“andrakumeak artzaatu daroe, isteko galgaraua...” 102. orr.

AKIAKULA: “iltera badoa (gaisoa) atxakia, esesiñoē ta akiakulea aoan”: 22.

AZA: “Aza ta okela zati”: 25. orr.

-B-

BELA: “erroia da bela -mueta” 127. orr.; “bela ta beste txori garau zaleak”: 102. orr.

- “kanpoan uso, etxean bela”, esaera zaharra, 118. orr.

BIZITZA (B-erak, eta G-erak ere bai “-A”-z amaitzen du): “ta daroa (mozo-loak) bizitza bakar bat”: 124. orr.

BURLA: “.. ez zure desberguenza (“-t” -rik gabe) ta burlak entzutera” 24.

BOGADA: “barriro bear dau bogada edo lisibara” 96. orr.

LISIBA

BASABERA: “basaberak esaten iakee txikar edo igon бага datožanai”: 132. orr.

(ez nahas “Basabere”-kin: ganado montes)

BERAZA: “erreten sagar mueta asko: berazak, gatzamiñak, urtebeteak, domentxak, kurkubietak”: 66. orr.

BERBA: izen oso ugaria Peru Ab. eta amaiera askokin agertzen zaiguna; “-A” itsatsidunen deklinabidea aztertzerakoan adibide ugari jaso dugu; orain banaka batzuk ipiniko ditut, adibide gisa:

- “... berbeak berak diño...” 124. orr.
- “... ez berba gitxitan gauza geiago” 32. orr.
- “... amaren sabeleti ikasi eban berbeetan” 28. orr.
- “berbarik onen esango deusuna izango da...” 30. orr.
- “... berbea moteldu” 34. orr.

BIGANTXA: “daukaguz bigae bat, bigantxa bi” 70. orr. (ikus, Atal honetan: II. B: Izen bereziak)

BORTXA, GERLA: Baigorritarraren ezpainetanik honela entzuten ditugu:

- “indar utsez ta portxaz (sic) gerlara (sic) sijoazenak” 117. orr.
- GERRA darabil M.Juanek: “etzara gerraan ibilli...?” 116. orr.

BASATZA: bi eratan: “eztabil zu legez basatzarik basatza” 17. orr.

BANDIOLA: “Bandiola” 91. orr.: erdal itzulpenik gabe; Hiztegian Azkuek ez dakar: I, 130. orr.

BITSADERA: “Bitsadera” 91. orr.: Hiztegian

BABA: “...dator artoa, dator baba...” 101. orr.

BERBEETA: hitz ugaria Peru Ab.:

- “Badirau bere berbeeta ak, ...” 131. orr.
- “oneek (tubaldarrek) ekarri eben euren berbeetea” 130. orr.

- “Euskerea zala berbeta au” ibid.
- “arteetan etzan munduan berbeeta bat baiño” 129. orr.
- BENTA: “eskribaua zain dago Benta baten” 135. orr.
- BEARGINTZA: “arrotasunez asi eben beargintza a” 129. orr.
- BARAILLA: “emen baraila, deadarra, auzkea ta nasaitasuna” 41. orr.
- BIZIERA: “... aututen dabeen bizieran” 59. orr.
- BASABERA: “basaberak esaten iakee txikar igon бага dagozan abe ta...” 132. orr.
- BATZA: hitz koposatutan:
 - “egin eben beste txoriak euren batzaarra, ta...” 123. orr.
- BRESKA: “erle goan nahia, ez zti ez breska”: 118. orr.; “erle” darabil bai-gorritarrak bere esaeran.

—D—

- Urriak dira D -z hasten diren hitzak Peru Abarkan.
- DONGA: amaiera ugazir aberastuta agertzen zaigu: “donga, Dongaro, Dongarik, Dongarorik, Dongakeriak, Dongeak, Dongakoak, Dongatzat, Dongaak. “-A” itsatidun atzizkien atalean adibide ugari jaso dugunez gero, hemen bat edo beste bakarrik:
- “baiña bildur, donga egiteti atzeratuten gaituana” 65. orr.
 - “burutaziño ta zaio donga orreek kendu egizuz” 105. orr.
 - “aize dongaz bete anadin” 30. orr.
 - “...ta dongeak atsakabea ta ikarea” 65. orr.
 - “... bere arrotasunaren dongakeria gaiti” 124. orr.
- DITXA: “... nire ditxa bagea” 44. orr.
- DENPORA, ALEGRIA: “apal-ondoan igaroko dogu denporea alegria onean” 70.
- DOMENTXA, KURKUBIETA: “domentxak..., Kurkubietak” 66. orr.
- DESBERGUENZA: “... ez zure desberguenza ta...” 24. orr.

—E—

- BOTIKA : “...errezeta bat egin, botika asko artu eragin...” 16. orr.
- ERREZETA : “...errezeta bat egin, botika asko artu eragin...” 16. orr.
- EGIA: “au” erakuslearekin: “egia au obeto arguitzeco”: ERACASTEAC 202. orr.
- EZGAUZA: “mai, aulki ta ezgauza batzuk egiten”: 104. orr.
- EZKONTZA: (“bat” mugagab): “etxeko kaltean dau ezkontzaren bat iaramon бага gurasoi”: 69. orr.
(zalantzazko hitzen atalean gehiago, VI. Atalean).
- “egia da zuen kapela...” 28. orr.; “Ze egia ederrak!”: 80; 100.
- EPAILLA: “ori epailla baten zer-egina da” 23. orr.; 24; 73; 55.
- “epailla ona” 24. orr.
 - “ill-epailla edo anatomiko ona” 24. orr.
 - “Ondo diñozu. Epailla ta arategia euren ganera artu...” 73. orr.

EUNLA: “tramankulua dauka eunla andreak” 99. orr.

- “eunla batek...” 95. orr.

ERRAKUNTZA: “Huna bada... bertze orrakuntzak”, dio Baigorritarrak: 118. orr.

ESAERA : “orri esaten iako euskeraz esaerea edo esakuntzea” 79. orr.

ESAKUNTZA : “... ta ori erea dan guztian” 17. orr.

ERA: “lapikoa eraz, ta urrean euki” 66. orr.

- “emen era ona eukita” 136. orr.; 104.

ESKERGA: “zilbota txito eskerga (enorme) ta urtena” 136. orr.; 17

ESKUDA

ESKUTADA : “... egiteko eskudak” 97. orr.

- “eskutadak dituguz gero orraztuten” 97. orr.

EZPATA: “ezpata oneen otsean...” 97. orr.

ESKUARA: (Baigorritarraren ahoan, beste guztietan” Euskera”):

- “gosta zitzaidan emengo eskuara aditzea” 118. orr.

EUSKERA : “... erdi erdera ta erdi euskera” 111. orr.

ERDERA

ESTOLDA: “estolda-aldea” 90. orr.

ERREGUTADA: “arto edo ogi erregutadak koipatsuaz” 39. orr.

Gazteleraz “R”-z hasten diren hitzak Euskeraz “E”-z edo “A”-z:

ERRUEDA: “Erruedea” 90. orr.

ERRETAILLA: “Erretaila luze orreek” 28. orr.

ERROPA: “Erropa oneekaz” 137. orr.; “Arropa”: ERACASTEAC, 201. orr.

ERRENTA: “nire etxiaren errentak” 44. orr.

ERRIOJA: “Bizkairik (sic) geienak Erriojara daroa dabena ta eztabena” 59. orr.

EIZA: “onela ongi datorkio eizari... eizaan ibilli oi dalako” 120. orr.

- “berori eiza-zalea da” 124. orr.

ESAMINA:

LOTSA: “ortarako igaro nituen iru esamiña kruel tribunale lotsa andiko baten” 19. orr.

ERROTA: “... zorroturik, daroe bolu edo errotara” 103. orr.

ELIZA: Kredoan “Eliza” darabil, besteetan “Eleiza”:

KATOLIKA • “Eliza Katolika...” 109. orr.

AMA • “Eliza Ama Santa guziakikoa” 111. orr.

- “Eleizakoak eragitera doaz norbaiti” 49. orr.

- “Eleizeak artuta daukazanak...” 28. orr.

ESKOLA

EUSKERA: Euskera ta Erdera, passim agertzen zaizkigu:

ERDERA • “zein ederto euskera berba egiten dozun eskolarik euki baga”. 49. orr.

- “... uri-barruetakoak erdera askogaz nastetan dogula euskerea” ibid.

ESPAÑIA, eta ESPAÑA darabiltza: “Euskerea zan antxinako España guztiko berbeeta” 130. orr. (Eusko iberismoa azalduz)

EZKONTZA: “etxeko kaltean den ezkontzaren bat” 69. orr.

ERIDA: “eztira ez orrelango eridak bedartxuakaz osetan” 33. orr.

ERIoTZA: “atera dot eriotzearen autzetati” 23. orr.

ERA: “adiuntzaz ta era onez edo asierati gatxari bidera urten...” 81.

- “abagadune txito erazkoa da illuntzeta ta apal-orduraino...” 104.

—G—

GAUZA: sarri agertzen zaigun hitza denez gero, hemen banaka batzuk bakarrik ipiniko ditut:

- “barregarritzko gauzaren bat...” 30. orr.: mugagab.
- “zuek iakin ezin ziñaian gauza bat” 128. orr.: “bat”-ekin
- “... gauza ez batzuk” 29. orr.
- “gauza on guztiak” 28. orr.
- “Gauza askoren...” 130. orr.
- “erri askok gordetan ebeela gauza bera” 132. orr.
- “gauza askotan...” 130. orr.
- “eztago nire etxean beste gizon gauzarik” 134. orr.
- “agindu guri al daigun edozein gauzatan” 91. orr.

-GURA: “-A” itsatsidun atzizkien atalean ikusi dugu:

- “... diru-gureak azi edo geitu” 21. orr.
- “... ta edangura ainbeste berbaren ondoren” 26. orr.
- “... ikusteko gureaz, ian-barri goseaz...” 62. orr.

GAILETA: “ekarri daigula gaileta baten ura...” 25. orr.

GAZTAINA: “... morokilla, eznea, gartzainak ta sagarrak” 29. orr.

GORULA: “gorulak gero dabee egiten aria” 99. orr.; 83.

GARRANGA: “au, garrangea” 91. orr.

GALDA: “lan au egin oi dabe eguzki galdatan” 98. orr.

GORABERA: “zenbait gorputzeko gorabera ta...” 103. orr.

GANBARA: “gari ta artoak daukaguz giltz бага ganbara zabalean” 58. orr.

GILTZERO: “ioake atera giltzera andrea” 63. orr.

- “ioan eztedin ara, etxe giltzerea. “O ze ikarea!””: 63-4. orr.

GELA: “bakotxa bere gelara” 74. orr.

GRAZIA: “Ave Maria, graziaz betea” 108. orr.

GALTZAILLA: “... ordi galtzailla bati” 33. orr.

GALDARA: “topiñak galdareari, ipur baltz!” 81. orr.

GORRISTA: “arpegi gorrista” 136. orr.

GARRAMA: aditz bihurtuta: “gero orraztuten ondo garramaduta” 97. orr.

- “gero dator garrameetea. Garramauta, gabikotu bear da” 94. orr.

“GERLA” esaten du Baigorritarrak: “gerlara ethorri ginean” 117. orr.; eta

“GERRA” M. Juanek: 116. orr.

Oharra: GAZTAE: ikus, “Amaiera Bereziak”, atal honen azkenaldean, “B) izen bereziak”. GILTZA: ikus, zalantzako hitzen atala: VI. ATALA.

-I-

- IMITXA: “Bentako imitxa guztiak ez nenduen iratzartuko” 75. orr.
 IZUNZA: “oneek, izunzak (sic)”: 96. orr.
 INKA: “... inkaren apur bagarik” 33. orr.
 IKARA: “ikara bageaz” 17. orr. “ezteust ikararik egiten” 45. orr.
 • “O ze ikarea!” 63. orr.
 IOSLA: “sartuten da iosla edo iostuna” 96. orr.
 • nomin. plur. -AA bikoteaz: “ioslaak artuten dabee...” 99. orr.
 IAGOLA: “Eliza-iagola abadeak...” 111. orr.; 83. orr.
 ILL-EPAILLA: “... ill-epailla edo anatomiko ona” 24. orr.
 IMINTZAILLA: “...andrakume azur-imintzailla...” 23. orr.
 IIELA: “lagunduten deutsee agoia su-azpiti ateraten Iiela ta gatzamailleak” 84. orr.
 • “lanak geratuten dira Iielearentzat” 84. orr.
 • “Iieleak esan gura dau iieztu edo irunduten dabela burdiñea” 83. orr.
 • “Ola-iielsak burdiña biribildu ta...” 83. orr.
 IALLA: “liña ialla gaisoak...” 98. orr.
 IRAKURLA: (arrotz kutsaketaz, amaieran): “nik ezin dot irakurlante andia izanik” 49. orr.
 ERACASTEAC -en ere -LA -z amaituta agertzen zaigu:
 ICASLA, IRACASLA: “iracasla obeagoak” dio, ez “iracasLE”; eta esaldia zuzentzerakoan hau irakurten dugu:
 “icaslA obeac”: ERACASTEAC, 214. 20, eta hutsa zuzenduta “Utsegiñen Zucenvidea”-n
 Ondo agertzen zaigu Bizkaieraren joera Mogelengan: -LA -z amaiturik, ez -LE -z.
 IZARA : “miesazko izararik” 34. orr.
 MIESA :
 ILLETA: “... auspoen illeta soiñu...” 87. orr.; 58.
 IAZOERA: “sagutxuen berbeeta ta iazoerak entzunda” 65. orr.
 IRRINTZA: “berlarluze baten irrintza estua dantzut” 50. orr.
 IRA: “atxurren, laietan, irabatuten”, 30. orr.
 IORRA: “... landara iorraan” 30. orr.
 IOAERA: “agurra... esaten dana sarrera eta ioaeran” 110. orr.
 SARRERA
 INDRISKA: “... meza entzutera iaiegunetan indriska ta edurra bada bere” 30.
 IRAZTRAMA: “iraztramaak” 96. orr. (las aspás del urdidero)
 IRAKASLA: “Iiela guztien iagola, irakasla ta burua”, 83. orr.
 IAGOLA

-J-

- JIRA: “eztot jira bat egin gau guztian” 75. orr.
 JERA: “... egiten deutsegu abegi, jera (xera = agasajo) ta...” 67. orr.

JITA: "lepoa makurra ta jita artua" 42. orr.

JAUNKA: "... enintzan jaunka zugaz egongo" 16. orr.

—K—

KARKARAXA: "oilloak karkaraxaz asteaz batera..." 76. orr.

KALTEGILLA: "gure kaltegilla ta arerioa bada bere" 49. orr.

KURA: apaiz eta abade izen oso arruntak izanik harritzekoa da zelan KURA darabilen. Herriko Parrokoari "Kura" esaten zitzaion, dirudinez. "ERACASTEAC" -en egileari buruz ari dela zera irakurten dugu idazburuaren azpian bertan, "Ateratzen du arguira Guiputz itzqueran..., DON JUAN ANTONIO MOGUEL, ta Urquizac: Marquinaco Cura, edo Anima-zaia": ERAC., Iruñean 1800. urtean.

- "gure erriko kureari entzun deusat..." 49. orr.

- "...Cura edo animazaiac...": ERACASTEAC, Itz-aurrecoa, XVI. orr.

Gure Juan Antonio Mogel Xemeingo Erretorea izan bait zen luzaroan.

KERELLA: "... doaz kerellak emotera" (nekazariak) 136-137. orr.

KURKUBIETA: "... domentxak, ... kurkubietak" (sagar muetak) 66. orr.

KORTIKA : "... ugarrik, zetakarik edo hortikarik ete daukan" 51. orr.

ZETAKA

KANKRENA: "-TZAR" atzizki handikariak: "kankrenatzar bat iaioko iako..." 33. orr.

KOPLA: "-TXU" atzizki ttipigariak: "Peru, artu dozu gogoan koplaxua?": 31. orr.

KOILLARA: "zurezko koillara bat ekarten ba-deuskue" 25. orr.: "bat" zenbak.

KULPA: "ze kulpa daukee beste gure opiziokoak..." 17. orr.

KEZKA: "eta kezkarik euki eztagizun, neu aituko naz erriko kureza" 137. orr.

KURA (abade)

KORTA: "eldu zan korta batera azeri bat" 55. orr.

- -A + -E = -EE eginik: "idiak korteetati atera ta salduten" 136. plur.

KARTZELA: "... kartzelan burua ikustez..." 136. orr.; 134.

KERELLA: "emon dau kerellea" 134. orr.

KUTXA: "... gorde zituala kutxa ontzi moduko baten" 129. orr.

BIZITZA

KRIATURA : "... bizitzea eukeen kriatura guztiak" 129. orr.

KALTZA: "-erdi" atzizkia hartzerakoan berezko -A galdu egin du:

- "ezta zer eskatu iakerik, ez kaltzerdi, ez abarka..." 82. orr.

KONBITA: "errazoa da neuk ekartea konbita" 55. orr.

Oharra: KATE, ikus "Amaiera bereziak", atal honen azken aldean.

KANPAE: ibid.

KONPIANTZA: “¿zer?; eta egiten dozu egun bat bere konpianza-apur bat ezteutsuen etxean?” dio M. Juanek Praiska Bentako neskameari: 40. orr.

KANTIKA: “... Baigorritarren kantika” 117. orr.

KUMA: “... oillanda ta usakumezko erria”: 72; eta esaera zaharrak, aintzina mintzaira azalduz: “erroiaren arrautzak, usakumerik ez”: 80.

- Zar. eskuidatzian ere “usakumezko erria” datorkigu: 81. 17; eta “erroiaren arrautziac, usacumeric ez”: 90. 13., ibid.

Esaldi hauetan -E-z amaitutakotzat agertzen zaigu. Gaurregun ere Munitibarren, Markina ondoan, “txori kuma”, “kuma abija”, “etxeukak kuma(r)ik” esaten dute

- Azkuek, “kuma” = *cria* (B, m...): *Dicc.* I, 507.

KOKADA: (eructo, regüeldo): “ez nuke kokadarik egingo”: 88. orr.

KLARETA: “txakoliña, klareta ta naparra”: 73.

—L—

LEIA: “alkarren leian” 96. orr.

LOTSA: “... kruel tribunale lotsa andiko baten” 19. orr.

LANDA: “... iakin egizu deritxola ‘Landeta’ landa eder baten dagolako”, hau da Perun baserri izena: 47. orr.

LEZA: “... euren abia edo leza-zuloetara” 72. orr.

- “... leza ilun ta eskutukoetati...” 154. orr.: “M. Tulio Ciceronek Catilinaren kontra egiñiko bigarren berbaldiaren aurrena”-n.

LUKAINKA: “ondo etorriko iakoz lukainka-adar bi” 40. orr.

LUMA: “... ez begiratu lumara” 80. orr.

LAKA, MENDA: “eio-ondoan, bere laka edo mendea errotariak artuta...” 103.

LANDARA: “zutinduten dira landara gazteen orri samurrak iaateko” 71. orr.

LANGA: “beiak sartu dituzue langa arteko zizkuetan?” 70. orr.

LAPURRETA: “lapurreta gitxiago egingo dau emendi aurrera” 47. orr.

LANDETA: “... Landetako baserrian”... 73. orr.; 57.

LASTAMARRAGA: “bat” zenbakiarekin: “lurraren gaiñean lastamarraga bat estalki zantarragaz” 86. orr.

LAMA: “... izerdi lamatan” 98. orr.

LABA: “daroe (ogi ore) labara” 103. orr.

LANTZA: (lanean ari): “hekien etxeetan lantzan ari” 117. orr.

LUMA: “luma bat baga”: 123. orr.

- “emon eutsezan luma alik onenak” (mozoloari) 123. orr.

LARRA: “... larrako belar-zalea... eskatzen du (sic, Kiputzaren ahotik) larran ibiltea...” 121-122. orr.

- 1881.eko argit. baditu aldaketa batzuk: “belar”-en ordeztu “beDar” irakurten dugu, eta “larran” (-A batez) barik “LarrAAn”: 176. orr.

LORA: “andiki askoren alabak loraz ta bitxiz beteta...” 29. orr.

LAIA: “Laiak”, 100. orr.

- “Laietan”, 100. orr.

—M—

MINBERA

GUPERA : “aragi minbera ta guperak bide daukazuz” 39. orr.

MENTURA: “... menturaz ezagutu ta...” 137. orr., 48.

MEA, BURDINA, OLA: “ikatzak olara eroaten, errenterietatik mea ekarten, burdiña bera eraasten” 85. orr. = “meategia”, 91. orr.

MATRAILLA: “... matrailla-alboak gizen-gizenak” 136. orr.

- “matrailla-alde aek e-ztagoz...” 136. orr.

MENDA

LAKA : “bere laka edo mendea errotariak artuta...” 103. orr.

LAKA

MUETA: “egin oi dira batzuetan iru ogi mueta” 103. orr.

MATASA: “matasarako bear da itxoroskia” 99. orr.; 95.

MAZURKA: “areek, mazurkak” 96. orr.

MEA: sarri agertzen zaigu hitz hau burdiña oleetako gora beherak azaltzera-koan:

- “Mea” 91. orr.
- “io bear dau mea ta zaindu lapikoa” (gatzamailleak) 86. orr.
- “Mearen errauts ta loikeria” 89. orr.

MIESA, MILIKA, BUPERA: “gizonaren milika ta buperea! Zer gura zenduke, Miesa utsez egiña?” 77. orr.; “Miesazko izararik” 34. Garai hartako baserritarren apainduria ezagutzeko, horra hemen soineko batzuk:

MARRAGA, PRAKA, ABARKA: “praka odolestuak, abarka ta dagokazan kaltzerdi marragazkoak ta buruan txapela” 77.

MISPILLA: “mispilla ta intxaurrak, okaran ta madari” 62. orr.

MARATILLA: “eztago ez itxirik guretzat maratillarik” 63. orr.

MISIONISTA: “eztot nik zuek legezko misionistarik entzun” 65. orr.

MENBRANA: “... kutisa, kutikulea ta menbranak” 52. orr.

MEZA: “meza nagusira ioateko...” 60. orr.

MARIA: “Mariaren ipuin...” 61. orr.

- “Maria gurea goruetan bear eztan orduetan” 80. 22

MASUSTA: “masusta txikarra” 132. orr.

MODA: “moda-modara iantzia” 133. orr.

MARKA: (“bat” zenbakiarekin, mugag.): “nire arpegiko markaren bat...” 134. orr.

MAKILLA: “makilla бага...” 34. orr. (Hitz hau VI. atalean ugariago).

MUGITA: “... soloa dagoan laarrez, mugitaz, azkiz... beterik”: 139. orr.

—N—

NESKA: passin dakurgu: “enaz ni neskea, neskatilla utsa baiño”: 24.

NESKATILLA: passim: “neskatilla ona daukazu”: 47; “neskatilla ixilla

dirudi” 47; “neska zantar, jausi ta...” 60; “neskatilla onek... 68; “neskatilla batek” 68; “neska atera...” 24; “neska batek” 24; *passim* (ikus. II. Atala: eta VI.)

NEBA: “... bere nabaakaz”: 68.

NOTIZIA: “notizia oneek” 131.

NARDAKEA: 90 orr.

—O—

ORA, BURRUKA: “ala zelan dabiltzan burruka (sic) oratzarragaz zuzendu ezinik” 89. orr.

OBA: “andikiak baiño bizitza obea daroe” 136.

OSAGILLA: “Barberu edo zauri-osagillaren baten premiña бага” 21. orr.

OLA: sarri datorkigun hitza da: “dakustanaz gau ta egun dabil olea” 86.

- “nun ilten dira oletan baiño zezingei...?” 87. orr.

- “andikiak eurak datoz nozbait olara” 87. orr.

ORMA: “gabiaren ots, ormaak ikara iminten dituanak” 87. orr.

ORA: “zakurra”, ez nahastu goragoko “ORA”-rekin = masa: ikus ondorengook

- “artzain txakurrei esaten zaie artzanora” 121. orr.

ORA: (masa): (“bat”-ekin): “... geratuten da ora bat eginda sutegian” 89. orr.

- “... ezarri bear iako ogi-oreari” 103. orr.

ONTZA: (egazti): “ontzari ez begiratu lumara” 80. orr.

- “ontza” 126. orr.; 123.

Ondorengo honekin nahastu behar ez duguna:

ONTZA: (dirua): “lau ontza aketirenak, lau lauko...” 42. orr.

OILLANDA: “eztogu ez oillandarik, ez eperrik ian” 42. orr.

- “Landetako baserrian... oillanda ta usakumezko erria” 73. orr.

OTA (árgoma): “ota - sostrak” 102. orr.

ia denak hitz konpos. dira eta ez da garbitu auzia, nahi bezala).

Azkuek, “ot4” = Bc “dio”: *Dicc.* II, 142.

- “otea” 132. orr.; “ota-maru” 132. orr.

- “ota atxurra” 100. orr.

OTA (cama de las gallinas): “oilloak... egur-gain edo otaan” 121. orr.

OTA-EPAILLA: beste Euskalkiek “EpaillE” egiten dute; baina Mogelen idazkerarik arruntena ikusirik sail honetakoa dela dirudi!

- “luebagiña ta otaepaillea da” 106. orr. (irakur 27. orr. esana)

OTZARA: “gero isten ditue otzaran kukustuta” 94. orr.

OKELA: “platearean ateraten dira aza ta okelea” 25. orr.

- “ze okela-plaga da au?” 29. orr.

- “okelatatzat ipiñi iaku aketirenaren aragi gazitua” 29. orr.

- “platearean ateraten dira aza ta okelea”: 25. orr.

ORMA: “orma-bedarrak gozatuteko...” 33. orr.

- “... ormaak ikara iminten dituenak” 87. orr.

OLGURA

BIZITZA : “... daroan bizitza olgura ta gozo andikoa” 103. orr.

OLGETA: "iru bat ordu olgetan soiñu..." 98. orr.

- "lenengoan olgetan giñen..." 65. orr.

OPA: "eztakizu etxakola iñori gatzik opa bear...?" 49. orr.

—P— —F—

PRANTZIA: berezko -A ondo zaindurik: "Prantziara, dio Baigorritarrak, enuen joan nahi" 116. orr.

- "Prantzian ta Españian...": ibid.

FAMILIA: M. Juanen ahoan "F"-z ipintzen digu Mogelek: "brindo zure ta familia guzti onen osasunerako" 74. orr.

PUSKA: "ogi-puska bategaiti..." 58. orr.

FABRIKA: berriz ere M. Juan mintzo zaigu "F" soinuaz hasirik:

"da emoteko Jaungoikoari esakerrak ikusirik fabrika ain ederra" 51. orr.

PORTUNA: "erakusl. lotuta: "alegretan naz eukitea zuek esagututeko portuna au" 106. orr.

PRAKA: "praka odolestuak..." 77. orr.

PIZTIA: "... txakur urriñeti igarten deusana piztia asko iakin ta..." 72. orr.

- "zapoa bere esaten deusagu piztia atsitu zapalari" 60. orr.
- "piztia zital oneek" 125.

PIZTA: "... piztaz ta bakarrez beteak" (begiak) 40. orr.

PENA: "... soñuez emoteko pena lazgarriak" 98. orr.

PODAINA: "podaina" 100. orr.

PERTIKA: "pertika" 100. orr.

PLAGA: "ze plagak zirikatu nenduan...?" 134. orr.

PLAGA: "botako zendukedaz plagearen etxera" 40. orr.

- "Ze okela - plaga da au?" 28. orr.

PAMA: "pama guztia" 17. orr.

- "pama geiago euki" ibid.

PREMINA: "premiñaz da ezin bestez baiño" 15. orr.; 70.

PIESTA: "... zuen berbeeta piestaz legeaz esana" 65. orr.

PUSIGA: "pusigea edo garnuontzia" 54.

POPADA: "popadea" 54.

PUSIGA: (enredador): "da ordi pusiga etxe guztia ondatu dabena" 33. orr.
ikus beste adibide batzuk II. Atalean: "Berezko -A" dunen Deklinabidea", batez ere.

—S—

SAMA: "... sama, beso edo gorputzean" 125. orr.; 72

SALDA: "makallao-saldea artuta..." 136. orr.

- "... ze salda daukagun" 73. orr.
- "... gorrituriko saldaak..." 73. orr.; passim

SANGRIA: "lenengo egin bear dana da sangria bat" 44-45. orr.; 45.; 18.

SONA: “dira sona, dulabre ta askotakoak” 100. orr.; 123.

SARDINA: “sardiña ustelduak ianda” 136. orr.;

- “katuak daroan sardiñeari, oratu egiok” 81. orr.

SARRERA: “... lenengo sarrean...” 115. orr.; 110.

SOLDATA: “... soldatea artuta, ioan zakioz etxeti” 40. orr.

SERBILLETA: “serbilleta oraingoen ordean... aus-zapi edo marrats bat” 25.

SEME-ALABA: “nun dira zure seme-alaba ta otseñak?” 78. orr.

- -A + -E = -E: “seme-alaben lotsa onak ta...” 67. orr., (plur.)

SAKA: “gizon sakatu ta eroapen andikoak” 31. orr.

SALSA: “Peru, zuk aituten dituzula berba salsa ta gatx orreek?” 109. orr.

SOSTRA: “ota - sostrak” 102. orr.

SARDA: “Sardea edo simaur batzailea (sic)”, 100. orr.

—T—

TRESNA, ERREMIANTA: (sarri agertzen zaizkigu hitz hauek, eta gehienez elkarren ondoan): “... emengo zirkulu, tresna, erremienta ta ikuskitunak” 89. orr.; 100; 96; 95.

TEMA: (Dema): “... etzeunskioe irabaziko temarik nok obeto egin” 20. orr.

TXAPLATA: “iminiko litukee txaplataxuak, ta eraatsi...” 20. orr.

TABERNA: “batuten zirean tabernetan ta nun-nai” 16. orr.

- “tabernarik taberna dabil” 33. orr.

TXITA: “... txori ta txitatxuak atrapetako” 126. orr.

TXIMITXA (= IMITXA: hau, bigarrena, darabil gehienetan): “tximixa edo Imitxea da tximurtxi edo imurtxi egiten dabelako” 125. orr.

- “Imitxa”: 75. orr.

TOLARA: (“Dolare” Euskalki batzutan): “eztago ikusi baiño zeinbat tolara topetan direan...” 61. orr.

TANTA: “... ez izerdi-tanta ta bero asko...” 84. orr.

TXIRRINGA: “onako au, txirringea” 96. orr.

TXANTXANDURA: “txantxandurea aurrez eginda ezarri bear iako ogi-ORA oreari” 103. orr.

TRANPA: “burni-tranpa paratuta...” 113. orr.

TERREINA: “bat” zenbakiarekin: “Praiska... ekarri egizu gero terreña bat” 45. orr.

TESTIGANTZA: “neskatilla serbitzari baten testigantzea ezta asko” 48. orr.

TRENZA: “buruko ule-trenza...” 40. orr.

TXARRANTXA: “txarrantxea deritxon orrazi askatuan...” 98. orr.;

- “txarrantxariak ditu txarrantxan iminen kukutsak...” 99. orr.

TOBERA: “Toberea” 90. orr.

TXURINGA: “txuringea” (esfinter): 54. orr.

TOPINA: (-A berezkoduntzat hartzen duela Moglek, uste dut):

- “topiña” 91. orr.: “marmita”, artik, gabe erderatu du Azkuek
- “Topiñak galdareari, ipurbaltz” 81. orr.

- -A + -A y6 -EA eginik: “neskatilla, ekarri egiguzuz topiñean kusi ditudan arbi, aza...” 25. orr.

Azkuek ere horrela hartzen du: *Dicc.* II, 284. orr.: “topiña = marmita”. Baina, “topin ona beti izaten da”, dakurgu: 59. orr.; 1881. ekoak 93. orr.

—U—

URLIA: “... ezkontuteko itunduta dagozala urlia mutillegaz” 69. orr.

UARKA: (catre): “eztozu ikusiko ez uarkarik, ez...” 86. orr.

UGAZABA: “neskatilleak esango deutsa ugazaba — andreari” 30. orr.

- “... ez ugazabak dabeen guztiti” 72. orr.

USA: “... inguruan usa edo erribasuak” 71. orr.

ULE-TRENZA: “ule-trenza” 40. orr.

URTZAILLA: “dira lau beargin: Iielea, Urtzailla bi, ta Gatzamaillea” 82. passim.

URAGA: “Iieleak bere uragiaz (sic) darabil gabia” 84. orr.

- “r” gabe: “Uiaikia edo uagea” 90. orr.

—Z—

ZETAKA: “zetaka gorrituak agertuten...” 125. orr.

- “... oneen obrera baltz ta esku zetakatuak ikusi arren” 88. orr.

ZALGA: “... zalga ta bedar txar guztia” 102. orr.

ZEPA: “... urten bear daben zepa- geiari...” 89. orr. (escoria)

- “geratu iakozan loiak, zepa ta txatarrak” 84. orr.; 89

ZIRIKA: “ez ardi, ez imitxen ziridak” 34. orr.

ZAUNKA: “... ezeban zaunka aserre usaiñekorik egingo” 57-58. orr.

ZAPATA: “... zeure zapata batzuk...” 60. orr.

ZAUNKA: “...txakur- zaunka da” 57. orr.; 58

ZERRA: “zerrea” (sierra): 104. orr.

ZARA: “zaraak” 91. orr.

ZAMA: (-ARI atzizkiarekin): “zamaria da zamatu (edo batzuen berbeeta txaarrean) kargauta doana” 128. orr.

ZURDA: “zurdaak” 53. orr. (crin, cuerda de crin)

(“abe bateti esegita beste orakarririk ezeukana, ezpada zaldiule edo zurda eten-erraza”: Juan Ant. Mogelek euskeratua, Latinetik: “Gizon dongeen biotzak zaurituten ditu barruko arrak”: PERU ABARKA, 1970eko argit., 55. orr.) (1).

ZEPA-AMEA: “Zepa-amea”: 90. orr. (pieza donde apoyan los postes del martillo pilón).

(1) *Oharra*: Ondo dakigu Atal honetan ez zaizkigula agertu Lehenengo Atalean ipinitako “A” itsatsidun hitz guztiak. Beste Ataletan ematen dira, Atal bakoitzak bere berezitasuna bait du.

II. Amaiera bereziak

A) Deklinidearen amaierak

1. -A + -A = -A (-A bat bakarrik): arautzat hartzen den era.
2. -A + -A = -EA: Bizkaieraren amaiera arrunta, zaharra eta Mogelena.
3. -IA + -A = -IA.

-IA -z amaitzen dira: • izen arruntak: anaia, abia, egia, notizia, pamilia, piztia, idalgia, arotzia, ...

• Atal berezia eskeini diegun -KERIA, -ERIA, -TURIA, -DURIA atzizkidun hitzak: iakitura, apainduria, zikinkeria, errenteria, alperreria..., Barberu “eskolauak” darabiltzan izen teknikoak: anatomia, osteolojia, justizia, zirujia...

- Izen propioak: Maria, Prantzia, Espaiña...

ANAIA: “O neure anaia!” 62. orr.

ABIA: “... euren abia edo leza-zuloetara” 72. orr.

AROTZIA: “ze erremienta bear da arotziarako?” 104. orr.

“... ikasi neban arotzia, neure anaia nagusiagoak etxaguntza au eroango ebalako usteaz. Ill (sic) iatan anaia a.” 103-104

ANATOMIA: “aek (aintzinako Barberuek) ezekien Anatomiarik, nik bai” 23. orr.

- “zer da Anatomia dontsu ta izen ospe andiko ori?” 23. orr.

ANJEOLJIA: “Anjeolojia, ta au da erakusteko zer direan “basoak”, zeinbat eta ze usutarako”: 50-51. orr.

ALPERRERIA: “eztakigu emen alperreria zer dan” 76. orr.

APAINDURIA: “etorri ezpaziña ainbeste soiñeko bitxidun ta apainduriaz...” 43. orr.

PIGURERIA: “pigureria guztiak gura ditue” 18. orr.

PIZTIA: “... igarten deutsana piztia asko iakin ta malmutz onen urebiltea...” 72. orr.; 128

- “... zelan abere, piztia, giberri ta egaztiak daukeezan...” 130. orr.

SANGRIA: “orra sangria eginda” 45. orr.

- “egizu laster sangria egingo dozuna...” ibid.

- “zer daki medikuak guk baiño geiago noz egin bear dan sangria?”: 21. orr.

ZIRUJIA: “asko aurreratu da zirujian” 17. orr.

LOIKERIA: “.. au da mearen errauts ta loikeria...; urten dau gaiñeztu iakon loikeriak” 89. orr.

DONGAKERIA: “... bere arrotasunaren dongakeria gaiti” 124. orr.

“El cierre en -E (Bizkaieraren -EA, alegia) no se produce en los temas en -IA ni (al menos en los primeros textos) en los en *-INA, que estaban aún en la fase -ia”: LUIS MICHELENA, *Fonética Hist. Vasca*, 114. 5. 4 (1).

“baiña bai egia garbiak esan” 19. orr.

• “ondo diñozu, ta egia esango badetsut, ...” 27. orr.

• “... egia esateko...” 73. orr.

B) Izen bereziak

1. Peru Abarkan agertzen zaizkigun hitz berezi batzuk merezi dute aipamenik, sakonki begiratzeko badiogu, gure gaia ukitzen bait dute: Gaztae, Bigae, Kanpae, Kate (kataa, katae, katea), (kanpaa, kanpai), (gazta, -aa).

Gaur darabilzkigun eran ez dirudite “berezko -A” dunak; baina hitz berauekin osatzen ditugun hitz konposatueta berealaxe ikusten dugu -N bat agertzen zaigula, hitz hutsean erabilten ez duguna: GaztaNbera, BigaNtxa (biak Peru Abarkan agertzen zaizkigunak), KanpaNdorre, KateNtxu, KateNbegi. Gure klasiko zaharengan -N hori agertzen zaigu, batzutan. Bestalde, Oiñatiko eta Munitibarko adineko baserritarrengandik entzun izan dut, noizean behin, holako “-ea” luze, edo “-aëa” antzeko zerbait, erdi bokal, erdi sudurrez ahozkatua.

Zer esan? Hitz haue, eta antzekoak, latinaren maileguak ditugu, batzuk; bertokoak besteak. Bokalarreko -N galdu egin dute, naiz eta hitz konposatueta birragertu; horrela sortarazi digute bokale elkarketa berezi hori -AA, -AEA, -AIA, -AI, -AE. -N galdu zenean sudurrez ahozkatuko zituzten azken-bokalak. Gaur galdu dugu hots hori ere, eskualde gehienetan.

Horra zer digun L. Mitxelena:

“Las palabras en *-ANA no son abundantes, pero permiten llegar a conclusiones seguras. Tanto el vizc. ant. como en el dialecto meridional debieron hacer el nom. indeterminado en -ãa y en -aëa el nom. sing. De aquí pudo llegarse con facilidad a un tema en -ae (-ae), de donde -ai, como si se tratara de Nombre en -ane.

Eta beherago:

“En el caso que se acaba de citar no caben dudas acerca de la forma primitiva, lo que nos da luz sobre ejemplos de pasado menos conocido...

“... (“gazta, gaztae” aitatuz honela jarraitzen du)... apunan inequívocamente a una contracción subsiguiente a la caída de una nasal intervocálica: la base primitiva se puede reconstruir como “* gaztana”: L. MICHELENA, op. cit. 15. 7. 6

(1) Oharra: “-IA” -z bukatukato hitz batzutat (“anaia, egia, piztia, abia, abab.) irakur argitasun gehiago VI. Atalean.

Eta “Bigae, Bigantxa”-ri buruz: ikus, ibid. 145-146. orr. Orduan, * gaztanak “gaztāa, gaztaēa, gaztai” eman dizkigu historian zahar; * Bigana-k “bigae, biga, miga”, (“bi”-kin loturik dagoen esanahia); * Kanpana-k “kanpae, kanpāa, kanpaēa”.

Hor ditugu Peru Abarkako adibideak:

KANPAE: “kanpae otsa dozu barriz” 49. orr.

BIGAE: “daukaguz bigae bat, bigantxa bi” 70. orr.

GAZTAE: “... gaztae, gaztanberea, brujakea” 121. orr.

- 1881.eko argit. “gaztaia” irakurten dugu: 176. orr.
- 1970. argitaldian “gaztaea” dakurгу hiztegiari: 126. orr.

• Eta Katea / Kate, Khatiaña?. Goikaldean aipatutakoen bide bera egin du gaurko “Kate”-k ere: bokale arteko -N nasala galdurik lehenbizi; bokale ondoko -A desagertu da gero (katena / katēa / kate). Nahiz eta, gehienetan, hitzen amaierako bokalek nahiko ondo zainduta iraun, beste hainbat hitzetan egia da Mitxelenak dioena, “la pérdida de “-A” es, puede decirse, regular detrás de vocal”: L. MICHELENA, op. cit. 132.6.4 (-duria/duri, -keria / keri, katea/ kate, burnia/ burni)

KATE: “kateiak” 90. orr.: “KateA”-tik sortua dirudi, artik. hartu duenean -I agertaraziz.

- “area bere gia-kateaz” 100. orr.

Zera irakurten dugu beste honetan: “damu artu Manases batec becela catea artean ofenditu dualako Jaungoiko ona”: ERACASTEAC, 169.2.

“Es de señalar la tendencia vasca a dar la determinación -ENA, -INA, de donde -EA, -i(ñ)a (en cultismos recientes también -ina), a préstamos que en latín tenían -inem, o en romances -en, -en, -in”: L. MICHELENA, op. cit. 146.7.7; 132; 239; 301.

- (“Kataiak”: “etxabolako kataiak...”: esaldi hau neronek entzun nien, bi aldiz, oraintsu, bi andrari eta gizon bati Aretxabaletan, elkarritzetan ari zirela): 1979eko maiatzaren 8an).

Bokale arteko -N sudurrezkoak, gorde delako batzutan, galdu delako bestetan, bere arazo eta eztabaidak sortarazi dizkio euskerari; auzia ez da gaurkoa. XVI.en mendeko klasikoak ondo ohartu ziren horretaz, sudurrezko silaben arazoaz, alegia. Baina, idazterakoan, ez zuten ezaupide edo marra garbirik erabili -N-ren aurreko bokalaren gainean; batzutan bai idazten zuten, bestetan ez: arau garbi bat ez zeukatelako.

Hara zer esaten diguten P. Madariagak eta Garibaik:

“escondida entre las narices (ahozkatu behar da -N), como en “oracioa, Ardaoa”, y para denotar aquella “-N” se debe sobreponer una cifra de esta

manera a modo de nariz: “Mitxelenak aipatua bere” *Fonética Hist. Vasca*-n, 48. orr., 1.2.

Eta Arrasatetar Garibayk, argi eta garbi bereizten ditu “mihia” eta “mina”, esanez:

“Aquella dición “miña”, que significa lengua, se ha de pronunciar algo con las narices, supliendo la “n” de la tilde con ellas, cosa muy usada en esta lengua en muchas dicciones, porque si se escribiese con la “n”, diría “mina”, que significa “dolor y amargura”.

Eta berriz: “... Arrayna” se ha de pronunciar con las narices sonando la “n” de la tilde, porque “arrania” no quiere decir nada, y “arrayna” significa “pescado en general”: ibid.

Gure Toponimiak ere argitzen digu bokale arteko -N sudurrezkoaren galtzearen arazoa, eta hortik sorturikako bokale iokoa:

- “Lazkao” esaten dute bertakoek, ez ofizialki irakurten dugun “Lazkano”; berdin “Sopela/ -laa” / Sopelana. Zergatik orduan esaten da “Etxano”, -N - eta guzti, (Zornotza alboko Herria)? Erdi aroan “Eganno”, 2 “-NN”-ez alegia, dokumentatzen da, -n bata galdu arren, bestea gorde egin du. Izen “ofizialak” hobeto zaindu dute N Herriak baino; berdin gertatzen zaigu beste honetan ere: Herriak “Aramaio, Aramayo”, ofiz. “Aramayona”. Herriak duen ohitura hau “corriente” dio Mitxelenak: op. cit. 300. 15. 2.b.

Beste hauek ere gogora ditzakegu: “Galdakao, Zestua, Sestao, Laukiz denek galdu bait dute bokale tarteko -N-.

2. “Arraa”: Bi aldiz agertzen zaigu hitz hau Peru Ab.:

- “Ezta Bizkaian arraa bete lur alperrik galduta” 86. orr.
- “Eskutur bakotxa iragoten da arraa batean lodieran” 136. orr.

Hitz honen, eta kidekoen deklinabideaz, hara zer dioten K. Mitxelenak: “El vizc. tiende en cambio a presentar -E en los pocos temas en -AA, nom. sing. -AEA” (Arra / Arrae / “Marquina: Arraaa” ‘op. cit. 129.6.2; eta orri barrenean dakarren aipamena izen honen arabe? jatorriaz.

“Nomenclatura”-n “ARRAIIA” dakurgu: PERU AB., 1881, 222. orr.

IV. ATALA

“-AA” BIKOTEDUN HITZAK PERU ABARKAN

1. Sarrera

1. *Azken bokaleak*

Euskal hizkuntzaren hitzen amaierako bokaleak aztertzerakoan, zera ondo bereizi behar dugu: hitz soila, eta hitz konposatua; hau da, hitz sailaren amaierako bokala, eta lehenengo zatia amaiera hitz konposatueta. Hitz konposatu eta deribatuetan elkar loturaren eraginez, bokalak aldatu egiten du, sarritan, hitz soilean zeukan hots fonetikoa; edo eta aldaketa nabarmenak ere sortzen zaizkigu hitz konposatueta, hizki bat, edo gehiago, zeharo desagertu edo aldatu egiten bait dira: adibide ezagunak jarriko ditugu: artile; Abeletxe; Oillarra; Betule; Amori; Egarri / egarbera; Arri/ arlandu; Baso/ basabei... (Ikus, LUIS MICHELENA, *Fonética Hist. Vasca*: 6.en Atala “Vocales Finales”, eta 5.ena “Vocales en Hiato”; eta passim).

Garbi dago oharrok gogoan eduki behar ditugula “-A” berezkadun” hitzak arakatzerakoan, erdi-erdtik heltzen bait diote gure gaiari. Aldaketa hauek ugariak eta arruntak dira.

Askoz errazagoa da hitz soilaren azken bokala gordetzea hitz konposatuarena baino, “En final de palabra, dio Mitxelenak, las vocales se han conservado por lo general”: op. cit. 131.6.4.

Baina zalantzarik ez zaigu palta hitz konposatuak, deribatua, nahiz deklinabidea, nahiz sandhi dela eta, etab., arakatzerakoan.

Bokaleen aldakortasun honek beste aukia dakargu gogora, guk hemen ukitu bakarrik egingo duguna: euskal bokaleen mugiezina edo finkadura nolakoa da? tinkoak ala koloka eta aldakorak dira? Gaiari, zabalera larregirik eman gabe, aipamen batekin erantzungo diot:

“Lo que sabemos de la evolución de las vocales vascas, esaten digu K. Mitxelenak, puede resumirse en dos rasgos, contradictorios a primera vista. Muestran por una parte una gran facilidad para modificarse por influencia de sonidos vecinos, y, por otra una fijeza no menos grande, ya que no parecen haber sufrido cambios profundos y generalizados, análogos a los que nos son familiares por ejemplo, en la historia de las lenguas románicas”: “op. c. 50.1.3

Hitzen amaieraren arazoak ondo garbitzeko premia dugu Euskalkiak eta Euskalkien historia ezagutzea, bakoitzak bere aberastasun eta berezitasun sakonak bait ditu. Hitzen lehenengo silabak hobeto zaindu dituzte Ifaraldeko Euskalkiek; “h” aspiratua gorde dutelarik, aspirazioak galera

bait du silaben uzkurdura edo laburpena. Amaierako silaben auzia erabakitzeke ordea, Euskeraren beste muturreko Euskalkia, Bizkaiera, arakatu beharko da. “Para el final (hitzarena, alegia), cuando éstas eran largas, cuentan sobre todo algunas variedades vizcainas, como la de Marquina o la de Oñate”: L. MICHELENA. op. cit. 372.19.1.

Hitzaren bukaeran errazen galtzen den bokalea -A dugu; arrazoin bat ezaguna da: hitzaren berezko -A eta artikularen -A, berdin izanik, bata bestearengandik bereiztea ez da gauza erraza izaten; hortik sortzen dira zalantza eta nahasketak, Gipuzkera hitzunengan batez ere, Euskalki horrek ez bait du bereizten, “-A” itsatsidun hitzetan, nom. sing. mugatu eta mugagabea. Grafikoki esanaz: -A (hitzak berez duena) + -A (artik.) = -A bat bakarrik ematen du Gipuzkerak. Adibide ezagun bat bakarrik ipinirik: “Alaba” = hija, eta “la hija” = “alaba” berdin egiten du. Bizkaierak ordea, ondo bereizten du bakoitzaren berezitasuna, Euskalki honek duen deklinabide iokoari esker: -A + -A = -EA: “alaba = hija”, eta “Alabea = la hija”; gauza / gauzea (ikus gorago, “-A” itsatsidunen Deklinabidea”: II. Atala).

2. Bokale elkarketak

Euskaraz sarri elkartzen ditugu bokale bi, edo gehiago, arrazoin ezberdinagatik: deklinatzerakoan, kontsonanteren bat galdu denean, aditz iokoan, hitz konposatuetan, etab.: gela, baina geleetan; ate / ataarte (edo Etaarte metatesisaren bidez); etorten dira / etorten direnean; guraso / gurasoei.

Hiato arazo hauek hamaika taxuketa, elkar kutsaleta, bokale aldaketa eta zalantza sortarazten dizkigute. Eztabaiden iturburuak ez dira berdinak Euskalki guztietan.

Bokale elkarketak “se producen principalmente en los siguientes casos:

a) En composición y derivación, cuando el primer miembro acaba en vocal caduca y el segundo tiene inicial vocálica, primaria o secundaria.

b) En la declinación determinada: dado el orden invariable” tema nominal + artículo + suf. causal”, hay encuentro siempre que el tema termine en vocal, pues el artículo en época histórica es “-A”.

c) En la conjugación, al agregarse los sufijos -EN (-an), -ELA (-ala), de “pasado”, “relativo”, etc., a una forma verbal finita acabada en vocal.

d) En interior de tema nominal o verbal a consecuencia de la caída de una consonante intermedia: los ejemplos más claros son los que resultan de la pérdida de * N”: L. MICHELENA, op. cit. 109. 5.1.

Atal honetan Peru Abarkako -AA bikote edo jeminatuak aztertuko ditut: A: -A itsatsidun hitzen deklinabidean agertzen zaizkigunak beste silabetakoak: hitzen hasieran eta erdian, eta aditz iokoan datozkigun. -AA bokalebikoteek ez dute zer ikusirik “Berezko -A” dunen auziarekin. (“Laakoa”:

101. orr.; “laatroa”: 104.; “iaana”: 102.; “aardiak”: 54.; “aaxea”: 100.; “artaadi”: 71.; “iaaki”: 29.; “batzaarra”: 123.; “eskaari”: 28.; “zoraasuna”: 115.; “obaasuna”: 1881.eko “Nomenclatura”-n.

“artzaatu”: 102.; “galbaatu”: 103.; “esnaatu”: 87.; “iraatsi”: 137.; “eraatsi”: 84., 85., 128.; “iaateko”: 30., 56., 71., 72., passim; “edaari”: 52.; “edaten”: 30.; “iaazteko”: 101.; “daantzut”: 31.; “baantzut”: 79.; “laandu”: 1881. argit. Nomenclaturan.

A) Markinaldeko bizkaiera

Markinaldeko idazleak irakurtzerakoan zerak izten du zurtuta irakurlea: bokale elkartuen ugaritasunak: -ea, -ia, -ija, -ije, etab. alde batetik, eta -AA bikoteak bestetik, Gai honetan Peru Abarka argibide edo ezagugarri ederra dugu.

Markinaldeko Bizkaiera ezagutzen duenak laister ikusten du Mogelen idazkera ez dela ohitura pertsonal hutsa, garaiko bere inguruko Herriarena ere bait zen. Maisu Juanek Peru zirikatzen duenean derabilen euskara dela eta ez dela, “gauza batek ikaratuten nau zukan, esaten dio M. Juanek: zein ederto euskera berba egiten dozun eskolarik euki baga. Nik ezin dot irakurlante andia izanda bere”: 49. orr.

Horra zer erantzuten dion Peruk: “Maisu Juan: nik eztakit beste euskerarik neure guraso ta auzokoai entzunda ikasi deutseedana baiño”: 50. orr.

Argi eta garbi aitortzen du Moglek non ikasi duen dakien euskara: “Basarteko” ikastetxe nagusian; hau da, baserritarengan dago euskera bizi bizia, gozoa, ugaria, gihartsua, gai guztietarako egokia. Alde batetik eta bestetik helduta, hauxe izango da Peru Abarkako sei Autuen haria: euskera egokia erabilirik euskeraren gaitasuna egizkatu M. Juanengan irudikatzen dituen sasiakintsu guztiei. Izan ere, Peruren euskera aberatsa, gozoa erraza entzunik M. Juanek baztertu ditu bere aurreiritziak, eta honako aitormenak behin eta berriz egiten dizkio Peruri:

“Eneban siniztuko baserritar batek iakin leiala ainbeste izen, ta euskerea zala ain aberatsa bere berbeetan. Nik ezin artu neiz buruz izen guzti orreek illabeteen bere. Iminiko ditut paperean, erakusteko beste nire opi-ziokoai” 54. orr.

Bere garaiko nekazariengandik ikasitako euskera darabilelako bere idazlanetan, Peru Abarka eta beste Mogelen lanak garrantzitsuenetakoak ditugu garai hartako Bizkaiera ezagutzeko, Markinaldeko Bizkaiera batez ere.

- Elkartzen diren bokalek ozentasun edo hots berdinekoak direnean, “el resultado más general es una vocal igual, de duración normal en la mayor parte de las hablas”: L. MICHELENA, op. cit. 110.5.2.

Joera hau arautzat har badezakegu ere Euskalki gehienentzat, iturburu ezberdinak bokaleen luzapen eta uzkurdurak sortu dituzte. Beherago ipiniko

ditugun adibideak bide Bizkaieraren idazkera aintzinakoa ikusiko dugu, Peru Abarkaren eskualdekoa behintzat, Markinaldekoa, alegia.

Sarri entzun da “Euskara azentorik gabeko hizkuntza” dela; baina denok dakigu zein garrantzitsu zaigun bokalari ezarten zaizkion azentua, ozentassuna, bustidura, luzaera, etab. argi eta garbi belarriz (edo tresnen bidez) jasotzea, bokalearen balio zehatzaz ohartzeko. Markinaldeko Bizkaierakook ondo dakigu ez dela berdin, “gizónak txakurra jo deu”, eta “gizonak okelea jan dabe” esatea; edo, “labanduta ioko dau beia”: 44. orr. eta “beeia” 127. orr. (hobeto, behar bada, 1881.eko argit.: “Beeija”: 183); “ate”, eta “a(h)ate”, etab. Azentuak bereizten ditu sing. eta plur. lehenengo adibidean; luzaera eta bustidura ez dira bat bigarren kasuko hitzetan; luzaera eta aspirazioak bereizten dituzte hirugarren esaldikoen esanahiak. Gaurko belarriak asko motelduta daude, eta ez dute gure amona-agure zaharren sentikortasunik.

Markinaldeko Bizkaiera edoski dugunok eta orain Oñatin bizi (hemen-go euskara ere Bizkaieraren berezitasun bitxia bait da), ondo dakigu bokaleak luzatu edo jeminatzeko dugun ohitura. Egoki esaten digu K. Mitxelenak,

“La zona más conservadora a este respecto parece ser o haber sido la parte más oriental del área vizcaina: Marquina y Durango (cf. Capanaga, los dos Astarloas, Moguel, Fr. Bartolomé), y el vizc. de Guipúzcoa y en particular el de Oñate (cf. Garibay, RS, ms. de Oñate)”: op. cit. 111.5.2, d).

B) Testu idatzietan

Idatzitako testuen grafiei begiratzen badiegu auzia iluntxuago gelditzen zaigu: bokale jeminatu edo, Fr. Bartolomen esaeran, “bitutako”-ek adierazteko idazleek erabili dituzten grafiak ez dira izan ez berdinak, ez garbiak, ez arau batekoak. Nola sortu da ezberdintasun hori?: berdin zitzaielako luze-labur ahozkatzea?; ala Bizkaierazko testu zaharrik ezagutzen ez zutelako?, oso urri bait ziren; ala garbi-garbi jasotzen ez zutelako belarriz garaikoen mintzaera?; beste Euskalkietako idazleen idazkera ezberdina ezagutzen zutelako?; ala deskuidoz? Denetarik apur bat, behar bada, “Hay pruebas de que la inconsecuencia se debe a mero descuido en la notación de una particularidad que los autores no creían muy importante y que tenía que resultar chocante a los lectores de otras zonas”: K. MICHELENA, *Fonética Hist. Vasca*, 112.5.2., d.

Auzia ez da gaurkoa bakarrik; argi eta garbi ohartu zen horretaz Fr. Bartolomé, Markinarra bera, “Euscal erri guztietarako zetara oba dan jaquin ezac, bijetara imini eraguin ditu” (bai bikotedun bezala, eta bai jeminaziorik бага). Bere ustez batzutan bikotea idatzi behar litzateke: “esan legui: verbieren luce laburra, ascotasuna ta jagocan aitutia eracusteco, obeto daguala

letra bitubagaz”. Baina ikusten du baita ere idazkera honek arazoak dakartzaiela beste erako euskaldunei: “Menturaz ascoc erichico deutsa astun. Baina verbeeta guztien gacha da au”. Auzia sakondu beharra dago, zabalik gelditzen da: “Urrenguan entzungo da jakitunen erichija”: K. Mitxelenak jasoko testoa: op. cit. 112. 7.en aipamenean.

Zer esan? Bizkaieraren dokumentu zaharren azterketa eta konparaketa sakona egin gabe daukagula oraindik auzia erabakitzeke. Esan dugunez bokale bikotedunen grafiak ez dira egin beti irizpide garbiekin, eta agertzen zaizkigu behar ez diren jeminazioak ere. Hala ere ohitura zaharra dugu hau, bokale bikoteak erabiltzeko joera, alegia. Horregatik,

“A pesar de las inconsecuencias en la notación y de algunas geminaciones sin justificación etimológica (como Garc. Cc. 79 “lataagina” “el colmillo”...), predominan netamente los casos en que la comparación o consideraciones morfológicas demuestran de modo indudable que estas hablas vizcainas no han innovado, sino conservado “esaten digu K. Mitxelenak, goraipagarri den bere *Fonética Hist. Vasca*-n, 112.5.3.

Bokale bikoteak: Bizk. ohitura zaharra, baina idatzitako dokumentuetan nahiko ilun datorkiguna. Hori dela eta, “no está claro si debe interpretarse fonológicamente como cantidad larga o bien como geminación de las vocales” esango digu Mitxelenak: op. cit. 11. 5.2 d).

Laister egiztatuko dugunez, Peru Ab. ugari datozkigu bokale bikoteak. Markinaldeko idazleengan jeminatuak erabiltzeko ohitura zabalago dugu (Oñati ingurukoengan ere bai) beste Euskalkietako idazleengan, eta Bizkaieraren beste euskualdeetakoengan, baizik.

Mogelek bi -AA-z idazten dituen hitz batzuk i -AA horien tartean hizkiren bat galdu dutelako da, “-h”, “-d-”: zahar, txahal, lahar, mahats, zuhur, sudur, ahari. Beste -AA bikotedun batzuk egun zati ezinezko silabak ditugu: iana, edari, ar (macho), har (gusano), artadi, etab.

II. “-AA” Bikotedun esaldiak

Noiz darabiltza Mogelek -AA bikoteak?

A) Deklinabidean

1. *Nom. Plur.*

DONGAAK: “... oker, zital, asto ta dongaak direala” 115. orr.

BERBAK: “Orrek dira kristiñau baten aotik urtengo daben berbaak?” 40. orr.

- “espliketan dituen berbaak” 130. orr.

- “orren arin esatea, ji aka berbaak aitatutea, ezta niretzat” 107. orr.
 - passim
- LOTSABAGAAK: “ardao-etxeetan sartuten dira agura baldresak, mutil gaizto lotsabagaak...” 40. orr.
- BAGAAK: “Barberu perdulario molde bagaak” 17. rr.
- “... egosi bagaak” 29. orr.
- BERNAAK: “... ta adarrak dira besoak ta bernaak” 52. orr.
- AZAAK: “... arbi ta azaak” 44. orr.
- “azaak bai, koiperik ez”, esaera zaharra: 81. orr.
- GAUZAAK: “Eleizako gauzaak” 58. orr.
- “... zati edo gauzaak dira oneek” 53. orr.
 - “bear ditugun gauzaak” 111. orr.
 - 94. 115, eta passim
- GANBELAAK: “... besteok ganbelaak” 96. orr.
- LUMAAK: “emon iakozan lumaak, ... euren lumaak kendu...” 124. orr.
- BIRAAK: “andrakume batek darabil gabikoa biraak emoten” 94. orr.
- TRESNAAK: “sukalde-tresnaak” 91. orr.
- “Popatxu, ator ona, erakutsi eiozan oni eure beargintzako tresnaak” 95-96. orr.
- IRAZTRAMAAK: “iraztramaak” 96. orr.
- TXATARRAAK: “txatarraak” 91. orr. (residuos) bigarren -A ezarteko, dirudienez Moglek -A berezkoduntzat hartzen zuen hitz hau. Agertzen zai-gu -A batekin ere:
- “... An askatu ta bota eragitea geratu iakozan loiak, zepa ta txatarrak” 84. orr.
- TXAPLATAAK: “Praiska, ... presta egizuz benda ta sangria-txaplataak” 45.
- IZARAAK: “zaraak” 91. orr.
- Hona hemen hitza, bi bokale ezberdindun hitza, eta biak jeminaturik agertzen zaizkigu:
- ZUURDAAK: “zuurdaak” 53. orr. (crines, cerdas)
- ORMAAK: “ango ormaak kedarratuta dagoz keiaren keiaz” 76. orr.
- “ormaak ikara iminten dituanak” 87. orr.
- KOLTZAAK: “koltzaak” 101. orr.
- AGAAK: “palanka edo burdinagaak” 91. orr.
- ORRIKAAK: “orrikaak” 91. orr.
- PRAKAAK: “ekartzuz prakaak” 114. orr.
- “zikinduko dituzu prakaak” 76. orr.
- KOPLAAK: “... euskeraz koplak egiten” 64. orr.
- GELAAK: “ikazgelaak” 91. orr.
- SALDAAK: “azafraez gorrituriko saldaak” 73. orr.
- IOSLAAK: “ioslaak artuten dabee eun aterea...” 99. orr. (baina silaba bat bezala zenbatzen ditu bertsoaren metrika zainduz).

ESKUTAAK: “... aterata egiten dira eskutaak” 94. orr.

Baina 97. orr. ‘egiteko eskudak” irakurten dugu, (metrikari begiratzuz edo!), ze, bertan beheratxoago, silaba bat gehiagokin agertzen zaigu, “eskutadak dituguz”: ibid.

MANTAAK: “ekartzuz abarka ta oneen mantaak” 77. orr.

2. *Inesiboan*

OLAAN: “olaan ikusi dituzun...” 93. orr.

OLGANTZAAN: “olgantzaan egotea” 96. orr.

EIZAAN: ‘eizaan dabilzanak” 55. orr.

- “dabiltza eizaan bezala” 113

- “gauza askoren eizaan” 120. orr.

BOGADAAN: “iru edo lau lisiba edo bogadaan igaroa” 77. orr.

GISAAN: ‘Frantzes gisaan” 120. orr.

- “askatuko eztirean gisaan” 20. orr.

- “gura dabeen gisaan” 69. orr.

KORTAAN: “bota kortaan” 102. orr.

SALDAAN: “urte asko urik edan eztodala saldaan ezpada” 26. orr.

OTAAN: “... egur-gain edo otaan” 121. orr.

PENTZUDAAN: “etziñean bart etzun nire pentzudaan?” 76. orr. (confianza, cuidado)

- “geroko obeagoren pentzudaan egonaz” 83. orr.

EGAAN: “gabillaia da osoz (sic) ega-billaia, dabilrelako egaa (sic, bai 1970.eko argit., eta bai 1881.ekoan ere), billatu, aratu”: 126. orr., eta 1881.ekoan, 180. orr. Baina bi lerro beherago “egaan dabillela” irakurten dugu argitaldi bietan: ibid.

IORRAN: “... landara - iorraan” 30. orr.

LARRAAN: “1970.eko argit. honela irakurten dugu: “ardiak eskatzen du, (Kiputza da mintzatzen ari zaiguna, horregatik “du” hori), larran (sic, -A batekin) ibiltea”: 121-122. orr. Baina Mogelek darabilen idazkera ezaguturik eta Munitibar, Markina ingurukook hitza oguzkatzen dugun eraz gogoraturik, berriz, 1881.eko argit. testoarekin parekatu beharra izan dut: eta honela dakargu Juan Elizalden 1881.eko argitaldiak: “ardiac escatzen du larraan (2 -AA) ibiltea” 176. orr.

Eta orrialde bertan, hurrengo lerrokadan, beste bokale aldaketa bat ere aurkitzen dugu: 1881.ekoan “... an belarra jaatea” (-A birekin) irakurtzen dugu: 176. orr., eta 1970.ekoan, berriz, “an belarra iatea” (-A batekin): 122. orr.

GERRAAN: “... etzara gerraan ibilli igaro diren urteetan?” galdetzen dio M. Juanek Baigorritarrari: 116. orr.

GERLAAN: goian aitatutako aldaketa dugu hemen ere:

“... ezen ez gerlan (-A batekin) Españiarren odola isurtzen” damaigu 1970.eko testoak: 117. orr.; 1881.ekoak, ordea, -AA -kin berriz ere: “ecen ez gerlaan Españarren (sic) odola issurtzen”: 171. orr.

Idazkera berdina darabil Mgelek ERACASTEAC-en “Itz - Aurrecoa”-n ere: hara bi adibidetxo bakarrik:

- ELIZAAN: “... eracurricco luque Elizaan” VIII. orr.

- GISAAN: “... anciñacoen (sic) guisaan naste gabe” (euskeraz hitz egin), XIII. orr.

3. *Soziatiboan*

NEBAAKAZ: “eztozu ikusi aserratuta ez bere nagusiagoaz, ez bere nebaakaz” 68. orr.

GAUZAAKAZ: “ikusi ditugun gauzaakaz” 93. orr.

V. ATALA

“BEREZKO -A ZALANTZAZKODUN” HITZAK PERU ABARKAN

Sarrera

Peru Abarkako -A berezkodun hitzek osatzen diguten saila nahiko luzea da, lan honen beste ataletan ikus dezakegunez.

Hitz horien artean badira batzuk, hitz arruntak gehienak, gaur askoren ahotan beste erara entzuten ditugunak, -A -gabe alegia “egi, gauz, pizti, anai /-e”, nahiz era bietara. Bigarren atalean “Berezkko -A” dunen Deklinabidea” arakatzerakoen esan dugunez, euskal deklinabidean sortzen zaizkigun bokale jokoak, berez, zuhur ibiltzen eskatzen badigu, zer esanik ez -A batez amaitzen diren hitzetan, zalantza ta huts askoren ituruburu bait dira berauek: zalantza hauen sorburu hitza, bera soilik, non bukatzen zaigun, eta erantsitakoa non hasten zaigun argi ta garbi ez jakitean datza, batez ere. Adib., “etxe”, ala “etxea” da?; “gauza”, ala “gauz”?; “iakituri”, ala “iakituria”?; edo eta, “semea” eta “alabea”-k ba ote dute alderik?, ez ote dira berdin?, nola iakin behar den bezala?; “elizpe, gauzetan, alabearen, ...”, zein da bukaera?, eta non hasten erantsikakoak?

Amaierako -A guztiek artikulutzat hartzen dituzte batzuk, hitza, funtsean, nolakoa den argitzen ahalegindu barik; askoren ustez horrela argitzen bait da auzia! Baina arazoa ondo argitu gabe, deklinabideak sortaraziko dizkigu gero buruhausteak! Gipuzkera hiztunengan zalantzak ugariagoak direla esango nuke, ezjakinaren iturburuz gainera, Euskalki honek honela deklinatzen bait ditu -A ITSATSIDUNA: -A (hitzarena) + -A (artik.) = -A (-A bat bakarrik). Adibi., “egia” hitzaren amaierako -A hori, zer da?, galdetuko du, -A itsatsia ala artikulua?; -A hori artik. hartzen badugu, -A bera “egi” izango

da; baina -A berezkoa badu, hitza “egia” izango da, nahiz eta batzuk ez erabili -A Itsatsidun bezala. Dakusagunez akatsik eta oztoporik handiena gure ezjakinean datza; ezjakite hau, gainera, gaur erderen kutsaketek gehiago iluntzen digute.

I. Zalantzazko -A berezkodun hitz arruntak

Gai honetaz ari naizenez gero ez dut uste alferrikakoa izango zaigunik, beharrezko eta probetxagai baizik, zalantzek sortarazten diskiguten hitz eza-gun eta sarri darabiltzagunekin sailtxoa osatzea hemen, Mogelek Peru Abar-kan hitz horiek idazteko duen era arakatzuz.

Atalaren bigarren zatian ipiniko ditudan hitzak Mogelen “-A”-z bukatzeko idazkera zabala adieraziko digute: beste Euskalkietan “-E”-z amaitzen diren hitz asko, Mogelek ordea, Bizkaieraren joera jarraituz, “-A” itsatsidunen erara deklinatzen bait ditu, -EA deklinabide amaierarekin batez ere (ikus, II. Atala).

ANAIA: Mogelengan ez dago dudarik; nahiz eta gutxitan agertu hitz hau, beti -A berezkodun bezala darabil, argi eta garbi.

Esaldi baten bi aldiz damaigu Mogelek “anaia” izena, eta esango nuke, egun, askok bietan “-A”-rik gabe erabiliko luketela. Lehenengo kasuan “nagusi” adjektiboaren aurrean darabil; egun, honelakoak entzuten ditugu, gutxi gora behera: “nire anai (edo, anae) zaharrenak....”; Moge-
lek ordea”

- “neure anaia nagusiagoak...” dio.

Eta bigarrena harrigarriagoa askorentzat, beharbada: “a” (hura) erakuslearekin; askok honela esango lukete, “il jatan anai (anae) a, eta...” (horrela bi -A -k, (-A + -A = ?), sortzen dituzten zalantzak baztertu egingo lituzkete, baina ez erabaki auzia. Bizkaierak hobeto gordetzen duenez gero “A” erakuslea, “aquei”, pinago zaintzen du beronekin elkartuta datorren -A itsatsia ere. Horra zelan digun Mogelek:

- “Ill iatan anaia a”

Honela datorkigu esaldi osoa:

- “Mutil gaztea nintzanean ikasi neban arotzia, esaten dio Peruk M. Juani, neure anaia nagusiagoak etxaguntza au eroango ebalako usteaz. Ill iatan anaia a; ta gurasoak itxi nenduen euren oiñordetzat ta etxe jau-be”: 103-104. orr.

“Euskal literatura guztian barrena, aitortzen du Txillardegik, “anaia” deklinatu da, ez “anai” (edo “anaie” ere bai)”: TXILLARDEGI, *Oiñarri Bila*, Donostia 1977, 21. orr.

- “!O neure anaia!” 62. orr.

ARNASA: ez digu zalantzarik sortzen, hain argi bait datorkigu Peru Ab., eta amaiera bat baino gehiagorekin agertu ere:

- “-rik” atzizki partit.:

“Ezta ber (sic) arnasarik bere ona elduten” 39. orr.

- Bizkaieraren deklin. era gorderik: -A + -A = -EA:

“zulango apainduen zaiñ (sic) dagoz onlangoak, ta arnasea bere zorko dozu” 43. orr.

- Bokalaren aurrean:

• “Arnasa artuten dot orain; askatuten asi iat biotza” 136. orr.

• “Itoaren itoz, ta arin esan bearreaz, ta arnasa ots batzuen artean badiño guztia?” 109. orr.

- “Lapiko barruan ezta azartuten arnasa artuten” 64. orr.

ABIA: “edo” -ren aurrean:

- “zati bat ianda daroe enparaua dandarraz euren abia edo leza zuloe-tara” 72. orr.

ALKANDORA: “bat” zenbakiarekin elkartuta:

“nok esan lei, ikusi бага, zeinbat neke ta arazo artu bear direan azireiteti alkandora bat aiantzi artean!” 96.

- -A + -A = -EA eginik:

— “alkandorea dago guztia eginik...” 99. orr.

— “Lenengo alkandorea, bigarren iake zuri bat...” 77. orr.

— “...ekartzuz bada iake zuri alkandorearen gaiñekoa, ta...” 77. orr.

Esaera esanguratsu honetan: “bakotxak iazten dau al daben alkandorea, ta nik neurea” 104. orr.

- Hitz konposatuan: “alkandorabesoak iaso ta...” 24. orr.

ANATOMIA: bigarren, hirugarren eta laugarren ataletan agertu dugunez, -IA -z, (-ERIA /-KERIA -z, -DURIA -z), amaitzen diren hitzak “bat” zenbakiarekin, erakuslearekin, nahiz -rik partit. atzizkiaz erabiltzerakoan -A berezkoa galdu edo kentzeko joera dago: “zantarkeririk ez egin”; “jakituri handiko gizona”; “zatarrerri bat”, eta antzekoak sarri entzuten dira, egun.

Mogelen idazkera bestea da:

- “-rik” erantsirik: “aek (Barberu zaharrak) ezekien anatomiarik, nik bai” 23. orr.

• “zer da Anatomia dontsu ta izen ospe andiko ori?” 23. orr.

• “ez baiña txarrien Anatomia...”; “zer da Anatomia?... Anatomicak daukaz lau jenero...” 50. orr.

“-IA”-z bukatutako hitzak artikulua harturik ez dute -EA egiten, -IA baizik: -IA + -A = -IA (anatomia, anaia, egia...)

ARBOLA: -A itsatsidun bezala darabil:

• “asko”-ren aurrean: “... abe bizi edo arbola askoren izenak” 131. Gaur gutxi erabilten den mugagabe honekin: “... arbola txito asko, esateko euren izenak” 115. orr.

• “bat” zenbakiarekin: “gorputz au da arbola bat legez...” 52. orr.

• “lauoiñekoa bere arbola edo abe bizi bat da” 52. orr.

- -A + -A = -EA eginik: “zegaiti esan dozu abe bizi edo arbolea?” 131. orr.
- A + -E = -E:
- “len abeen izena emoten iakeela, orain arbolen izena...” 131. orr.
- “... edo arbola ta arbolatxuen izenak” 132. orr.

BURDINA: honek ez du zalantzarik Mogelentzat, beti -A berezkodun bezala bait darabil:

- -A + -A = -EA eginik: “Iieleak esan gura dau iiztu edo irunduten dabela burdiñea” 83. orr.
- “... burdiñea bera eraasten” 85. orr.
- “zeiñi (Iieleari) iagokan iiztea edo irutea burdiñea” 84. orr.;
- “garbituten da burdiñea” 89.
- “ola-iieleak burdiña biribilduta ta moltsotuta...” 83. orr.
- “emendi doa burdiña urtu guztia” 89. orr.
- -TU aditz bihurtzailearekin: “... apur batzuez ostean burdiñatuten dira esaterako...” 85. orr.
- Hitz konposatuan -A galdurik: “burdin- barrea” 91. orr.; 84.
- “burdingaia” ibid.
- “palankeka edo burdin- agaak” ibid., “burdin-barra izatera”: 84.

“asko”-rekin:

- “burdiña asko egin bada...” 82. orr.
- Egun ere oso bizirik dago “burdiña” Bizkaian.

EGIA: Mogelek beti “egia” damaigu (ez dut uste inork “egia” eta “hegi” (la-dera, borde) nahastuko dituenik, oso ezberdinak bait ditugu):

- “egia esan bear deusut” 111. orr.
- “Jaungoikoa (sic) Eleizeari agerturiko egia utsik emon ezin leienak, ezta...” 111. orr. (1881.eko argitaldian berdin irakurten dugu: “... Jaungoicua Elessiari...” 161. orr.)
- Askori min ematen dioen esaera ederrean: “egia, askoren erregarria” 81. orr.
- “egia da nun-nai topetan dabela bazkari ta aparria” 71. orr.
- “egia esateko ohea da...” 73. orr.
- “ondo diñozu, ta egia esango badeusut...” 27. orr.
- “egia da zuen kapela barregarri...” 28. orr.
- “bai egiaz; alan bere eztakit...” 86. orr.
- “egia diñozu...” 100. orr.; 80.
- Adjektibo plurala erantsita: “Ze egia ederrak! Aurrera Peru” 80. orr.
- “... baiña bai egia garbiak esan” 19. orr.

ELIZA: -A itsatsidun bezala agertzen zaigu beti; hiru euskalkietakoek darabilte izen hau, eta denak “Eliza” bezala. Baina beraien artean, eta 1970.eko eta 1881.eko argitaldien artean berezitasuntxo batzuk ikusten ditugunez gero, argitaldi bietako testoak jasoko ditut, mintzatzen ari zaigun pertsonaiaren izena azalduz alboan.

1970.ekoak:

- “Eleizakoak eragitera doaz norbaiti” 49. orr.: Peruk esaten digu.
- “datorrela Abadea Eleizakoakaz” 22. orr.: Peruk
- -A + -A = -EA eginik: “... irakatsi eutsuzan eskaari Eleizeak artuta daukazanak” 28. orr.: Peruk
- “Jaungoikoa (sic) Eleizeari agerturiko...” 111. orr.
- “... usteko dau Eleiza - iagola Abadeak...” 111. orr.: Peruk

Kredoa aitortzerakoan hiru pertsonaiak mintzatzen zaizkigu:

- Joanis Baigorritarra: “Eliza Katolika Saindua” 109. orr.
- Kiputzak honela digu: “Eliza Santa...” 111. orr.
- Peru Bizkaikoak: “Eleiza Ama Santa...” 112. orr.

1881.eko argit. zera irakurten dugu:

- “Elessacuac eraguitera...” dio Peruk: 81. orr.
- “datorrela Abadia Elessacuacaz” 51. orr.: Peruk
- “... iracatsi eutsuzan escaari Elesiac (sic, “s” batez) artuta” 57.: Peruk
- “Jaungoicua (sic) Elessiari agerturico...” 161. orr.: Peruk
- “... zure Elessa - iagola Abadiac” 162. orr.: Peruk
- Baigorritarrak: “Eliza Catholica Saindua” 158. orr.
- Kiputzak ordea: “Eliza Ama Santa...” 161. orr.
- eta Peruk: “Eleissa Ama Santa...” 162. orr.

Kiputzaren eta Baigorritarraren ahotik “Eliza” dantzugu, Perun ezpai-netatik berriz “Eleiza”, gaurko idazkeran; “Elessa” bi aldiz, eta “Eleissa” behin.

ESAMINA: gazteengandik eta ez al dugu entuzten: “hi, gaur ez ote zeukagu esaminik?”, eta antzekorik?

Peru Abarkan “esamiña” dakurgu beti :

- “... orretarako igaro nituan iru esamiña krudel tribunale lotsa andiko baten” dio Maisu Juanek: 19. orr.
- -A + -A = -EA eginik: “zugaz orain neure esamiña” 121. orr. (ikus, “II. Atala”, “esamina” eta “birjina” hitzei buruz esana).

GAUZA: egun ere barra barra darabilgun hitza; sarri entzuten dugu “gauz” hitza: “gauz bat esan dit”. Kiputzei zalantzak sortzen badizkie, Bizkaie-raz mintzatzen direnentzat ez dago zalantzarik. Peru Abarkan auzia argi dago: “-A” berezkodun bezala agertzen bait zaigu beti; hitz oso ugaria dugu gainera: irakur, II. Atala, han dugu adibide ugari.

- “-rik” atzizkia erantsita:
- “ezteustazu emongo oba dan gauzarik, ez kope, ez...” 62. orr.
- “eztot iñoren gauzarik gura” 47. orr.
- “... berso-gauzarik ezin gomutau litxakiola” 34. orr.
- “Asko“-rekin:
- “an ta bideetan erakutsiko deutsudaz gauza asko” 34. orr.
- “ipiñi gura zaitut gauza askoren iakitun, etxean sartu...” 58.
- “gurako neuke, gauza asko baiño geiago, artuko bazendu...” 65.

- “... ta gauza askoren eizaan ibilli oi dalako” 120. orr.
- “..., ta gauza askotan” 130. orr.
- “Ainbeste”-kin:
 - “zurtuta isten nabee ainbeste gauza iakiteaz” 119. orr.
 - “bat” zenbakiarekin elkartuta:
 - “eztala beluaren zain egon bear gauzaren bat egiteko” 81. orr.
 - “gauza batek zurtu nau, ain ardao gutxi edateak” 136. orr.
 - Kolektibotasuna hobeto adierazteko aditza pluralean jarririk:
 - “izan ederra dozu. Done Juan edo San Juan gauza bat dira. Donianeak esaten iakee San Juanetako Egunai” 26. orr.
 - “zuek iakin ezin ziñaian gauza bat” 128. orr.
 - Gaur honako zerbait entzuten da sarri: “seme-alaba gauz ez batzuk dituk”. Mogelek berriz:
 - “... itxurgatu ta zurbildua, gauza ez batzuk, argal,erkin, aize apur batek oeratuten dituala” 29. orr.
 - Mugagabetasuna adierazten diguten “guztu, edozein, batzuk”-ekin:
 - “Jaungoikoak beste gauza guztien ondoren egin eban gizona” 128.
 - “agindu guri al daigun edozein gauzatan” 91. orr.
 - “iaten dau (herriko Barberuak) edozein gauza” 17. orr.
 - Bigarren Atalean gehiago arakatu dugun deklinabide amaiera berezian:
 - A + -A = -EA: “orregaitiño Jaungoikoak emoten deusku gauzea ugarri” 59. orc.
 - Adjekt. ondoan:
 - ‘ eztozu uste izan bear Bizkaiti kanpora eztagoala gauza onik” 115.
 - “adiskidea gauza tipian bear da progatu, handian enpleatu” esaten digu esatera zaharrak: 118. orr.
 - “eztozu zuk iñoiz ian gauza gozoagorik” 87. orr.
 - “ezta gauza gaitza oriei erantzutea” 121. orr.
 - “gauza on guztiak” 28. orr.
 - Erakuslearekin lotuta:
 - “nahi duzu gehiago gauza huntan” esaten dio Baigorritarrak M. Juani: 118. or.
 - Boskarren Atalean arakatu dugun eran: -A + -A = -AA eginik (ikus, “-AA” bikotedun hitzak Peru Abarkan”):
 - “neuk esango deutsudaz gauzaak sustrai ta ondoti” 94. orr.
 - “izan dozu goiz eder ta atsegintsu bat olaan ikusi dituzun gauzaak” 95. orr.
 - “Eleizako gauzaak” 58. orr.
 - “ikusten iakozan zati edo gauzaak dira oneek” 53. orr.
 - -A + -E = -EE eginik, anitzean:
 - “... azur edo mamin-gauzeetan” 53. orr.
 - “zek sartu bear gaitu iñoren gauzeetan” 104. orr.
 - “... erle beargiñak etxe barruan egiten dituen gauzeen ganean!” 125. orr.

GILTZA: “giltza” ala “giltz”? oiñattarrek argi eta garbi “giltza” darabilte egun ere: “ez daukat giltza(r)ik”, eta antzekoak entzuten dira. Baina Mogelek Peru Abarkan “giltz” idazten du:

- Ezezko esaldian: “ezin neurtuko dozu onezkero ardaorik, ez erabili esku onegaz giltzik” 45. orr.
- “eztaukat giltzik; etxeko andreak gorde daroaz” 40. orr.
- “baga” erantsita:
- “gari ta artoak daukadaz giltz бага ganbara zabalean” 58. orr.
- Hitz konposatuan:
- “ugazaba-andrak gorde eztaroaz gilzpean okela...” 40. (Kanta ezagunak ordea, “giltzapian sartu nautu...”)

JAKINDURIA: ikus hirugarren atala, “-A” itsatsidun atzizkiak Peru Abarkan”, eta han esandakoak -DURA/-TURA, -GURA/-KURA, -DURIA atzizkietaz. “-A” itsatsidun atzizkitzat jotzen ditu Mogelet beti, horregatik hemen adibide bat edo beste ipiniko dut bakarrik:

- “etorri ezpaziña ainbeste soiñeko bitxidun ta apainduriatz, ezeban ainbeste eskatuko” 43. orr.
- Honen kideko den -TURIA atzizkiaz, berdin:
- “neuk aztertuko dot zure iakituria andiata...” 24. orr.
- “Adiskidea, estuan iminten dozu nire iakituria” 50. orr.
- “Peru, ezta zure bururako gure iakituria” 52. orr.
- “-rik” erantsirik:
- “... ta ianz-barriak eztakarrela iakituriarik ta bai...” 18. orr.
- “or oi zabilzee (sic) zeuen iakituria usteaz” 51. orr.
- “au da nire apainduria guztia” dio Peruk: 15. orr.

LOTSA: Sarri erabiltzen du Mogelet hitz hau, “baga” atzizkiarekin lotuta batez ere; beti “lotsa” irakurriko dugu, ez “lots”:

- “agaiti nengoan txapela buruti kenduta, lotsa nintzala berba egiten” 16. orr.
- “-baga” atzizkiareekin elkartuta sarri datorkigu. -GA/-KA, -BAGA/-GABE atzizkiak hirugarren Atalean aztertu ditugunez gero (“-A” itsatsidun atzizkiak Peru Abarkan” arakatzerakoan), hemen adibide bat bakarrik ipiniko dut, bi atzizki daramatza berak, -BAGA eta -KERIA:
- “... esango gurako dozu lotsabagakeria. Egizu berba euskeraz” 19.
- “-rik” mugag. atzizkia erantsirik:
- “ezteutsut nik lotsarik galdu, ez galduko bere” 19. orr.
- -A + -A = -EA eginik:
- “ekarri eragingo deutsee lotsea ta gordeko dira dongaro bizi izateti” 70. orr.
- -TU aditz bihurtzailearekin:
- “neu lotsatuteko bestean...” 37. orr.
- -A + -A = -AA eginik:
- “eskerako bidean imiñiko nenduen lotsaari andiaz” 136. orr.

MAKILLA: Ondo esaten du Txillardegik, minduta legez, “hau harrigarri ger-tatu ohi zaio askori”: TXILLARDEGI, “Oinarri Bila”, Donostia 1977, 30. orr., larregi entzuten bait da “makil” hotsa.

Mogelek “makilla” darabil, behin ere ez “makil”:

- “aste barruan urten neban neure etxeti, gerri zerdenaz makilla бага, ian-goseagaz besteti” 34. orr.

- “Bat” zenbakiarekin:

“eutsi bada makilla bat larrapastauta iausi etzaitea” 78.

- -A + -A = -EA eginik: “makilleak bildurtuten ditu” (txakurrak): 78. orr.

- -KA, ekintzaren aldikotasuna azpimarratzen duen atzizkia, erantsi-rik:

“makillaka banatuarren ugazabak, ...” 58. orr.

- -ADA /-KADA esanahia ondo datorkio oraingo esaldiari:

“bere semeak emon leikezu makillaka galanta ta burua ausita itxi” 33. orr.

- -KA atzizkiaz berriz ere:

“beti ibilli bear dau (astoak) makillaka legez igitu dedin” 128. orr.

MARATILLA: “-rik” mugag. atzizkiarekin”:

“eztago ez itxirik gureztat maratillarik” 63. orr.

NESKATILLA: III. Atalean, “-A” itsatsidun atzizkiak Peru Abarkan” azttertzerakoan arakutu izan dugu -TILA atzizkia ere. Passim dakurgu hitz hau Peru Abarkan, eta beti “neskatilla” ematen digu Mogelek; bigarren Atalean adibide ugari; hemen banakaren bat ipiniko dut:

- “enaz ni neskea, neskatala utsa baiño” 24. orr.

- “neskatilla ona daukazu Praiskagan” 47. orr.

- “neskatilla ixila (sic) dirudi” 47. orr.; passim

- -A + -A = -EA:

— “... neskatilearen esanak zure kaltean izango dira” 48.

— “zer don bada neskea neskatilea baiño onradago?” 24.

— “neskatileak urten lei noranai bere ule-trenza...” 25. orr.

— “neskatileak esango deuta...” 30. orr.; pasim

- “bat” zenbakiarekin:

— “... aserratu bear dabenean neskatala batek” 68. orr.

- ondoko hitza “a”-z hasten delarik:

“... ez ditu iñok ikusiko neskatala atzean” 69.

NESKATXA: ez zaigu hitz hau agertzen Peru Abarkan, baina bai Gipuzke-raz idatzi zuen ERACASTEAC -en. Mogelek “NeskTX” (“-A” itsatsi-rik gabe, alegia) idazten du. Nola horrela -TXA atzizki ttipigarria “-A” berezkoduna bait da!: ¿bere garaiko Kiputzek horrela erabilten zutelako?; Markina inguruko Bizkaitarrei horrela entzuten zielako? Irakur gorago “-TXA” atzizkiaz eta “NESKATXA”-z esan d-uguna.

- “... bestelaco nescach becatuetatic sari andiac...”: ERACASTEAC, 169. 15.

OLA: Hitz ugaria dugu Peru Abarkan, boskarren Atalean, batez ere, Atal hau oleez ari bait zaigu: ola gizon, heuren lanak, tresna, lantoki, lan sari, jan edanak, lo toki, etab. Zalantzarik gabe Mogelek “OLA” idazten du beti, ez besterik. (“Ola” ez dugu “ohol” hitzarekin nahastu behar)

- -A + -A = -EA, era arrunta behin eta berriz erabiltzen du:
—“dakustanez gau ta egun dabil olea” 86. orr.
- “etorkizunaren oleak, bearrik ez “esaera zaharra: 81.
- “ze on iatorko Bizkaiari ola oneetatik?” 85. orr.: erakuslearekin.
- “goazanorain urrengo olara” 78. orr.
- “andikiak eurak datoz nozbait olara” 87. orr.
- “-rik” partit. atzizkia erantsirik:
—“zer egingo neuskioe nik neure basoetako abe biziai, olarik ezpalego?” 85. orr.
- -A + -E = -EE eginik (plur. inesib.):
—“nun ilten dira oleetan baiño zezingei edo idi, gizenduagorik?” 87. orr.
- -A + -A = -AA loturaz, inesiboan:
—“izan dozu goiz eder ta atsegintsu bat olaan ikusi dituzun ganzaak” 93. orr.
- Hitz konposatueta:
—“asteazkenean daukee edan-aldi bat olaiaunaren lepura” 88.
- “ardaoa olagizonai eroateko” 85. orr.

OKELA: Mogelengan ez dugu zalantzarik: “-A” berezkodun hitza da:

- “nekezariak gizenduten ditu idiak, okela ona iaateko” 101. orr.
- -A + -A = -EA eginik:
—“okelea iaateko gatz andia bearko dabee” 30. orr.
- “Platerean ateraten dira aza ta okelea” 25. orr.
- “askoz gozoago dira aza ta okela-zati eskuz ebagi, ... direanak” 25.
- “Ze okela-plaga da au?” 29. orr.

PIZTIA: Peru Abarkan “piztia” damaigu beti Mogelek:

- “... ateraten dot abere, ganadu, giberri, piztia, aar, ...” 128.
- “... txakur urriñeti igarten deusana piztia asko iakin ta...” 72.
- “zapoa bere esaten deusagu piztia atsitu zapalari” 60. orr.
- “ondo dakite au piztia zital oneek”... 125. orr.

Gogoan edukitzekoa da gorago esan duguna: +IA + -A = -IA, ez -EA, egiten dutela.

II. “-A”-z amaitzeko joera Peru Abarkan

Sail honetan ipiniko ditugun hitzak Mogelen “-A”-z amaitzeko joera zabalaren ezagugarri ditugu, Mogelek “-A” berezkodun hitz bezala bait darabiltza Peru Abarkan. Irakur III. Atala, “-A” itsatsidun atzizkiak Peru Abarkan; han, -LE /-LA, -GILE /-GILA, (-KILE/ -KILA), -TZAILE / -

TZAILA, etabar arakatu genituenean ondo agertu zitzaigun Mogelen idazkera, bere garaiko Bizkaierari jarraituz: atzizki hauek “-A” berazkodun bezala erabiltzen ditu, sarritan, gutxienez!

- Baita ere beste Euskalkiek “-E”-z bukatzen dituzten hainbat hitz, Moglek, eta Bizkaierak, “-A”-z amaitzen dituzte: adib. “oba, lora, zara, sara, etab. Adibide gehienak aurreko Ataletan ipini ditugunez gero, hemen banaka batzuk jasoko ditugu, esandakoaren lekuko. Gogora, bada, han esandakoak.

- Aintzinatik datorkigu Euskalkien arteko eztabaida, “zein Euskalki da garbiena?”; “zein ederrago, edo zaharrago?”, etab. Auzi honetan ere gizon zentzudun lez agertzen zaigu gure Juan Antonio Mogel, Euskalkien arteko gora behezetaz ari dela zera esaten digunean:

“nic guciac (Euskalkiak, bakoitzaren berezitasun eta guzti) dauzcat edertzat”: ERACASTEAC, Itz- aurrecoa, XIV. 27.

- Hitz batzuren amaiera ez zaigu garbi agertzen, edo nomin. singularrean art. erantsita datorkigulako: “artza”, edo -EA eginik: “sarea” edo plur.-ak bukaeraz: “osatzaillak”, etab.

- -EA eta plur. -Ak amaierak ez digute auzia zehazki eta beti argitzen.

- Mogelen idazkera hobeto ezagutzeko esaldi batzuk Eracasteac-etik hartu ditut, Gipuzkeraz idatzi zuen idazlan horretan ere -A berez kodun hitz bezala bait darabiltza: icasla, iracasla, gorula, enzula, adibide hauek lekuko argituago agertzen bait zaigu Mogelen idazkera.

1) -LA amaieraz: (-LE/ -LA, -GILE/ -GILA, -TZAILE /-TZAILA): beste Euskalkietan “-E”-z: (ikus, III. Atala):

EPAILLA: “... zarean edo (sic) ez ill-epailla edo anatomiko ona” 24. orr.

- “emon zerbait, epailla ta batu direanak ardaoa edan daien” 55.

- “ori epailla baten zeregiña da” 23. orr.: “bat”-ekin.

- -EA formaz: “epaillea” 90. orr. (tajadera)

- “luebagiña ta otaepaillea da” 106. orr.

- “zer da epaillea? Epaillea da zuek karnazerua...” 23-24.

- “Epailla ta arategia euren ganera artu daroenak...” 73. orr.

EUNLA: “ikusi eragingo neuskezu eunla batek bear dituan...” 95. orr.: “bat” zenbakiarekin.

“Eunla andreak” 99. orr.

“eunla eta iostun” 99. orr.

- “neure alaba eunleari” 95. orr.

GORULA: “... iostun ta gorulariak” 99. orr.

Bi adibide hauek, aurrekoak eta ondorengoak, ez digute gure auzia zehatz mehatz erabakitzen.

- “ikusi dituzu sarri gorulak, zelan amulu edo kirru...” 83. orr.

- Gorula, eta, Eula (sic): “... olaguizon, icazquin, emacume gorula, eula, jostun, ta...”: ERACASTEAC, Itz- Aurrecoa, IV.

IOSLA: "... sartuten da iosla edo iostuna lan barrietan": 96

- -A + -A = -AA eginik plur.

"ioslaak artuten dabee eun aterea..." 99. orr.

IALLA (joilla, iailla): "liña ialla gaisoak izerdi lamatan" 98. orr.

GALTZAILLA: "bakean itxi ordi galtzaila bati" 33. orr.: "bat" zenbakirekin.

IMINTZAILLA: "andrakume azur- imintzailla, barriketa..." 23. orr.

URTZAILLA: "Iielea, urtzailla bi ta gatzamaillea" 82. orr.

- "gero sartuten naz urtzailla; egingo naz..." 83. orr.
 - "amaitu dabenean urtzailla agoia zaindu dabena..." 82. orr.
- Behin -LE amaieraz: "urtzaille batak agoia zainduten dabena..." 86. orr. (1881.eko argit. ere berdin: 129. orr.)
Gehienetan -EA formaz damaigu.

GATZAMAILLA: Mogelen idazkerari jarraituz "gatzamaillea" izan behar-ko luke!; baina bi aldiz "gatzamaille" ematen digu; Bestalde Bizkaierak "emoille", "emoillea" formaz, erabiltzen du. Horregatik bitarikotasuntxoa aurkitzen dut hitz honetan: ia beti -EA bukaeraz agertzen bait zaigu; edo plur. -Ak eginik, behin ere ez -A garbiaz.

"izentetan da "Gatzamaillea, onek iagon edo zaindu..." 83. orr.

- "alan bada Gatzamailleak bere, izanik sartu-barriak..." 82. orr.
 - "lagunduten deutsee agoia su-azpiti ateraten iielea ta Gatzamailleak, bakotxak..." 84. orr.; passim.
 - "... bitartean Gatzamailleari uragea..." 84. orr.
- Beste bi aldiz -LE amaieraz, oguzkera hau ere ondo ezgutzen bait zuen moglek
- "gatzamaille gaisoak..." 82. orr.
 - "Gatzamaille gaisoak aurreratuta..." 86. orr.

IAGOLA: "... zure Eliza-iagola Abadeak..." 111. orr.; 83.

IRAKASLA: "Iielea guztien iagola, irakasla ta burua" 83. orr.

IKASLA: "ikasla obeac" ERACASTEAC, 214. 20. Eta "Utsegiñen Zucenvidea"-n zera iakurten dugu: "iracasla obeagoac" dakarren tokian beste hau irakurri behar dela "icasla obeac". Horra hemen "i-kasla", eta "irakasla" hitzak.

ERACASLA: "... Sacerdote edo Eliz-gizon eracasla libru asco ta...": ERA-CASTEAC, Itz- Aurrecoa VII. 14.

- "... San Agustin ta san Gregorio Elizaco eracasla ta jaquitun andia-goac...": ERACASTEAC, Itz- Aurrecoa, X. 10.

2) -Ondorengoek ere B joera adierazten digute, baina auzia zehazki argitu gabe, -EA formaz bait datozkigu, gehienak:

SARDA: "sardea edo simaur batzailea (sic, "-1" batez): 100. orr.

SARA: "usuak ioan,sareak eda" 81. orr.

- "Baresarea": "el redaño" 54. orr.

ALTZA: "altza" 132. orr.: "el aliso" itzuli dute; ez dakusgu garbi -A berez-kod. denik

LABA: “daroa (ogi-orea) labara” 103. orr.

LORA: “... loraz ta bitxiz beteta...” 29. orr.

ANDRA: “gizon ta andra guztien petxua” 125. orr.

- “... zortzi gizon ta andra, lau aetati...” 129. orr.

LEZA: “... euren abia edo leza-zuloetara...” 72. orr.

ANTZA: (“hedor”): “azeri zaarrari ulea, ioan, baiña antza ez” 80. orr.

ARA: “area bere idunaz” 100. orr. (rastra) (ikus, IV. Atala)

ESKUARA: “eskuarea” 100. orr.

- “... bear da eskuareaz garia-ganik...” 102. orr.

ATSAKABA: “... ezteutsudala aitatuko atsakaba emongo deutsudan gauza-rik” 24. orr. (ikus, IV. Atala)

- “ian egizu atsakaba бага” 133. orr.

- “onak ta txarrak, atsakabea ta atsegiña...” 34. orr.

(Irakur III. Atalean “-A” itsatsidun atzizkiak Peru Abarkan” arakatzekoan “-BAGA”, “-GE/-GA”, “-KE/-KA”-z esan duguna.)

LAIA: “laiak” 100. orr. Berezko -A dun bezala.

Azkuek bere hiztegi nagusian “lai” ematen diu: Dicc. I, 517. orr. Munitibarren, Markinatik hurrean “laya bat” esaten dute. Luis M. Mugica-k, Ibon Sarasola-k, “laia” ematen digute, beraien hiztegieta; Plazido Mugikak, “lai”.

— “esku bigun samurrak baleukeez, ta ez laia, atxur ta ez askorakirtenakaz” 20.

— “atxurren, laietan irabatuten...” (ez digu, ez “laiaketan”, ez “laia-tan”): 30. orr.

— esaldi oso antzeko honetan: “soloetan dakuskuz atxurretan, laietan, saraketan, iorraan...” 100. orr.

ARAZKERIA: “zeinbat arazo ta arazkeriaz ekarten dan bedar bat...” 93. orr. Azkuek “Arazkeri” damaigu bere Dicc. I, 59.

ZARA: “zaraak” 91. orr.

PARA: (pala): “parea” 91. orr.

MATRAILLA: hitz konposatuetan datorkigu bakarrik, eta ez du erabakitzen Matrailla ala -l denik:

- “matrailla-alde ta zankoak” 29. orr.

- “matrailla-agiñak” 53. orr.

- “matrailla-alde aek eztagoz ala eginda...” 136. orr.

- “arpegi gorrista ta matrailla-alboak gizen-gizenak” 130. orr.

Izen honen hotsaren aldetatik, irakur, L. MITXELENA, *Fonética Hist. Vasca*, 183, 10.3, eta 188. orr. 21. en aipamena.

EIZA: “onela ondo datorkio eizari...” 120. orr.

- “...oillagorren eizara” 67. orr.

- “... eizaan ibilli oi dalako” 120. orr.

BELEA: “zer esan gura dabee zapoa, erroia, belea, ...” 127. orr.

- “belea da leku beetara iatsi oi dana” ibid.

• “kanpoan usa, etxean bela” esaera zaharra: 128. orr.; “erroia da bela-mueta...” 127. orr.

GINARRA: "giñarrea" 132. orr.

OTA: "otea" 132. orr.

- "ota - atxurra" 100. orr.

- "ota-maru" 132. orr.

KERIZA: "kerizea" 132. orr.

MISPILLA: "mispillea" 132. orr.

GURBIZA: "gurbizea" 132. orr.

TOPINA: "topiñak galdareari, ipur baltz" 81. orr.

- "neskatilla, ekarri egiguzuz topiñean ikusi ditudan..." 125. orr.

OSAGILLA: "... osagilleari dei бага" 81. orr.

ERLA: "erlE" dela dirudi, bi aldiz "erlE" idazten bait du, eta bestetan "-EA"

bukaerarekin:

- "erlea" 127. orr.

- "... iatort gogora erlea, ...; erleak esan gura dau..." 125. orr.

Baina "erlE":

- "erle beargiñak etxe-barruan" 125. orr.

- "erle goan nahia, ez ezti, ez breska" esaera zaharra: 118. orr.

-KUME /-KUMA: "andra" rekin lotuta "-kumE" ematen ditu:

- "bat"-ekin elakartuta: "andrakume batek" 94. orr.

- "-rik" erantsita: "erroiaren arrautzak, usakumerik ez" 80. orr.

- ondoko hitza bokalez hasten delarik:

"andrakume euskaldunak" 100. orr.

"andrakume azur-imintzailla, barriketa ta..." 23. orr.

KumE -tzat daukala deritxot

- "-E"-z amaituz: "zeinbat milla aritx,arte, pago, kastaiña..." 85. orr.

-GILA: "eztakizu etxakola iñori gatzik opa bear, geure kaltegilla ta arerioa bada bere?" 49. orr.

Ondoko hitz hauek "-E"-z bukatzen dute, "-U"-ren hurrengo bokalak "-E"-z egiteko joera bait du: -EA formaz datozkigu

URDE; BASURDE; IZURDE: "zer da basurdea?; zer da izurdea? Basurdea, basoko urde (sic) edo txarria; ta izurdea, itxasokoa" 121. orr.

- "badira urdea esaten deutseenak" (zerriari): 54.

SUGE: -EA buakaeraz datorkigu:

- "sugea" 126. orr.

- "zer esan gura dau sugeak?... Sugea da subagea" 120. orr.

ZUME: "zumea" 132. orr.

-TZA, -TZE -ren ordez:

"atera dot eriotzearen autzetati" 23. orr.

"ofrece particular interés el suf. oíd. -TZA / or. -TZE, que puede muy bien ser idéntico por su origen al casi común -TZE que forma sustantivos verbales": L. MICHELENA, Fonética Hist. Vasca, 111, 5.2, c. (Gaurregun ere Oñatin oso bizirik diraute honako hauek, "soldau-tzaia", edo eta "soldauskaia", "eskontzaia", "kentzeia", "soldauskaan".

VI. ATALA

Amaiera gisa

A) Azken oharrak

1. Gorago aipatu dudanez, banuen Peru Abarkaren eskuidatzien jator-tasunaz zerbait esateko asmorik, atal berezia osatuz. Oraindik Peru Abarka eskuidatzien auzia argitzeke daukagu. Denok dakigunez, Mogelen Peru Abarkaren hainbat eskuidatzi ditugu hor hemen, ezagunak batzuk, isilian daudenak beste batzuk. Zein da, benetan, lehenengo eskuidatzia, edo eskui-datzi jatorra?; hainbat ms. baditugu, nork norengandik berridatzi du? Auzi honek egiten dizkigun galderak, erantzuna eskatzen digute. 1881.eko argital-penak, hasierako ‘Advertencia’-n digunez, Zarauzko eskuidatzia hartu zuen oinarritzat:

“... se advierte que la impresión está copiada exactamente del original que se conserva en el convento de los PP. Franciscanos de Zarauz”:
PERU ABARCA, Durango 1881, hasieran.

Eztabaida kritikoki argitu nahirik azterketatxo batzuk egin ditut. Zarautz, Arantzazu eta Markinako karmeldarren artxikoarduradunen eskuzabaltasunari esker, niregan eduki izan ditut hiru eskuidatziok, ikerlan eta elkar konparaketak egin ahal izan ditzakedan. Egin ere azterketa batzuk egin ditut. Baina arazo honek berak bakarrik ikerketa kritiko berezia eska-tzen digunez gero, alde batetik, eta nire azterlana larregi luzatu zaidalako bes-tetik, beste batetarako uzten dut eskuidatzien jator-tasunaren auzia.

2. Zerk eraginda autatu dudan Peru Abarka? Elaberri hau Bizkaieraren lehenbiziko idazlan nagusia ez ezik, euskalki horren literaturaren klasikoene-tariko bat dugulako, bai hizkuntzaren aldetik, bai baserri-kulturaren ezauga-rrien ugaritasunaren aldetik: hizkuntza, idazkera bizi-bizia, hitz ugaritasuna, aditz iokoak, elkarrizketa gatzetz betea. Ematen dizkigun izen egoki eta bere-ziak, eta euskal ohituren agiri eta azalpenen aldetik, behar-beharrezko izango zaigu Peru Abarka garai harretako euskal etnografia, Markina ingurukoa batez ere, aztertu eta ezagutu nahi badugu. Baditu, bai, hainbat akats, joske-ran batez ere; kontuan eduki behar dugu Bizkaieraren Literatur tradizioaren aitzindari izan zela, eta ez eukala literatura ederrik idazkera, etabar, lantzeko. Guzti horiek gogoan izanik gure euskalkiaren idazlan atsegin honen ikuspegi-ren bat aztertzea komenigarria iruditu zait: “berezko -A dun” izen eta adjek-tiboen arloa arakatzea eta argitzea aberaskarri zaigula uste dut.

• Bestaldetik, Peru Abarkaren -A berezkodun hitzen azterketa egin gabe geneukan oraindaino. Egia da, gramatikalariek, aita Villasantek, Txillar-degik eta beste batzuek auzia ukitu dutela; baina ikuspegi orokarrez bakarrik mintzatu dira. Ikerlan sakonik egin gabe ezin dezakegu erabaki -A berezko-

dun hitzen auzia: zalantzarik ugari izango dugu -A itsatsidun hitzen saila mugatu nahi dugunean.

Arazoa berak eskatzen duen zientzitasunez argitu ta zehaztutzeko klasi-koak aztertu beharko ditugu. Beste hainbeste esan behar dugu euskeraren alderdi gehienei buruz, euskal ikerlanak hasten bait daude oraindaino. Banakaren bat bakarrik aipatzeko, Patxi Altunak plazaratu dizkigu bere tesisa eta beste bi ikerlan sakonak lehenbiziko euskal idazleaz, hau da Bernard Etxepare-ren alderdi baliotsuenez (bertsogintza, metrika, hiztegia, eta edizio kritikoa). Mogeli buruz, *Euskera* aldizkariak argitaratu zituen Eibarko Biltzarrean aurkeztu ziren idazlanak: *Euskera* V., 1960. Peru Abarkaz M. Luisa Diez Ezkerak aztertu du Mogelen idazlan honen balio lingüistiko-metalingüistikoa. Euskalkiek berezitasunak dituzte, bai -A berezkodun hitzen arloan, bai beste ikuspegi askotan.

3. Oso gutxi aztertuak ditugu Peru Abarkaren adjektiboak, hitz mugatu eta mugagabeak, fonetika-fonologia, Peru Abarkak damaigun euskal antropologia sikologia esaeretan, ipuinetan, bertsoetan, kanteetan, ohituretan, aditzean, lan egiteko eretan, etabar. Aztertzen dauzkagu beste hainbat ikuspegi, adib., euskera eta euskal mitologia; euskera eta bertsogintza metrika erritmoa mugimendua; euskal sinbolo, alegoria, etab.; euskera eta sendagintza, herri-jakituria osakintzaz; elkarrizketa eta euskal sikologia, aditzaren eragina eta sikologia; euskera eta irudiak; euskera eta erlijioaren eragina; euskera eta odol ahaidegoa; Mogelen metologia Peru Abarkan euskera ikasgarazteko; langileen arazoa, elkarlana Peru Abarkan; euskera eta industriagintza Peru Abarkan: aizearena, urarena, suarena, itsasoarena, harriarena, burdinarena, zurarena, linoarena eta gaurko teknika berriak; literatur ikuspegiak, balore, iturburu, harreman, etab.

Ikuspegi horiek, eta beste batzuk, azterzeko gaia eta haria ematen digu Peru Abarkak. Euskal baserritarraren bizitzaren agiri eta adierazpenak gogoan eduki beharko ditugu garaiko euskaldunaren soziologia, sikologia eta antropologiaren koordinadak oinarritzerakoan.

4. -A berezkodun hitz ugari damaigu Peru Abarkak: 483 jaso ditugu. Horietatik gehienak euskalki guztietan -A itsatsidun bezala erabiltzen dira; beste batzuk Mogelek, Bizkaieraren ohitura edo joera aintzinakoari jarraituz, -A berezkodun hitzen erara amaitzen ditu, nahiz eta euskalki guztiek ez erabili -A itsatsidun bezala: lora, oba, erla...; beste banaka batzuen amaierako "-A"-k, plur. -Ak, edo "-EA"-k zalantzak sortaraz dezaizkigukete.

Artikulua, euskaraz, hitzaren amaierari ezartzen zaionez gero, ez zaigu zalantzarik faltako: bukaerako -A hori, hitzak berea du ala erantsitakoa da?; galdetu beharko dugu sarritan (ikus, II. Atala: "Bereko -A dunen" deklinabidea).

6. Lehenengo Atalean, -A berezkodun hitzen zerrendaren azkenean "Hitz bereziak"-en kalifikatiboz izendatu ditugu izen batzuk, gaur daramaten

amaiera beste bukaera baten eboluzioak sortua bait da: adib., gaztae, kanpae, katea. Gaurregun, behar bada, hitz hauek ez ditugu -A berezkoduntzat jozen; baina beraien era zaharrak eta ezagun duten latinerazko sustraiak beste ondorioa garamatza: adib., gaztana, kanpana, katena -ti/c datozkigula.

7. Historian zehar, euskeraren bizitzan alegia, eragin sakona izan dute atzizkiak burutapen edo “zer” berriak adierazteko: adib., maite, mai + tasun (maitetasun), maita + keria; zuri, zuri + keta. Euskera gauza bizia da, gure elkar harremanen agiri bizia, beti osatuz, egokituz joan behar duena garai bakoitzeko arazo berriei, eskatzen duten sakontasunaz eta gaitasunaz, erantzun nahi badie; ezin daiteke gelditi betirako ernaberriko egoeran.

Alde honetatik begirata, presakeria gehiegiz eta larritasunez edo atereak dira, ene uste apalez, gure Luis Mari Muxika-ren ondorio batzuk, bere *Origen y desarrollo de la sufijación euskérica* azterlanean (San Sebastián, Ediciones Vascas, 1978). Kritika oso zorrotzak egin dizkio Alfontso Irigoyen-ek, Musikaren ikerlanak bai orokorki aztertuz, eta bai hainbat alderdi zehatzetan:

“En primer lugar, creo que debe ponerse de manifiesto que el autor no se ha planteado con el debido rigor científico el tema de la prefijación y sufijación, habiéndose salido por la tangente al fabricarse sus conceptos de paraprefijación y de parasufijación, con el objeto de clasificar elementos que no encajan dentro del título general. No queda claro la naturaleza de un paraprefijo y del parasufijo y ello puede conducir, y le ha conducido al autor, a desenfoques en cuestiones básicas de nuestra lengua... Permitaseme señalar que los términos “parasufijo” y “paraprefijo” sugieren algo así como la existencia de prefijos y sufijos legales e ilegales”: A. IRIGOYEN, “Crítica sobre prefijación y sufijación en lengua vasca”, *Fontes Linguae Vasconum*, 1979, mayo-agosto, 243. orr.

Atzizkien Atal aberats honetan, hemen -A berezkodun atzizkiak, baka-rik, interesatzen zaizkigu; III. Atal luzea osatzen dute berauek gure azterlan honetan. Atzizki hauetaz ohar batzuk egin behar ditugu: 1) “ekintza, edo ekintza giroa” adierazten diguten -A berezkodun atzizkiak ugariak eta esanguratsuak dira Peru Abarkan. Ene ustez, euskal antropologia, sikologia, egite-rakoan kontuan eduki beharko dugu euskeraren ikuspegi “dinamiko” hau.

2) -ERIA, -TERIA, -KERIA, -DURIA atzizkien amaierako -A ondo gordetzen du Mogelek, “iakituriarik”, “baldreskeria бага”, “pigureria guz-tiak”. Gaurregun “baiduri + rik бага”, etab., esango genuke.

3) III. Atalean “-A itsatsidun Atzizkiak Peru Abarkan”, eta VI. Ata-lean “Zalantzazko -A berezkodun hitzak Peru Abarkan” aztertzerakoan esa-na birresaten dugu hemen: -LE, eta -GILE (-KILE) atzizkiak, Mogelek -LA, -GILA, (-KILA) amaieraz erabiltzen ditu, sarri Bizkaieraren joera zaharra gor-derik: irakasla, osagila, egila, enzula, iagola, saltzaila, ...; banakaren bat -E -z bukatuta ere badatorkigu: oratzaile (tenedor), gatzamaile; berauok ere, gehie-

netan, zalantza sortzaile den -EA amaieraz: gatzamallea, oratzallea, eta antzekoak.

8. Nahiz eta zehatz mehatz nire azterlanaren mugetan ez sartu, oso-oso-oso behintzat, -AA bikotedun hitzen arazoa, Peru Abarkan -AA bokale -ioko honekin agertzen diren hitzak jaso ditugu, berauetako izen batzuk -A berezkodunak bait dira: gauzaak, ganbelaak, azaak, tresnaak. Batez ere inesi-boan eta nomin, plur. darabil “-A” bikoiztuteko joera. Baina Atala larregi ez luzatzeko -AA bikotedun hitzen azken sustraiek egin dituzten aldaketak, historian zehar, aztertzen ez naiz sartu, beste arlo batetara eramango gait ninduen ikuspegi horrek.

9. I.go Atalean (-E) erantsi diegu hitz batzuei: sarritan, -EA amaieraz datozkigu: erlea, sardea, suge, otea (argoma), eskuarea, sarea. Beste euskalkientzat -E -z amaitutako izenak dira, baina Bizkaieraren eta Mogelen idazkera zabalena ezaguturik, -A -z amaitzekoa, alegia, gehienak -A berezkoduntzat hartzera eramaten gaitu; kasu bakoitza ikusi behar.

Gure Mogelek, honetan ere, Gipuzkeraz oso ondo ezgutuarren, eta Lapurteraz ere jakin, Bizkaieraz idazten duenenan Euskalki honen, eta Markina aldekoaren -A -z amaitzeko ohitura zaharra darabilela esan behar dugu.

Gorago ere esan dugunez, Juan Antonio Mogel mugako gizona genuen, bi euskalkien muga mugakoa izan ere, bai iaiotzaz eta bai bizitzaz: Eibarren jaio, eta Markinaldean bizi izan bait zen beti. Izakera honek bere aberastasun eta bere arriskuak dakartza: Mogelek ondo ikasi zituen Bizkaiera eta Gipuzkera; bestaldetik begiratuta, mugako gizona izateak ez ote dio lagundu hitz batzuen bitarikotasuna “oba/ obe, erla/ erle, sarda/ sarde, eskuara/ eskuare”, zehatz mehatz garbitu gabe uzten? Jakina denez mugetako herrietan holako hitzak bietara erabilten ditu, sarri, herriak berak ere. Eta Mogelek sarri esaten digu herriarengandik, nekezariengandik batez ere, ikasitako euskera idazten duela.

“Gauza batek ikaratuten nau zugan: zein ederto euskera berba egiten dozun eskolarik euki bago”, M. Juan “eskolau azeriak” esaten dioenean, zera erantzun dio Peru baserritarrek:

“Maisu Juan, nik eztakit beste euskerarik neure guraso (mugako herrietan bizi izan zirenak) ta auzokoai (Markina ingurua alegia) ikasi deutseedana baiño”: 49. eta 50. orr.

Hauxe da Mogelek egiztatu nahi digun tesisa Peru Abarkan barna: baserritarrengan dagoela euskerarik biziena, aberatsena, gihartsuena, egokiena; Peru dugu nekezarien eredu ez ezik, euskeraren “katedratiko” nagusia:

“Parece algo extravagante el título de la obra; pero no lo será a quien atentamente considera, que un rústico bascongado puede ser Doctor y Maestro de su lengua, y ser Catedrático de ella, llamando a su escuela de las monañas a clérigos, frailes, caballeros y demás que no se han fatigado (Mogelek

sartu nahi digun ardura: ahaleginik gabe, ez dago euskara ikasterik) en meditar el artificio curioso, ni las saladas expresiones de dicho idioma:

“En los diálogos que presento, habla un Labrador, vestido de Abarca o calzado peculiar del País; un rústico que no ha puesto pies en la escuela de primeras letras; un solitario que no ha salido de los bosques del bascuence; que no sabe una palabra de otro idioma, y que en mil asuntos implicados y muy diferentes habla afluentemente con la mayor pureza sin hallarse embarazado por falta de voces... ni mendigar extrañas”: MOGUEL, J. A., *Peru Abarca*, 1881, 6-7. 2. eta 3.

10. Azpimarratzekoa da zein ederto eta garbi erabiltzen dituen Mogelek gaurregun, sarri, -A gabe entzuten ditugun hitzak: “anaia a”, “gauza bat”, “gauza, asko”, “gauzarik”, “gauzeetan”, “lotsa ona”, “makilla”, “neskatilla ona”, etab. Dirudienez Mogelek, eta garaikoek, gaurkoek baino hobeto erabiltzen zituzten -A berezkodun hitzak. Baina dena ez da gari hutsa; hor irakurtzen ditugu “neskatx”, “giltz”.

11. Nere azterlan honek beste ikerketa batzuk eskatzen ditu: Mogelen Bizkaierazko eta Gipuzkerazko idazlan guztien azterketa eta elkar parekaketak; horrela Mogelen idazkera osoa ezagutuko genuke. Baitere aberaskarria izango litzateke Mogelen Bizkaieraren jatorriasuna hobeto ezagutzeko, beraren adiskide Añibarro-renarekin batera aztertu eta parekatzea, Bizkaierazko literatur tradizioaren sortzaileak bait dira, Arratiarra bata, Markinaldean bizi guztia eman zuena, bestea. Biek ondo ezagutzen zuten B, eta bakoitzak bere eskualdeko berezitasunez edertzen dute.

12. *Joskera*: gorago aitatu dugu joskeraren aldetik dena ez dela irin garbia *Peru Abarkan*, akatsak ere badituela hor hemen. Baina ez naiz gai horretaz mintzatu, -A berezkodun hitzen arazoez baizik. Mereziko luke berau sakonki aztertzea eta Mogelen literatur balioak irizpidetzea.

B) Aipamenak

Aipamen ugari ipini dut: 1700 etik gora. -A berezkodun hitz mota bat baino gehiago damaigu Mogelek: izen soilak dira batzuk: gauza, burdina, aza; hitz konpostuak beste batzuk, -A itsatsidun atzizkiren baten bidez osatuak gure kasuan: adib., -aba, -ada, -eria, -keria, -keta, -txa, -tila, etabar. Hitz konposatu batzutan, zati biak, izen soila eta atzizkia, biak -A -z amaitzen dira: koltza + gintza = koltzagintza; neska + tila = neskatila. Beste batzutan, ordea, atzizkia bakarrik da -A itsatsiduna: Barberu + tza = barberutza; katilu + ada = katilukada.

-A berezkodun hitz soilez Atal bat egin dugu, eta -A itsatsidun atzizkiez beste bat IV. eta III.

5. Azpimarratzekoa da Bizkaieraren joera berezia -A berezkodunak deklinatzerakoan: -A + -A = -EA giten du, eta ez -A + -A = -A beste eus-

kalkiek egiten duten bezala: Bizkaierak: neska + -A = neskea; Gipuzkerak ordea, neska + -A = neska, -A batekin ikus, II. Atala.

Hori dela eta, -A berezkodun hitzen ikuspegi bat baino gehiago aztertu ditut; eta Mogelen idazkera argiago ager dakigun, baieztapenak hainbat adibiden bidez baieztatzen ahalegindu naiz; hortik aipamenen ugaritasuna, eta aberastasuna. Batzutan aipamenaren orrialdearen zenbakia bakarrik, esaldirik gabe, ipini izan dut, interesatzen zaigun hitz hori beste esaldiren baten ere sartuta dagoelako. Esaldi banakaren bat behin baino gehiagotan agertuko zaigu, berak damaigun argi bereziagatik. Mogelen iritzia osokiago ikus dezakegun aipamen batzuk luze samarrak dira beraiek adierazten diguten aberastasunagatik. Horrtarako Mogelen beste idazlanak ere aitatu ditugu, noizean behin "Eracasteac", batez ere.

- Nire azterlanaren oinarritzko testutzat 1970.eko argitalpena erabili izan dut. Baina hainbat aldiz 1881.ekoa eta Zarausko eskuidatzia ere aipatu ditut, argitaldien artean dauden aldaketak azalduz. Arantzazuko eta Markinako eskuidatzia eta beste argitaldiak ere begien aurrean eduki izan ditut, baina ez ditut aipatu -A berezkodun izen eta adjektiboen auzia gehiegi ez zirriborratzeko.